ivac kei
Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua

Fp
LANBIDE HEZIKETA



GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE LANAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua

# ERREPIDE GARRAIORAKO IBILGAILUAK GIDATZEKO TEKNIKARIA



# AURKIBIDEA


1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA — 4. or.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA — 4. or.
   - 2.1 Konpetentzia orokorra
   - 2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda
   - 2.3 Lanbide-ingurunea

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK — 6. or.
   - 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak
   - 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa
   - 3.3 Lanbide-moduluak
     1. Hasierako gidatzea
     2. Gidatze segurua eta zentzuzkoa
     3. Garraioaren arloko legeak eta alderdi ekonomikoak eta sozialak
     4. Salgai-garraioko zerbitzuak
     5. Bidaiari-garraioko zerbitzuak
     6. Biltegiko lanak
     7. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak
     8. Lehen laguntzak
     9. Ingelesa
     10. Laneko prestakuntza eta orientabidea
     11. Enpresa eta ekimen sortzailea
     12. Lantokiko prestakuntza

4. GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK — 110. or.
   - 4.1 Espazioak
   - 4.2 Ekipamenduak

5. IRAKASLEAK — 112. or.
   - 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan

6. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK — 113. or.
   - 6.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko
   - 6.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

# 1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzeko teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea.
- Maila: Erdi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: CINE-3b.

# 2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

## 2.1 Konpetentzia orokorra

1.- Titulu honen konpetentzia orokorra da errepideko garraiorako ibilgailuak gidatzea, zirkulazioko, bide-segurtasuneko eta garraioko arauak beteta, Europa mailakoak barne. Halaber, bidaiarien arretari, zamalanak gainbegiratzeari eta gauzatzeari eta biltegiko eta paketeria-banaketako eragiketei loturiko eginkizunak gauzatzeko konpetentzia eskuratzea dakar, xedatutako prozeduren arabera, eta xedatutako kalitate-, segurtasun- eta ingurumena babesteko eskakizunei jarraikiz.

## 2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

a) Autobusak gidatzea. TMV454_2. (1225/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:
   UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea.
   UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.
   UC1463_2: Garraio-zerbitzuen plangintza egitea eta bezeroekin harremanetan jartzea.
   UC1464_2: Autobus- edo autokar-bidaiariei arreta eta informazioa emateko jarduerak gauzatzea.

b) Errepideko salgaien garraiorako ibilgailu astunak gidatzea.TMV455_2. (1225/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:
   UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea.
   UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.
   UC1463_2: Garraio-zerbitzuen plangintza egitea eta bezeroekin harremanetan jartzea.
   UC1465_2: Salgaien zamalanen prozesuak gainbegiratzea eta/edo gauzatzea.

c) Auto eta furgoneten gidari profesionala izatea. TMV456_2. (1225/2010 Errege Dekretua, urriaren 1ekoa). Konpetentzia-atal hauek hartzen ditu barnean:
   UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea.

UC1466_2: Taxiak, autoak edo furgonetak gidatzea eta zerbitzua emateari loturiko eragiketak gauzatzea.
UC1467_2: Erabiltzaileei arreta emateko eta bezeroekin harremanetan jartzeko jarduerak gauzatzea.

Osatu gabeko lanbide-kualifikazioa:

Biltegiko jarduera lagungarriak. COM411_1. (1179/2008 Errege Dekretua, uztailaren 11koa):
UC1325_1: Salgaiak biltegian jasotzeko, ipintzeko, mantentzeko eta bidaltzeko jarduera lagungarriak gauzatzea, taldean lan eginez.
UC0432_1: Zamak orga jasotzaileekin erabiltzea.

## 2.3. Lanbide-ingurunea

Titulu hau eskuratzen dutenek nazio-mailan zein nazioartean bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzeko zerbitzuak egiten dituzten enpresa txikietan, ertainetan eta handietan egiten dute lan, beren kontura zein besteren kontura. Biltegiko operatibarekin eta paketeen banaketarekin lotzen diren beste lan batzuk ere egin ditzake. Gidatzeko jarduera profesionala administrazio eskudunak xedatutako arauen pean dago. Jarduera profesionalean irisgarritasun unibertsaleko printzipioak aplikatuko dira, indarrean dauden legeen arabera.

Enpresa hauetan egin dezake lan:

Salgaiak, oro har, garraiatzeko enpresak.
Banaketa- eta paketeria-enpresak.
Salgaiak tanga-ibilgailuetan garraiatzeko enpresak.
Salgaiak plataforman garraiatzeko enpresak.
Salgaiak hozkailu-ibilgailuetan garraiatzeko enpresak.
Animalia biziak garraiatzeko enpresak.
Ibilgailuak eramateko ibilgailuen bidezko garraio-enpresak.
Bidaiarien errepideko garraio erregularreko enpresak.
Bidaiarien errepideko garraio diskrezionaleko enpresak.
Osasun-garraioko enpresak.
Errepidean laguntzeko enpresak.
Bidaiarien garraio turistikoko enpresak.
Gorpu-garraioko enpresak.
Hondakin-garraioko enpresak.
Ibilgailuak alokatzeko enpresak.
Logistikako eta banaketako enpresak.

Hauek dira zeregin eta lanpostu aipagarrienak:

- TIR kamioien gidaria (nazioarteko garraioa).
- Salgai arriskutsuen kamioien gidaria.
- Atoia duten kamioien eta/edo traktokamioien gidaria.
- Tanga-ibilgailuen gidaria.
- Hozkailu-ibilgailuen gidaria.
- Ibilgailuak eramateko ibilgailuen gidaria.
- Hormigoi-kamioien gidaria.
- Iraulki-ibilgailuen gidaria.
- Autoiraulki-ibilgailuen (Dumper) gidaria.
- Errepidean laguntzeko garabi-ibilgailuen gidaria.

- Ibilgailu berezien gidaria.
- Animalia bizien garraiorako ibilgailuen gidaria.
- Bidaiarien errepideko garraiorako ibilgailuen gidaria.
- Hiri barruko autobusen gidaria.
- Hiriarteko autobusen gidaria.
- Nazioarteko autobusen gidaria.
- Eskolako autobusen gidaria.
- Taxi-gidaria.
- Automobilen gidari profesionala.
- Bederatzi eserleku arteko bidaiariak garraiatzeko ibilgailuen gidari profesionala.
- 3.500 kilo arteko furgoneten gidaria.

# 3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIAK

## 3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Jarraibideetan eta mantentze-planean aintzat hartzen diren eragiketak gauzatzea, ibilgailuaren oinarrizko mantentze-lanak eta berrazterketak egiteko.
2. Gidariari, bidaiariei, zamari eta ibilgailuari dagokien dokumentazioa hautatzea, egin beharreko eragiketaren eskakizunen arabera.
3. Dagozkion arauak eta xedatutako protokoloak aplikatuta egin beharreko jarduerak hautatzea, bidaiariak ibilgailura igotzeko, salgaiak biltzeko eta entregatzeko eta ibilgailuaren zamalanak egiteko.
4. Ibilgailua kontrolatzeko eta gidatzeko eragiketak hautatu eta gauzatzea, ibilgailua gidatzeko xedatutako zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arauak aplikatuta.
5. Ibilgailua zentzuz eta segurtasunez gidatzeko arauek eta protokoloek gomendatutako eragiketak hautatu eta aplikatzea.
6. Salgai arriskutsuak garraiatzeko ibilgailuak, tanga-ibilgailuak eta bestelako salgaietara berariaz egokitutako ibilgailuak gidatzeko arauek eta protokoloek gomendatutako jarduerak hautatu eta aplikatzea.
7. Ibilgailuak egoera berezitan gidatzearen simulazioa egiteko segurtasun-protokoloak eta prebentzio-irizpideak hautatzea eta simulagailuen funtzionamendua interpretatzea.
8. Bidean matxura txikiak hauteman eta konpontzeko behar diren eragiketak eta gorabeherei irtenbidea emateko eragiketak gauzatzea.
9. Proposatutako gorabeherak zentzuz eta arduraz interpretatzea, txostenak egin eta izapidetuta, hala badagokie, erabiltzaileen erreklamazioei arreta egiteko.
10. Biltegiko jarduerak egiteko bitarteko tekniko erabilgarriak erabiltzea, biltegiko funtzionamendu-eragiketen jarraibideak interpretatuta.
11. Larrialdi-egoeretan jarduteko tekniken ondoriozko protokoloen araberako neurriak aplikatzea.
12. Kasuan kasuko komunikazio-teknikak aplikatzea, bezeroen segurtasuna, erosotasuna eta gogobetetzea lortzeko.
13. Bizialdi osoko ikaskuntzarako dauden baliabideak, eta komunikazio- eta informazio-teknologiak aztertu eta erabiltzea; ikasteko eta jakintza eguneratzeko, hobekuntza profesional eta pertsonalerako aukerak hautemanda, eta hainbat egoera profesionaletara eta lanekotara egokitzeko.
14. Talde-lanak garatzea eta haien antolamendua baloratzea, tolerantziaz eta errespetuz parte hartuz, eta erabaki kolektiboak edo bakarkakoak hartzea, erantzukizunez eta autonomiaz jarduteko.

15. Sormenezko irtenbideak hartu eta balioestea lan-prozesuak garatzean sortzen diren arazo eta gorabeheren aurrean, dagokion jardueran izaten diren gertakariak erantzukizunez ebazteko.
16. Komunikazio-teknikak aplikatzea, zabaldu beharreko edukietara, horien helburura eta hartzaileen ezaugarrietara egokituta; prozesuaren eraginkortasuna ziurtatzeko.
17. Jarduera profesionalarekin lotutako ingurumen- eta lan-arriskuak aztertzea, eta horien kausekin lotzea, hartu beharreko prebentzio-neurriak oinarritzeko eta aplikatu beharreko protokoloak aplikatzeko, nork bere buruari, hirugarren batzuei, inguruari eta ingurumenari kalterik ez egitearren.
18. Irisgarritasun unibertsalari eta «denontzako diseinuari» erantzuteko beharrezkoak diren teknikak aztertzea eta aplikatzea.
19. Ikasteko prozesuan lanaren kalitate-prozedurak eta erreferentziako produkzio-sektorearenak hobetzeko beharrezkoak diren teknikak aplikatzea eta aztertzea.
20. Kultura ekintzailearekin, enpresakoarekin eta ekimen profesionalekoarekin erlazionatutako prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bati ekiteko.
21. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan izanda, gizarteko agente aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

## 3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

| LANBIDE MODULUA | Ordu-esleipena | Kurtsoa |
|---|---|---|
| 1204. Hasierako gidatzea | 231 | 1 |
| 1205. Gidatze segurua eta zentzuzkoa | 210 | 2 |
| 1206. Garraioaren arloko legeak eta alderdi ekonomikoak eta sozialak | 165 | 1 |
| 1207. Salgai-garraioko zerbitzuak | 165 | 1 |
| 1208. Bidaiari-garraioko zerbitzuak | 84 | 2 |
| 1209. Biltegiko lanak | 165 | 1 |
| 1210. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak | 198 | 1 |
| 0020. Lehen laguntzak | 66 | 1 |
| 0156. Ingelesa | 168 | 2 |
| 1211. Laneko prestakuntza eta orientabidea | 105 | 2 |
| 1212. Enpresa eta ekimen sortzailea | 63 | 2 |
| 1213. Lantokiko prestakuntza | 380 | 2 |
| **Zikloa, guztira** | **2.000** | |

## 3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

# 1. lanbide-modulua
# HASIERAKO GIDATZEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Hasierako gidatzea** |
| Kodea: | 1204 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 231 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.<br>UC1466_2: Taxiak, autoak edo furgonetak gidatzea, hala nola zerbitzua emateari loturiko eragiketak gauzatzea. |
| Helburu orokorrak: | 4 / 15 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bide publikoak bereizten ditu, bide motak beren ezaugarriekin, seinaleztapenarekin eta erabilerarekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bideak sailkatu ditu, esparruaren arabera.
b) Bide publikoak sailkatu ditu, izenaren arabera, deskribapenaren eta esanahiaren arabera definituak.
c) Bide publikoa osatzen duten zatiak azaldu ditu, motaren arabera.
d) Seinaleztapena osatzen duten luzetarako eta zeharkako marrak irudikatu ditu.
e) Seinaleztapen-markak eta horien eginkizunak elkarrekin lotu ditu.
f) Erabilera bereziko erreiak deskribatu ditu; alegia, ibilgailu jakin batzuek erabiltzeko baino ez direnak.
g) Bidearen erabilera azaldu du, zirkulazioaren noranzkoaren eta ibilgailuaren kokapenaren arabera.
h) Gehienezko abiadura baimenduak azaldu ditu, bide mota bakoitzaren eta erabilitako ibilgailuaren arabera.
i) Lanean jarrera metodikoa eta ordenatua izan du.

2. Zirkulazio-seinaleak interpretatzen ditu, esanahia eta mota ondo identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Seinaleztapen bertikaleko motak deskribatu ditu, zirkulazio-lengoaiaren arabera.
b) Erabiltzaileari informatzeko eta abisu emateko eta jokabidea ordenatu edo arautzeko seinale motak sailkatu ditu.
c) Zirkulazio-seinaleak sailkatu ditu, lehentasun-ordenaren arabera.
d) Zirkulazio-seinale bertikalen esanahia zein den azaldu du.
e) Semaforo bidezko seinaleztapenaren eta baliza-seinaleen ondoriozko argi-jarraibideak ondo interpretatu ditu.
f) Zirkulazio-agenteek emandako aginduak edo egindako keinuak ondo interpretatu ditu.
g) Egoera jakin batzuetako jokabideen ondorioz bete beharreko jarraibideak edo aginduak azaldu ditu.

3. Ibilgailuaren aginteak, mekanismoak eta seinaleztapen-gailuak erabiltzen ditu, baldintza edo egoera jakin bakoitzari dagokiona deskribatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilgailuaren aginteen, mekanismoen eta seinaleztapen-gailuen kokapena ondo identifikatu du.
b) Ibilgailuaren instrumentu-taulako adierazle eta ohar-argi guztien esanahia ondo interpretatu du.
c) Segurtasunez gidatzeko gidariaren erosotasunerako sistema guztiak doitu ditu.
d) Argiztapen-gailuek eta seinaleztapen optikokoek besteak eta besteek ikusteko eginkizuna betetzen dutela egiaztatu du.
e) Ibilgailuak seinaleztatzeko gailuak identifikatu ditu, lehentasunaren edo berezitasunaren eta garraio motaren arabera.
f) Ibilgailuaren aginteak, mekanismoak eta gailuak erabili ditu, trafikoari, zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruz xedatutako eskakizunen arabera.

4. Ibilgailua gidatzen du, trafikoko, zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arauak ondo interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilgailuaren segurtasun-egiaztapen egokiak egin ditu, gidatu aurretik.
b) Ohar-argien irakurketa ibilgailuaren eskuliburu teknikoan adierazitako sistemen funtzionamendu zuzenari egokitzen zaizkiola egiaztatu du.
c) Bidera pixkanaka sartu da, erabili beharreko adierazle edo seinale zuzenak erabilita.
d) Martxa pixkanaka aldatzeko erabili du.
e) Balaztatzeko mekanismoak erabili ditu leun eta neurrian.
f) Ibilgailua prebentzioz gidatu du, betiere zirkulazio-arauak betez.
g) Oinarrizko printzipioak aplikatu ditu, erreiko kokapenari, abiadura egokiari eta segurtasun distantzia zaintzeari dagokienez.
h) Ibilgailua behar besteko arduraz aparkatu du, zirkulazio-arauetan xedatutakoa betez.
i) Gizalegez gidatu du.

5. Maniobrak egiten ditu, bideko baldintzak ondo identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariak zirkulazio-maniobretan izan beharreko jokabidea deskribatu du.

b) Ibilgailuak kakotzeko/askatzeko eragiketak eskatutako doitasunaz gauzatu ditu.
c) Maniobrak behar besteko kontuz egin ditu.
d) Bidegurutzeetan, biribilguneetan eta trenbide-pasaguneetan zirkulazio-arauetan xedatutako prozedurei jarraikiz ibili da.
e) Aurreratzeko maniobrak arauak betez egin ditu
f) Atzera-martxan ibili da, bideko gainerako erabiltzaileen araberako parametroei erreparatuta.
g) Hainbat modutan aparkatu du.
h) Ibilgailua ibilgetu du, gidariak hala nahita.

## c) Edukiak

| 1. BIDE PUBLIKOEI TANKERA HARTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Bide-marrak sailkatzea.<br>- Bideak identifikatzea, haien ezaugarri teknikoen arabera.<br>- Bidearen atalak identifikatzea.<br>- Errei bereziak identifikatzea, erabileraren arabera.<br>- Abiadurak bide/ibilgailu motarekin lotzea. |
| kontzeptuzkoak | - Trafikoaren eta bide-segurtasunaren gaineko arauak. Arauak betetzearen garrantzia.<br>- Zirkulaziorako bide publikoak. Kontzeptua. Sailkapena. Bide motak. Nomenklatura. Bidearen atalak.<br>- Bide-marrak: luzetarakoak, zeharkakoak, horizontalak, kolore zuriko beste marka batzuk.<br>- Beste kolore batzuetako bide-markak.<br>- Zirkulazioaren norabidea eta noranzkoa.<br>- Ibilgailuaren kokapena errepidean.<br>- Erreiak. Motak. Erreien erabilera.<br>- Zirkulaziorako errei bereziak.<br>- Errepideko segurtasun-arau orokorrak eta gizalegea.<br>- Bidea gainerako erabiltzaileen arabera erabiltzea.<br>- Zirkulatzeko murriztapenak.<br>- Zirkulazioaren kasu bereziak.<br>- Errepideak ixtea.<br>- Galtzadako obrak.<br>- Bideko oztopoak.<br>- Istripu-tasak, bide/ibilgailu motaren arabera.<br>- Gehienezko abiadura baimenduak, bide mota bakoitzaren eta erabilitako ibilgailuaren arabera. |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 2. SEINALEAK INTERPRETATZEA ETA SEINALE MOTAK | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Zirkulazio-seinaleak sailkatzea, lehentasun-ordenaren arabera.<br>- Mezu aldakorreko panelak interpretatzea.<br>- Agenteek egindako seinaleak ondo interpretatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Seinaleztapen okerrak edo nahasiak aztertzea.<br>- Zirkulazio seinaleen panel osagarriak interpretatzea.<br>- Trafiko-seinalerik ez dagoenean izan beharreko jokabidea zehaztea.<br>- Trafiko-seinale kontraesankorren aurrean izan beharreko jokabidea zehaztea. |
| . | |
| kontzeptuzkoak | - Bideetako seinaleak. Eginkizuna.<br>- Zirkulazioko lengoaiaren elementuak. Zirkulazioko seinaleen motak eta esanahiak.<br>- Zirkulazio-seinaleak. Zirkulazioko seinale moten lehentasun-hurrenkera.<br>- Seinaleztapen bertikala.<br>- Semaforoak.<br>- Balizatzeko seinaleak.<br>- Mezu aldakorreko panelak.<br>- Seinaleak eta agenteen aginduak.<br>- Seinaleak betetzea, galtzadan duten kokapenaren arabera.<br>- Bidea seinaleztatzeko irizpideak.<br>- Trafiko-seinalerik ez dagoenean izan beharreko jokabidea.<br>- Trafiko-seinale kontraesankorren aurrean izan beharreko jokabidea.<br>- EBko herrialdeetako bide-seinaleztapena. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 3. IBILGAILUAREN SISTEMAK ETA AGINTEAK | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Jarraibide-liburua aurkitzea eta ondo interpretatzea.<br>- Aginteak eta kontrolak identifikatzea.<br>- Elementuak eta aginteak doitzea.<br>- Adierazle-koadroaren irakurketa interpretatzea: instrumentu-taulako ohar-argiak.<br>- Erosotasunerako sistemak doitzea.<br>- Argiztapen-sistemak eta seinaleztapen optikoa erabiltzea.<br>- Inguru-kondizioek ikusgarritasuna murrizten dutenean erabili beharreko argiak identifikatzea.<br>- Ibilgailuaren aginteak erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuen elementuak eta ezaugarriak.<br>- Argiztapen-sistema eta seinaleztapen optikoa. Arau orokorrak eta kasu bereziak.<br>- Galibo-argia. Eginkizuna.<br>- Entzunezko seinaleak. Helburua.<br>- Jarraibide-liburua eta ibilgailuaren mantentze-lanak.<br>- Balazta elektrikoa. Motak, erabilera eta helburua.<br>- Laino-argiak. Aurrekoa eta atzekoa.<br>- Larrialdietako argiak. Erabilera.<br>- Lehentasunezko ibilgailuen edo ibilgailu berezien seinaleztapen optikorako eta akustikorako gailuak.<br>- Besteak eta besteek ikustearen garrantzia.<br>- Eserlekua eta bolantea doitzeko metodoak.<br>- Seinale akustikoak. |
| | |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 4. IBILGAILUA GIDATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Ibilgailuaren eskuliburu teknikoa interpretatzea, ibilgailua martxan jartzeko.<br>- Gidatzen hasi aurreko egiaztapenak.<br>- Ibilgailua martxan jartzeko martxa egokia hautatzea.<br>- Ibilgailua martxan pixkanaka jartzea.<br>- Joan-etorrian adierazleak eta ohar-argiak kontrolatzea: ekipoak eta sistema lagungarriak.<br>- Zerbitzuko balaztaren eta balazta elektrikoaren erabilera.<br>- Inguruko espazioa behatzea, aurrea hartzea eta menderatzea, gidatu bitartean.<br>- Bide mota guztietan gidatzea, trafikoaren ezaugarriak kontuan hartuta.<br>- Ibilgailua ibilgetzea: motorra gelditzea, esku-frenoa, topeak.<br>- Ibilgailua ibilgetzea larrialdietan.<br>- Martxan jartzea aldapan, zamarekin eta gabe.<br>- Martxa normalean gidatzea: erreiak erabiltzea eta trafiko geldoa.<br>- Euripean eta kondizio meteorologiko txarretan gidatzea.<br>- Ibilgailuaren sistema pneumatikoaren jario posibleak identifikatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuaren eskuliburu teknikoa. Motorra martxan jartzea.<br>- Gidatzen hasi aurreko egiaztapenen garrantzia.<br>- Prebentzio-faktoreak zirkulazioan: inguruko espazioa behatzea, hari aurrea hartzea eta hura menderatzea. Ziurgabetasun-tartea.<br>- Bidearen beste erabiltzaileen jokabideak eragindako gorabeherak. Arrisku espezifikoak.<br>- Martxa normala, erreiak erabiltzea.<br>- Jokabide arduragabeak. Portaera-jarraibideak. Kortesiazko eta elkartasunezko jarrerak. Arrisku espezifikoak.<br>- Aginte-koadroa. Kontrolerako ohar-argiak. Zirkulazioan.<br>- Abiadura-kaxak, eskuzkoak eta automatikoak.<br>- Kate zinematikoa.<br>- Ibilgailuaren sistema pneumatikoa.<br>- Artaziarena ez egiteko prebentzio-neurriak.<br>- Ibilgailua ibilgetzeko protokoloa: neurriak, motorra gelditzea, esku-frenoa, topeak.<br>- Larrialdi-egoeretan ibilgetzea.<br>- Galdaratxoetako aire-karga kontrolatzea, manometroa erabilita. |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 5. MANIOBRAK EGITEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Zamalanetarako kai batera hurbiltzea.<br>- Noranzko-aldaketa egitea.<br>- Kakotzeko eta askatzeko eragiketak egitea.<br>- Zona estuetan maniobrak egitea.<br>- Pabilioietan sartu-irtenak egitea: atzerako martxa.<br>- Bidegurutzeetan, biribilguneetan eta trenbide-pasaguneetan gidatzea.<br>- Luzetara aparkatzea.<br>- Aurreratzeak egitea.<br>- Norabide-aldaketak egitea.<br>- Beste erabiltzaile batzuei aurreratzeko maniobra erraztea.<br>- Ibilgailua ibilgetzea. |
| kontzeptuzkoak | - Zamalanetarako kai batera hurbiltzeko prozesua.<br>- Maniobra. Kontzeptua.<br>- Maniobrak egiteko arau orokorrak.<br>- Zirkulazio-maniobrak.<br>- Maniobra baten faseak. Behaketa, seinaleztapena eta gauzatzea.<br>- Trenbide-pasaguneak eta zubi altxagarriak.<br>- Geratzea, gelditzea eta aparkatzea. Kontzeptuak.<br>- Bidegurutzeetan eta biribilguneetan gidatzeko arauak. Kontzeptuak.<br>- Maniobrei loturiko trafikoko arau-hausteak.<br>- Ibilgetzeko kasu bereziak.<br>- Maniobra baten faseak. Behaketa, seinaleztapena eta gauzatzea.<br>- Atzerako martxa. Prozesuak: behatzea eta gauzatzea. Debekuak.<br>- Bidegurutzeak: hurbilketa, sarrera-posizioa eta igarotzea.<br>- Ibilgailu artikulatuak kakotzea eta askatzea. |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulua ematen hasteko 1. multzoko edukiei heltzea proposatzen dugu. Bide publikoen ezaugarriak ikasiko dituzte horretan.

Ondoren, uste dugu komeni dela 2. multzoarekin jarraitzea; multzo horretan zirkulazio-seinaleak interpretatuko dituzte. Bide-sarea osatzen duten bideak argi eta garbi azaltzea garrantzitsua da, 2. multzoan informazioa osatu ahal izateko horien erabilera arautzen duten seinaleak azalduz.

3. multzoak garraio-ibilgailuen aginteak zehazten ditu. 4. eta 5. multzoetarako oinarria izango da multzo hori. Eduki horiek ongi ezagutzeak hurrengo eduki-multzoekiko lotura lagunduko du.

Gidatzeari buruzkoak dira hurrengo biak, 4. eta 5. multzoak. Proposamena 4. multzoarekin hastea da, ezaugarri horietako ibilgailu bat gidatzeko oinarrizko ezagutza

ikasita, eta 5. multzoarekin amaitzea; azken hori maniobrei zein horiek egiteko orduan bete beharreko araudiari buruzkoa da.

## 2) Alderdi metodologikoak

Lehenengo bi multzoek helburu hau dute: ikasleek bide motak eta seinaleen bidezko arautzea uler ditzaten. Garrantzitsua da eduki horiek ongi bereganatzea, zirkulazioaren oinarria baitira. Errepideak eta arautzen dituzten arauak ongi jakiteak zuzenean eragingo du garraioaren eraginkortasunean, segurtasunean zein ekonomian (bideak behar bezala erabilita).

Prestakuntza teoriko hutsaz gain, beharrezkoa da zirkulazioko ikasleek seinaleak ere behar bezala jakitea, bereziki salgai-garraiorako ibilgailuei dagozkienak.

Gidatzea ikasteko orduan ohiko errore bat izaten da hainbat urrats egin gabe aurrera egitea; hau da, alderdi garrantzitsu batzuetan ez sakontzea. Gidatze-modu eraginkorra eta segurua egiteko ongi-ongi jakin behar dira ibilgailuaren aginte eta tresna guztiak, baita horiek nola eta noiz erabili ere. Helburu hori lortzeko ikaslea jarri beharra dago egiaz gidatzeko orduan topa ditzakeen egoera guztietan, eta jakin behar du ibilgailuaren elementu bakoitza nola eta noiz erabili. Garrantzitsua da oso kontzeptu horiek ongi finkatuta gelditzea.

Ibilgailua gidatzea da moduluaren atalik garrantzitsuena. Emaitza onak lortzeko, garrantzi berezia eman behar zaie praktikei, eta era horretako lanen eguneroko egoeretan jarri behar dugu ikaslea.

Maniobrak nabarmendu behar ditugu bereziki, ikasleek konpetentzia hori lortzeko behar bezalako trebetasuna gara dezaten.

Izugarri garrantzitsua da ikasleek trebetasuna har dezaten atzerako martxaren maniobra egiten, bereziki ibilgailu artikulatuekin. Zamalanetarako kaietara hurbiltzeko eta pabiloietan sartzeko simulazioak dira maniobrarik eraginkorrenak.

Ikasleek ezagutu behar dituzte errepidean gidatzeak dituen arriskuak. Gidatzean prebentzio-jarrera izan dezaten irakatsi behar diegu, alferrikako arriskuak saihesteko. Helburu hori lortzeko, ikasleek, lehenik eta behin, ibilgailua gidatzea kontrolatu behar dute, zirkulazioaren berezko arriskuei aurrea hartu ahal izateko.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓Bide publikoei tankera hartzea:

- Bide motak deskribatzea abiaduren eta ezaugarrien arabera.
- Bide publikoak gerta daitezkeen egoera bereziak zehaztea.

✓Seinaleak interpretatzea:

- Herri Lanetako eta Hirigintzako Ministerioaren katalogoan argitaratutako zirkulazio-seinaleak erakustea.
- Seinaleak identifikatzea xedearen, debekuaren, ohartarazpenaren, betebeharraren eta informazioaren arabera.
- Seinaleak hierarkizatzea lehentasunaren arabera.

✓Ibilgailuaren sistemak eta aginteak identifikatzea:

- Ibilgailua eta agintean behar bezala ezagutzea jarraibideei jarraituta.
- Instrumentu-taulako adierazleak interpretatzea.
- Argitze-sistema. Erabiltzen jakitea.
- Balazta elektrikoen sistema ezagutzea.

✓Ibilgailua gidatzea:

- Ibilgailua martxan jarri abian aurretiko egiaztapenak deskribatzea.
- Martxari ekitea hainbat egoeratan (goranzko, beheranzko malda).
- Ibilgailua zamarekin eta zamarik gabe gidatzea.
- Gidatze-modu segurua, ekonomikoa eta prebentiboa.

✓Maniobrak egitea:

- Maniobra guztiak eta horiek arautzen dituzten arauak deskribatzea.
- Maniobra baten faseak identifikatzea.
- Bidegurutzeetan eta biribilguneetan gidatzeko arauak.
- Atzerako martxa erabiltzea dakarten maniobrak egitea.
- Kakotzeko eta askatzeko maniobra ongi jakitea.

# 2. lanbide-modulua
# GIDATZE SEGURUA ETA ZENTZUZKOA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Gidatze segurua eta zentzuzkoa** |
| Kodea: | 1205 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 210 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.<br>UC1466_2: Taxiak, autoak edo furgonetak gidatzea, hala nola zerbitzua emateari loturiko eragiketak gauzatzea. |
| Helburu orokorrak: | 4 / 5 / 6 / 7 / 11 / 17 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Motorraren bira kopuru egokiko esparrua hautatzen du, erabili beharreko martxak eskatutakoaren arabera, eta zehaztutako pare-, potentzia- eta kontsumo-kurbak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Parearen eta motorraren potentziaren kontzeptuak deskribatu ditu.
b) Ibilgailuaren kate zinematikoa osatzen duten elementuak identifikatu ditu.
c) Ibilgailuaren kate zinematikoa osatzen duten elementuen arteko elkarreragina deskribatu du.
d) Ibilgailuaren fabrikatzaileak emandako pare-, potentzia- eta kontsumo-kurba espezifikoak interpretatu ditu.
e) Erregai-kontsumoa kontrolatzeko mekanismoak ezagutzen ditu.
f) Motorraren biraketa-erregimenaren esparruak irudikatu ditu.
g) Kontsumo baxuko esparru optimoa identifikatu du.
h) Erregai-kontsumoaren hazkundean eragiten duten arrazoiak badakizki.
i) Erregai-kontsumoaren kurba eta abiaduraren areagotzea elkarrekin lotu ditu.
j) Abiaduraren eta motorraren bira kopuruaren arteko lotura kalkulatu du, abiadura-erlazio guztietan.

2. Ingurumen-jardunbide egokien jarraibideak aplikatzen ditu gidatzean, horiek betetzea eta hobetzea ahalbidetu dezaketen arauak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Energia aurreztearen garrantzi sozio-ekonomikoa balioetsi du.
b) Jarduera gauzatzearen ondoriozko poluzio-iturri nagusiak identifikatu ditu.
c) Erregai alternatiboek ingurumenean eragindako kalteak zenbatetsi ditu.
d) Gidatzeko estiloa $CO_2$-isurietan duen eraginarekin lotu du.
e) Ingurumena hobetzeko neurriak deskribatu ditu.
f) Sortutako hondakinak bereizi eta sailkatu ditu, xedatutako arauen arabera.

3. Ibilgailua gerarazteko eta balaztatzeko sistemak erabiltzen ditu, batera erabiltzearen abantailak eta, huts eginez gero, jarduteko metodoak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilgailua balaztatzeko prozesuan parte hartzen duten printzipio fisikoak deskribatu ditu.
b) Ibilgailuaren bideko mugimendua oztopatzen duten faktore fisikoen eragina argitu du.
c) Balaztatzearekin elkarreragiten duten doitze- eta segurtasun-sistemak deskribatu ditu, horietako bakoitzaren jarduteko modua adierazita.
d) Balaztek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.
e) Ibilgailua gerarazteko eta balaztatzeko sistemak deskribatu ditu, batera erabiltzean elkarri zein eratara eragiten dioten adierazita.
f) Balazta-sistema hobeto kontserbatzea dakarten gerarazteko eta balaztatzeko teknikak aplikatu ditu.
g) Balaztatzeko eta gerarazteko teknikak aplikatu ditu zamalanetan.
h) Ibilgailua balaztatzeko eta gerarazteko sistemen eraginkortasuna egiaztatu du.

4. Gidatu bitarteko segurtasuna areagotzen duten jokabideak izaten ditu, pertsonaren jarrerak, gaitasunak eta jarduerak balizko arriskuak murriztearekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidatzeko jardueraren esparruko segurtasuna zertan datzan interpretatu du.
b) Badaki zer faktore psikofisikok aldatzen duten gidariaren jokabidea eta eragiten dioten gidatzean.
c) Trafiko-istripu baten ondorioak aipatu ditu.
d) Jarduteko protokoloak aplikatu ditu lasai eta arretaz.
e) Istripu/gorabehera baten aurrean jarduteko prozeduraren simulakroa gauzatu du.
f) Adiskidetasunezko istripu-adierazpena bete du.
g) Ibilgailutik ateratzeko jardun-protokoloa aplikatu du.
h) Sute kontrolatu txikia itzali du.
i) Ibilgailuak balaztatze normalean eta larrialdikoan zein portaera duen desberdindu du.
j) Larrialdiko balaztatzearen prozedura simulatu du.

5. Zentzuz eta segurtasunez gidatzen du ibilgailua, gidatzean eragiten duten faktoreak kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Badakizki zentzuz gidatzeak duen eragin sozio-ekonomikoaren nondik norakoak.
b) Segurtasunez eta eraginkortasunez gidatzea lortzeko faktoreak identifikatu ditu.
c) Badaki zer funtsezko parametrok eragiten dioten ibilgailuaren egonkortasunari, martxaren arabera.
d) Eraginkortasunez gidatzeko teknikak aplikatu ditu, bide mota kontuan hartuta.
e) Badaki gidatu bitartean segurtasun-sistemekin zein eratara jardun behar den, izan litezkeen arriskuen gainean zer eragin duten adierazita.
f) Ibilgailua zentzuz gidatzeko teknikak aplikatuta ibili da.
g) Prebentziozko eta aurrea hartzeko jarreraz gidatu du.

h) Segurtasun-neurriak beteta gidatu du.

6. Tanga-ibilgailuak gidatzen ditu, prebentzio- eta segurtasun-irizpideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Tanga motak ezagutzen ditu, zamaren nolakotasunaren arabera.
b) Badaki tanga-ibilgailuak gidatzeak eta horien portaerak zer arrisku dakarten.
c) Tangan integratutako ekipo lagungarria erabili du.
d) Tangako ekipoen funtzionamendu egokia egiaztatu du erabili aurretik.
e) Gidatzeko teknikak aplikatu ditu, ibilgailuaren grabitate-zentroaren kokapena aintzat hartuta.
f) Gidatzeko teknikak aplikatu ditu, ibilgailua ez dadin irauli bihurguneetan.
g) Gidatzeko teknikak aplikatu ditu, ibilgailuak likido-fluxua doitzeko elementuak dituela edo ez dituela aintzat hartuta.
h) Segurtasun-protokoloak aplikatu ditu, tanga-ibilgailuak gidatzeko xedatutako arauen arabera.

7. Ibilgailua gidatzen du, egiaz edo simulatuta, kondizio eta egoera berezietan, prebentzio- eta segurtasun-irizpideak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Egoera berezietan gidatzeko beharrezko aurretiazko segurtasun-neurriak xehe aipatu ditu.
b) Gauez gidatzeko printzipioak eta horien helburua zerrendatu ditu.
c) Tuneletan eta gauez gidatzearen arteko aldeak adierazi ditu.
d) Gauez gidatzeko xedatutako prebentzio- eta bide-segurtasuneko irizpideak aplikatu ditu.
e) Klima-egoera guztietan zein gidatzeko teknika erabili erabaki du.
f) Euripean gidatzeko teknikak aplikatu ditu, simulatuta.
g) Ikusgarritasun gutxiko egoeran gidatzeko teknikak aplikatu ditu, simulatuta.
h) Haizetean gidatzeko teknikak aplikatu ditu, simulatuta.
i) Zoladura irristakorreko egoeran gidatzeko teknikak aplikatu ditu, simulatuta.

## c) Edukiak

| 1. MOTORRAREN BIRA KOPURUAREN BALIO TARTE OPTIMOA HAUTATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Ibilgailuaren ezaugarrien arabera, pare- eta potentzia-grafikoak interpretatzea.<br>- Kate zinematikoa osatzen duten elementuak identifikatzea eta aurkitzea.<br>- Kontsumo-kalkuluak egitea, zamarekin edo gabe gidatzearen arabera.<br>- Erregai-kontsumoan eragina duten ibilgailuaren elementuak identifikatzea.<br>- Kontsumo baxuko esparru optimoa identifikatzea.<br>- Motorraren bira kopuruaren balio-tarte optimoa hautatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuaren kate zinematikoaren funtsa eta ezaugarriak.<br>- Motor baten potentzia eta kontsumo espezifikoak, pare-kurbaren eta bira kopuruaren arabera. Erregimen motorra.<br>- Bira-kontagailua. Bira-kontagailuaren erabilera-eremu optimoa.<br>- Abiadura-kaxaren erabilera-ezaugarriak. Abiadura-kaxaren erlazioen estaldura-diagramak.<br>- Kontsumoan gehien eragiten duten aldagaiak. Motor baten kontsumo espezifikoa.<br>- Kontsumoa aldatzen duten ibilgailuaren elementuak. |

| | |
|---|---|
| | - Kontsumoa aztertzea eta kontrolatzea. Emari-neurgailua.<br>- Pare motorra eta potentzia. Pare- eta potentzia-kurbak.<br>- Ibilgailuaren mantentze-lanak. Erregai-kontsumoa handitzea eragozten duten aldian behingo azterketak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## 2. INGURUMENEKO JARDUNBIDE EGOKIAK APLIKATZEA GIDATU BITARTEAN

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Kutsadura-iturri nagusiak identifikatzea.<br>- Sortutako hondakinak sailkatzea. Eramatea eta kontrolatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gidatzea eta ingurumena.<br>- Gas-isurien gaineko arauak (Europar Batasuna).<br>- Ibilgailu moten sailkapena (homologazioak).<br>- Ingurumena eta poluzioa.<br>- Erregaiak. Sailkapena.<br>- Kutsadura akustikoa. Zarata aerodinamikoa, motorraren zarata, ibilgailuaren ibilera-zarata.<br>- Ingurumena hobetzeko jarduerak, gidatu bitartean.<br>- Gidatze ekonomiko/zentzuzkoaren abantaila ekonomikoak:<br>    • Enpresa.<br>    • Ingurumena.<br>    • Gidaria.<br>    • Bidaiariak.<br>- Ibilgailua poluzio-iturri gisa. Pneumatikoak, olioak, hozgarriak, likido hidraulikoak.<br>- Sortutako hondakinekin izan beharreko jokabidea. Eramatea eta kontrolatzea.<br>- Energia-kontsumoa eta ingurumena.<br>- Motorren sailkapena, Europako arauen arabera.<br>- CO2 isuriak. Kontzeptua. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## 3. BALAZTA ARRUNTAK ETA BALAZTA ELEKTRIKOA BATERA ERABILTZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Balazta elektrikoa erabiltzea.<br>- Balazta elektrikoa eta balazta arruntak batera erabiltzea.<br>- Balaztek ongi funtzionatzen dutela egiaztatzea.<br>- ABSa zoru irristakorrean eraginkorra dela egiaztatzea.<br>- Balaztatzeko eta gerarazteko teknikak aplikatzea zamalanetan. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Energiaren kontserbazioaren printzipio fisikoa. Kontzeptua.<br>- Energia zinetikoaren definizioa. |

| | |
|---|---|
| | - Aitzina egitearekiko erresistentziaren printzipioa.<br>- Marruskadurarekiko erresistentziaren printzipioa.<br>- Energia zinetikoa marruskadurako lan bihurtzea. Balaztatze-arrastoa.<br>- Ibilgailuak aitzina egitean eragiten duten faktoreak: ibilgailuaren pisua, pneumatikoaren egoera, pneumatikoaren presioa, zoladura, etab.<br>- Gerarazteko eta balaztatzeko sistemen ezaugarriak eta erabilera.<br>- Balazta elektriko motak.<br>- Esku-frenoaren eta balazta elektrikoaren arteko elkarreragina.<br>- Balaztak erabiltzea, zamarekin eta gabe.<br>- Segurtasun-sistema interaktiboen funtzionamendu-ezaugarriak eta erabilera:<br>• Balaztak ez blokeatzeko sistema (ABS).<br>• Trakzio-kontrola (ASR_EDS).<br>• Balaztatzearen doikuntza elektronikoa (EBS).<br>• Egonkortasun-kontrola (ESP).<br>- Abiadura eta balaztatzea doitzeko sistemak.<br>- *Fadinga*.<br>- Balazta elektrikoaren eragina artazi-efektuan.<br>- Larrialdiko balaztatzea. Jardun-teknikak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| **4. GIDATZE JARDUERAKO SEGURTASUNA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Su-itzalgailua erabiltzea suteetan.<br>- Ibilgailua ibilgetzea eta seinaleztatzea larrialdi baten aurrean.<br>- Istripua izanez gero jarraitu beharreko jardunbidearen simulazioa.<br>- Ibilgailutik ateratzearen simulazioa.<br>- Adiskidetasunezko partea betetzea.<br>- Larrialdiko balaztatzea simulatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Segurtasunaren kontzeptua: bitartekoak, neurriak, arauak, jarduerak.<br>- Gidatzea: erabakiak hartzea.<br>- Segurtasunez gidatzeko jarrerak eta gaitasunak.<br>- Psikologia eta giza faktorea: nortasuna, jarrerak eta faktore sozialak.<br>- Gidariaren egoera fisikoa: portaeran eragina duten faktoreak.<br>- Elikadura osasungarri eta orekatuaren garrantzia.<br>- Printzipio ergonomikoak: mugimendu eta jarrera arriskutsuak.<br>- Gidatzeko jarrera segurua.<br>- Jarduera/atsedena zikloaren funtsezko betekizuna.<br>- Erasoaldia. Jarduera.<br>- Trafiko-istripuak: motak, garrantzia eta estatistikak.<br>- Larrialdi-egoerak:<br>• Trafiko-istripuetan izan beharreko jokabidea.<br>• Egoeraren ebaluazioa.<br>• Istripuen larritasuna prebenitzea.<br>• Sorospen-zerbitzuei deitzea.<br>- Adiskidetasunezko istripu-adierazpenaren oinarrizko printzipioak.<br>- Ibilgailua hustea: kamioi edo auto bateko bidaiariak ateratzea.<br>- Sua. Nola jokatu suteetan.<br>- Su motak eta itzaltzeko metodoak.<br>- Balaztak huts eginez gero hartu beharreko neurriak. |

| | |
|---|---|
| | - Balaztatzea kondizio normaletan eta larrialdi-kasuan. Zamak balaztatzean duen eragina. Larrialdiko balaztatzea.<br>- Adiskidetasunezko istripu-partea.<br>- Ibilgailua seinaleztatzea larrialdi batean.<br>- Trafiko-istripuen gizarte-kostua.<br>- Alkohola eta gidatzea.<br>- Drogak eta gidatzea.<br>- Farmakoak eta gidatzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 5. GIDATZE SEGURUA ETA ZENTZUZKOA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ibilgailua gidatzea, eraginkortasunez gidatzeko oinarrizko teknikak aplikatuta.<br>- Ibilgailua gidatzea, prebentzioz gidatzeko oinarrizko teknikak aplikatuta.<br>- Ibilgailua zentzuz eta segurtasunez gidatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Energia-galerak kate zinematikoan.<br>- Ibilgailuaren aitzinamenduan eragina duten erresistentziak.<br>- Ibilgailuaren kontsumoan eragina duten elementu aerodinamikoak.<br>- Zentzuz gidatzearen hastapenak, segurtasun-arauetan eta energia-eraginkortasunean oinarrituta.<br>- Eragina duten kanpo-faktoreak.<br>- Ibilgailuaren mugimenduan aplikatzen diren indarren deskribapena eta eragina. Ibilgailuaren egonkortasuna eta grabitate-zentroa.<br>- Ibilgailuko masen transferentzia.<br>- Zamarekin gidatzea.<br>- Abiadura eta transmisio-erlazio uztarketa onena hautatzeko metodoak.<br>- Abiadura-kaxa ibilgailuaren zamaren eta errepidearen profilaren arabera erabiltzea.<br>- Ibilgailuaren inertzia aprobetxatzea.<br>- Eraginkor gidatzeko teknikak.<br>- Prebentzio gidatzea.<br>- Segurtasun, aktiboko, pasiboko eta prebentiboko sistemak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 6. TANGA IBILGAILUAK ETA TANGA EDUKIONTZIEKIN GIDATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Tanga-ibilgailuen zamalanak egitea (lur-hargunea eta zamalanetarako segurtasun-neurriak).<br>- Tangako ekipoen funtzionamendu egokia egiaztatzea erabili aurretik.<br>- Tanga-ibilgailuak gidatzea, tangan ur-bolumen desberdina eramanda. |

| | |
|---|---|
| | - Tangako ekipo lagungarria erabiltzea.<br>- Segurtasun-protokoloak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Garraio-unitateak. Tangak eta tanga-edukiontziak. Motak.<br>- Zamaren eragina eta zamaren mugimenduak, tanga-ibilgailuak gidatzean.<br>- Tanga-ibilgailuen bidez garraiatzea.<br>- Olatu efektua. Euste-itxiturak.<br>- Tanga-ibilgailuen eta tanga-edukiontzien portaera ibilgailua martxan dela.<br>- Tanga-ibilgailuak eta tanga-edukiontziekin gidatzeko teknikak.<br>- Tangaren ekipoa.<br>- Tangen ekipo lagungarriak.<br>- Tanga garbitzea.<br>- Material arriskutsuak garraiatzean eduki beharreko itzaltze-ekipoak.<br>- Material arriskutsuak tanga bidez garraiatzeko ibilbideak.<br>- Material arriskutsuak garraiatzeko tangak aparkatzeko arauak.<br>- Tangako edukia isuriz gero jarduteko neurriak.<br>- Gidatzeko teknikak, ibilgailuak likido-fluxua doitzeko elementuak dituen edo ez dituen aintzat hartuta: olatu-horma. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## 7. IBILGAILUA GIDATZEA EGOERA BEREZIETAN

| | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gidatzeko teknikak aplikatzea, egoera simulatu hauetan:<br>• Euritan gidatzea.<br>• Elurretan gidatzea.<br>• Gauez gidatzea.<br>• Laino artean gidatzea.<br>• Haizetean gidatzea.<br>• Derrapatze-kontrola. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Egoera berezietan gidatzea.<br>- Gauez gidatzea. Ikusmenaren gaueko ezaugarriak.<br>- Ikusgarritasunari laguntzen dioten faktoreak.<br>- Ibilgailuaren argiztapen-sistemen eta seinaleztapen optikoaren garrantzia.<br>- Tunelak.<br>- Itsutzea.<br>- Gauez gidatzean jarduteko prozesua.<br>- Halako kondizio meteorologiko jakin batzuetan segurtasunari eragiten dioten faktoreak.<br>- *Aquaplaninga*.<br>- *Aquaplaningean* eragiten duten parametroak.<br>- Euritan gidatzea. Itsaspena hobetzeko eta ez irristatzeko gidariak hartu beharreko neurriak.<br>- Lainoa. Arriskuak. Gidatzeko arauak.<br>- Zoru irristakorrean gidatzeko teknikak. Hartu beharreko arreta-neurriak.<br>- Haizea dabilela gidatzeko teknikak. Alboko haizea. Hartu beharreko neurriak. |

| | |
|---|---|
| | - Izotzetan edo elurretan gidatzea.<br>- Neguko gurpilak.<br>- Artazi-efektua.<br>- Azpi-biraketa.<br>- Gain-biraketa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Motorren funtzionamendua eta horiek atmosferara isurtzen duten poluzioa ikasten dituzte lehen bi multzoetan. Hauxe da garrantzitsuena: motorrak funtzionatzea eragiten duten elementuei, energia hori sortzeko erretako erregai motei eta horiek isurtzen duten poluzioari buruzko oinarrizko ezagutza izatea. Edukiak bi aldiz ematea saihestearren, *«Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak»* modulua ematen duen irakaslearekin harreman estua edukitzea proposatzen dugu. Horrela bada, modulu bakoitzean irakatsi beharreko zatia erabakiko dute, eta bestean bi moduluetan erlazionatuta dauden edukiak aipatuko dira.

Horren ostean segurtasunarekin eta gidatze-modu eraginkorrarekin zerikusia duten multzoei heltzea proposatzen dugu; hala, balazta arrunten erabilera eta horien zein balazta elektrikoen baterako erabilera landu behar dira. Balaztatze eraginkorraren garrantzia. Arrisku-egoerak saihesteko oinarria da prebentzioz gidatzea, hala gidariaren beraren akatsak nola gainontzeko erabiltzaileenak saihesteko.

Egokia da, gure urtez, ondoren 5. eta 6. multzoak ematea; horietan gidatze arrazoizkoa eta segurua ez ezik, tanga-ibilgailuak eta tanga-edukiontziekin gidatzea ikasiko dute.

Amaitzeko, 7. multzoa irakastea proposatzen dugu; multzo horren barruan ibilgailua egoera berezitan gidatzea ikasiko dute.

### 2) Alderdi metodologikoak

Atal teorikoa garrantzitsua da oso motorren funtzionamenduari, energia-kontsumoari zein sortzen eta ingurumenera isurtzen duten poluzioari buruzko oinarrizko ezagutzak finkatzeko.

Komeni da gidatzeko estilo berri bat nabarmentzea, eraginkorra eta segurua. Zirkulazioaren, istripuen eta horien inguruko gorabeheren gaineko azterketa zehatza egin behar da helburu hori lortzeko. Horrez gain, gidatzeko orduan izan litezkeen arrisku-egoeren aurrean baliabideak izan ditzaten hezi behar ditugu ikasleak.

Nolabaiteko zailtasuna du modulu honen irakaspenak. Atal praktikoan ibilgailuak eta toki egokiak behar dira ariketak egiteko.

Gidatze eraginkorra eta segurua irakasteko aski da 3.500 kg-tik gorako BGM duen salgaien garraiorako ibilgailu bat edukitzea, balazta elektrikoak dituena. Praktikak bide publikoetan, zirkuitu itxietan edo simulagailu batean egiten dira.

Gutxienez 1.500 m dituen esparru bat behar da gidatze seguruko ariketa espezifikoak egiteko (adibidez, larrialdiko balaztatzeak edo irristatzeak kontrolatzea). Beste aukera bat merkatuan aurki ditzakegun simulagailuak dira. Horrek elurretan, izotzetan, haizetean eta tanga-ibilgailuak gidatzearen arazoa konponduko luke.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓Ingurumeneko jardunbide egokiak aplikatzea gidatu bitartean:

- Kutsadura-iturri nagusiak identifikatzea.
- Sortutako hondakinak sailkatzea.

✓Gidatze segurua eta zentzuzkoa:

- Kontsumo-kalkuluak egitea, zamarekin edo gabe gidatzearen arabera.
- Motorraren bira kopuruaren balio-tarte optimoa hautatzea.
- Balazta elektrikoa eta balazta arruntak batera erabiltzea.
- Ibilgailua zentzuz eta segurtasunez gidatzea.
- Ibilgailua ibilgetzea eta seinaleztatzea larrialdi baten aurrean.

✓Tanga-ibilgailuak eta tanga-edukiontziekin gidatzea:

- Tanga-ibilgailuen zamalanak egitea (lur-hargunea eta zamalanetarako segurtasun-neurriak).
- Tangako ekipoen funtzionamendu egokia egiaztatzea erabili aurretik.
- Tanga-ibilgailuak gidatzea, tangan ur-bolumen desberdina eramanda.
- Tangako ekipo lagungarria erabiltzea.
- Segurtasun-protokoloak aplikatzea.
- Material arriskutsuak garraiatzeko tangak aparkatzeko arauak deskribatzea.
- Gidatzeko teknikak aplikatzea, egoera simulatu hauetan:
    - Euritan gidatzea.
    - Elurretan gidatzea.
    - Gauez gidatzea.
    - Laino artean gidatzea.
    - Haizetean gidatzea.
    - Derrapatze-kontrola.

# 3. lanbide-modulua
# GARRAIOAREN ARLOKO LEGEAK ETA ALDERDI EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Garraioaren arloko legeak eta alderdi ekonomikoak eta sozialak** |
| Kodea: | 1206 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 165 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Merkataritza-prozesuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 2 / 3 / 6 / 14 / 21 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Garraio orokorraren arloko legeei eta alderdi ekonomikoei eta sozialei antza hartzen die, aldagai bereizgarrienak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garraioan esku hartzen duten organismo publiko eta pribatu nagusiak identifikatu ditu.
b) Badaki organismoen eskumen- eta jarduera-esparruak zein diren.
c) Garraioa definitzen duten arau-, ekonomia- eta gizarte-parametro nagusiak identifikatu ditu.
d) Garraio moten arteko loturak azaldu ditu.
e) Errepideko garraioak bestelako garraio moten aldean dituen abantailak eta eragozpenak interpretatu ditu.
f) Salgaien eta bidaiarien garraioaren arteko desberdintasunak identifikatu ditu.
g) Errepideko garraioaren bilakaera azaldu du, arau- eta merkatu-aldaketen arabera.

2. Errepideko garraioaren antolaketa definitzen du, merkatu-balioa jardueraren inguru ekonomiko eta sozialarekin erlazionatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Errepideko garraio mota bakoitzaren ezaugarriak eta funtzionalitateak xehe azaldu ditu.
b) Errepideko garraiorako zer betekizun bete behar diren azaldu du.

c) Errepideko garraio-enpresen antolaketa, espezialitatearen araberakoa, deskribatu du.
d) Errepideko garraio-enpresen oinarrizko sailen eginkizunak, espezialitatearen araberakoak, azaldu ditu.
e) Errepideko garraiorako jarduera motak, norberaren nahiz besteren konturakoak, identifikatu ditu.
f) Errepideko garraioaren eragiketa lagungarriak eta osagarriak definitu ditu.
g) Errepideko garraio modalaren eta intermodalaren ezaugarri nagusiak deskribatu ditu.

3. Errepideko garraioa antolatzeko prozedurak aplikatzen ditu, inguru juridikoa eta soziala interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Salgaien eta bidaiarien garraioari dagozkion arauak aplikatu ditu.
b) Delitugintza eta etorkin klandestinoen trafikoa saihesteko prebentzio-neurri egokiak identifikatu ditu.
c) Garraio-kontratuak eta horiei dagozkien betekizunak interpretatu ditu.
d) Errepideko garraioari lotutako aseguru motak eta aldeei dagozkien eskubideak eta betebeharrak identifikatu ditu.
e) Takografo analogikoaren eta digitalaren erabilera deskribatu ditu.
f) Gidari-txartelaren edo takografoaren diskoen erabilera azaldu du, xedatutako arauen eta prozeduraren arabera.
g) Gidariaren lanaldi espezifikoaren plangintza egin du, gehienezko iraupena, gidaldiak eta atsedenaldiak kontuan hartuta.
h) Gidariaren eskubideak eta betebeharrak identifikatu ditu, hasierako prestakuntzari eta etengabeko trebakuntzari dagokienez.

4. Errepideko garraio-jarduerari aplikagarri zaizkion arauak eta zerbitzua ematea erlazionatzen ditu, kasuan kasuan egokiena hautatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Salgaien eta bidaiarien garraiorako estatu-mailako eta nazioarteko arau espezifikoak identifikatu ditu.
b) Salgai arriskutsuen garraioari aplikagarri zaizkion xedapenak interpretatu ditu.
c) Salgai galkorren nazioarteko garraioaren eta garraioan erabilitako ibilgailu berezien gaineko akordioaren edukia deskribatu du.
d) Animalia biziak garraiatzeko arau espezifikoak deskribatu ditu.
e) Eskola-garraioari aplika dakizkiokeen arauak interpretatu ditu.
f) Arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak aplikatu ditu.
g) Salgaien nazioarteko garraioari buruzko Erkidegoko igarobide-prozedura deskribatu du.
h) Errepideko garraioaren sektorean bidaiarien eskubideak hobetzeko Europar Batasuneko neurriak identifikatu ditu.
i) Kontrolerako eta erregistrorako administrazio-agiriak hautatu ditu, baita aduanak gainditzeko behar den dokumentazioa ere.

5. Errepide bidezko garraio-zerbitzua ematean ohikoenak diren arau-hausteen ondorioak azaltzen ditu, indarrean dauden arauak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Errepide bidezko garraioaren ikuskaritzaren jarduera deskribatu du.
b) Errepide bidezko garraioaren arau-hauste motak identifikatu ditu.
c) Arau-hausteen ondoriozko administrazio-erantzukizuna identifikatu du.
d) Arau-haustea eta arauen arabera dagokion zigorra erlazionatu ditu.
e) Zigortzeko ahalmena gauzatzeko prozeduraren erregelamendua interpretatu du.
f) Ohore-betekizunaren galera dakarten zigorrak identifikatu ditu.
g) Gidaldian eta atsedenaldian jarduteko administrazioak xedatutako irizpideak interpretatu ditu.
h) Errepideko garraioaren sektorean Europako Batzordeak argitaratutako xedapen sozialak identifikatu ditu.
i) Arau-hausteek errepideko garraio-enpresaren jardueran izan ditzaketen ondorioak deskribatu ditu.

## c) Edukiak

| 1. GARRAIOAREN ARLOKO LEGEAK ETA ALDERDI EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK EZAUGARRITZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Garraio-jarduera arautzen duten erakundeen eskumenak identifikatzea.<br>- Garraio-sektorea zehazten duten ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-aldagaiak aztertzea.<br>- Trenbidearen eta errepidearen prestazioen ezaugarriak deskribatzea.<br>- Errepideko garraioak bestelako garraio moten aldean dituen abantailak eta eragozpenak identifikatzea.<br>- Salgaien eta bidaiarien garraioaren arteko desberdintasunak deskribatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Garraioarekin elkarreragiten duten erakunde publiko eta pribatuak.<br>- Erakundeen eskumen- eta jarduera-esparruak.<br>- Garraioaren gaineko Europa mailako eta estatu-mailako politikak.<br>- Lurreko Garraioa Antolatzeko Legea.<br>- Lurreko Garraioa Antolatzeko Erregelamendua.<br>- Garraio-jarduera arautzen duten erakundeak.<br>- Garraio motak eta horien arteko lotura.<br>- Sektorearen bilakaera: arau-aldaketak eta merkatu-aldaketak.<br>- Trenbideen eta errepideen prestazioak dibertsifikatzea. Azpikontratazioa.<br>- Salgaien eta bidaiarien errepideko garraioa, gainerako garraiobideekin alderatuta. |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 2. ERREPIDEKO GARRAIOAREN ANTOLAKETA DEFINITZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Errepideko garraio jardueran sartzeko betekizunak deskribatzea.<br>- Garraio motekin lotutako araudi profesionalak deskribatzea.<br>- Profesionalki jarduteko beharrezko administrazio-dokumentazioa identifikatzea.<br>- Garraiorako eta jarduera lagungarri eta osagarrietarako baimenen |

| | |
|---|---|
| | eskabidea betetzea.<br>- Garraiorako eta jarduera lagungarri eta osagarrietarako baimenen baja eskabidea betetzea.<br>- Garraiorako baimen-lagapenaren eskabidea betetzea.<br>- Hirugarren herrialdeetako gidari-egiaztagiriaren eskabidea betetzea.<br>- Enpresako profesional gaituaren altaren/uzte-agiriaren edo uko-agiriaren eskabidea betetzea, garraio-jarduera gauzatzeari dagokionez.<br>- Garraio-eragiketa batean exijitzen den dokumentazioa jaulkitzeko eta berritzeko eskabideak betetzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Errepideko garraioa: nolakotasunaren araberako sailkapena, xedea eta esparrua.<br>- Jarduera gauzatzeko betekizun orokorrak.<br>- Salgaien eta bidaiarien estatu-mailako eta nazioarteko garraio-lanbidean eta -merkatuan sartzea.<br>- Salgaien eta bidaiarien garraio-enpresa mota nagusiak eta garraioaren jarduera lagungarriak eta osagarriak antolatzea.<br>- Norberaren eta besteren konturako errepideko garraioko jarduerak.<br>- Salgaiak errepidez garraiatzeko espezializazioak.<br>- Salgaien garraioa, oro har. Salgai arriskutsuak. Salgai galkorrak. Animalia biziak. Banaketa eta paketeria.<br>- Hondakinen garraioa. Etxe-aldaketako garraioak.<br>- Bidaiariak errepidez garraiatzeko espezializazioak. Garraio erregularra, diskrezionala, eskolakoa, turistikoa eta hiletakoa.<br>- Errepideko garraioaren jarduera lagungarriak eta osagarriak. Garraio-agentziak, garraio-bitartekariak, biltegizainak eta banatzaileak eta salgaien garraiorako geltokiak.<br>- Bidaia-agentziak, bidaiarien garraiorako geltokiak eta gidari gabeko ibilgailuak alokatzea.<br>- Garraio multimodala. Garraio konbinatua. Modu askoko garraio-eragiketak.<br>- Intermodalitatea: itsas-lehorrekoa, errepide-trenbidekoa, garraio lagundukoa eta lagundu gabekoa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 3. ERREPIDEKO GARRAIOAREN ANTOLAKETA PROZEDURAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Garraio-agiriaren atalak identifikatzea.<br>- Garraio-agiriak egiaztatzea.<br>- Dagozkion laukitxoetan kasuan kasuko oharrak eta baldintzak betetzea.<br>- Arbitraje-batzordeen aurreko erreklamazioak betetzea.<br>- Aseguru-poliza motak aztertzea.<br>- Istripu bat jakinarazteko xedatutako prozedura aplikatzea.<br>- Istripurik izanez gero eskatutako dokumentazioa duen txostena osatzea.<br>- Istripu-partea aztertzea eta betetzea.<br>- Istripurik izanez gero jarduteko prozedurak ezartzea, baita istripuak berriz ez gertatzeko prozedura egokiak ezartzea ere.<br>- Norberaren edo hirugarrenen istripuetan jarduteko jarraibideak simulatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Gidarien hasierako kualifikazioaren eta etengabeko prestakuntzaren alorrean aplikatzekoak diren arauak deskribatzea.<br>- Segurtasun-arauak betetzeari dagozkion aginduak interpretatzea.<br>- Gidariaren lanaldiaren plangintza egitea, indarrean dauden legeen arabera.<br>- Gidaldiaren, atsedenaldiaren eta lanaldiaren gaineko lan-legeak eta horiek betetzearen garrantzia aztertzea.<br>- Takografoa erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Salgaien eta bidaiarien garraioari dagokion araudia.<br>- Delitugintza eta etorkin klandestinoen trafikoa prebenitzea.<br>- Kontratu-ereduak eta motak. Kontzeptua eta motak. Aldeen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizuna.<br>- Lehorreko garraio-kontratua. Ezaugarriak. Funtsezko elementuak, kontratua burutzea eta probatzea, ez betetzea.<br>- Administrazioak onartutako kontratazio-baldintza orokorrak. Salgaien lehorreko garraioko kontratuaren legea.<br>- Garraio-agiria. Billetea eta kontratuko beste agiri batzuk.<br>- Garraiolarien arteko lankidetza eta horren mugak. Lankidetzarako baldintzak.<br>- Garraio-kontratuaren ondoriozko erreklamazioak eta preskripzio-epea.<br>- Lehorreko garraioko Arbitraje-batzordeak: Arbitraje-batzordeen eskumenak, arbitrajeko laudoa.<br>- Salgaien errepideko nazioarteko garraio-kontratuari buruzko hitzarmena (CMR). Aplikazio-esparrua. Nazioarteko garraio-agiria.<br>- Garraioa gauzatzen duen gidariari eskatzen zaizkion baimenak eta prestakuntza: gidabaimena, mediku-ziurtagiriak, gaitasun ziurtagiria, gidariaren ziurtagiria, baimen berezia, etab.<br>- Aseguru-kontratua: funtsezko ezaugarriak. Elementuak.<br>- Aseguru motak. Motordun ibilgailuak erabiltzearen eta zirkulatzearen ondorioz sortutako erantzukizun zibilaren asegurua.<br>- Salgaien garraioko asegurua. Aldeen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak. Estalitako arriskuak. Aseguru-poliza. Poliza flotatzailea.<br>- Bidaiarien derrigorrezko asegurua. Estalitako arriskuak, estalitako istripuak eta prestazioak.<br>- Garraio-hitzarmenak. Aplikazio-esparrua.<br>- Takografoa: erabilera.<br>- Garraio-sektoreko berezko lanaldiaren gehienezko iraupena.<br>- 3821/85 CEE eta 561/2006 CE Erregelamenduak: printzipioak, aplikazioa eta ondorioak.<br>- Errepideko garraioaren sektoreko xedapen sozialak. Gidaldian eta atsedenaldian jarduteko irizpideak.<br>- Gidariaren eskubideak eta betebeharrak, hasierako prestakuntzan eta etengabeko trebakuntzan. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## 4. SALGAIEN ETA BIDAIARIEN ERREPIDEKO GARRAIOARI APLIKAGARRI ZAIZKION ARAUAK DESKRIBATZEA

| | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - ADR garraio-agirian aitortutako zama eta idatzizko jarraibideak edo segurtasun-fitxa bat datozela egiaztatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Arrisku-panelak eta garraiatu beharreko zama bat datozela egiaztatzea.<br>- Ibilgailuan ibilgailuko koadernoa edo bide-orria eta gidariaren eta/edo zaintzailearen gaitasun-ziurtagiriak daudela egiaztatzea.<br>- ADR garraio-agirian ageri diren datuak egiaztatzea.<br>- Animalia biziak garraiatzeko beharrezkoa den ibilgailua desinfektatzeko ziurtagiriaren desinfekzio-bolantea betetzea eta dagokion lekuan sinatzea.<br>- TIR koadernoan ageri diren datuak zuzenak direla egiaztatzea.<br>- Atxikitako dokumentuak eta TIR koadernoan adierazitakoak bat datozela egiaztatu eta ziurtatzea.<br>- Bidaiarien garraioko erreklamazio-liburua aztertzea.<br>- Garraiatutako salgaiaren arabera barruan eraman beharreko dokumentazioaren inbentarioa egitea.<br>- Bidaiari-garraio motaren arabera barruan eraman beharreko dokumentazioaren inbentarioa egitea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - ADR edo zama arriskutsuen lehorreko nazioarteko garraioari buruzko Europako akordioa.<br>- ATP edo salgai galkorren nazioarteko garraioari buruzko akordioa.<br>- Animalia bizien garraioari buruzko arauak.<br>- Muga zeharkatzeari dagozkion betebeharrak. TIR koadernoa. Elkarte bermatzailea (ASTIC).<br>- Gidariari, ibilgailuari eta zerbitzuari buruzko dokumentazioa.<br>- Salgaiarekin lotutako dokumentuak.<br>- Bidaiarien garraioa: ikasleak eta adingabeak, langileak eta turistak.<br>- Autobus- eta autokar-bidaiarien eskubideei buruzko 181/2011 (UE) Erregelamendua.<br>- Bidaiarien eskubideak, bidaia bertan behera geratzean edo geroratzean.<br>- Kalte-ordainak eta laguntza istripu kasuetan.<br>- Desgaitasunen bat duten pertsonen eta mugikortasun murriztua duten pertsonen eskubideak.<br>- Irisgarritasuneko oinarrizko baldintzak: indarrean dauden arauak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa lan-jarduerak egitean.<br>- Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean arreta jartzea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

**5. ZERBITZUA ESKAINTZEN DEN BITARTEAN EGITEN DIREN ARAU HAUSTEEN ONDORIOAK ZEIN DIREN JAKITEA**

| | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Errepideko garraioko ikuskaritzaren funtzioak eta eskumenak aztertzea.<br>- Indarrean dagoen zigor-baremoa aztertzea.<br>- Garraioko arau-hausteengatiko administrazio-erantzukizuna nori dagokion zehaztea.<br>- Arau-hausteen sailkapena.<br>- Arau-hauste mota identifikatzea, larritasunaren eta zehapenaren arabera.<br>- Ohore-betekizunaren galera dakarten zigorrak identifikatzea.<br>- Zehapenek errepideko garraio-enpresaren jardueran izan ditzaketen |

| | |
|---|---|
| | ondorioak aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Lehorreko Garraioaren Ikuskaritza.<br>- Europako Batasuneko arauak.<br>- Errepideko Garraioko Ikuskaritza-plana.<br>- Errepideko garraioa antolatzeko arauak urratzea.<br>- Zehapen-araubidea. Takografoa ez erabiltzeagatiko, gaizki erabiltzeagatiko edo iruzurrezko manipulazioagatiko zehapenak. Erantzukizunari buruzko arau orokorrak.<br>- Badaezpadako neurriak.<br>- Dokumentazioaren kontrola.<br>- Ohore-betekizuna galtzea. Zehapenak eta epeak. Ondorioak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa lan-jarduerak egitean.<br>- Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean arreta jartzea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Errepidez salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko sektorearekin lotutako araudia hautatzeko eta aplikatzeko eginkizunerako beharrezko den prestakuntza ematen du lanbide-modulu honek.

Errepidez salgaiak eta bidaiariak garraiatzeko sektorearen araudia hautatzeko eta aplikatzeko eginkizunak honako alderdi hauek hartzen ditu barnean:

- Errepide bidezko garraioaren lanbide-arloa egituratzen duen ingurune ekonomikoa zehaztea.
- Garraioa egiteko gaitzen duten tituluak definitzea.
- Estatu-mailako eta nazioarteko garraio-baimenak identifikatzea.
- Salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko araudia aplikatzea.
- Errepide bidezko garraioaren alderdi soziala interpretatzea.
- Garraio-zerbitzuak egiteko behar den dokumentazioa kontrolatzea eta betetzea.
- Erkidegoko zirkulaziorako prozedurak eta egiaztapenak identifikatzea.
- Lurreko garraioa antolatzeko araudiaren arau-hausteak eta horiei dagozkien zehapenak identifikatzea.

Autobusen, errepide bidezko salgaien garraiorako ibilgailu astunen eta auto eta furgoneten gidatze profesionalean aplikatzen dira eginkizun horiei lotutako lanbide-jarduerak.

Proposatutako ibilbide didaktikoak 4 fase ditu, eta ondoz ondo hel dakieke horiei:

Lehenengo fasea: «Garraioaren sektorea: Garraio motak. Antolamendua eta egitura». Asmoa da lurreko garraioaren sektorearen garrantzi ekonomikoa eta soziala agertzea, baita bertan jarduten eta eragiten duten agenteak ere.

Bigarren fasea: «Errepide bidezko salgaien eta bidaiarien garraio-eragiketak arautzeko araudia». Xedea, batetik, enpresari berari, ibilgailuei eta gidariei eskatutako betekizunak betetzen dituzten egiaztatzea da, eta bestetik, beharrezko agirien izapideak kudeatzea:

- Garraioa egiteko gaitzen duten tituluak edo ziurtagiriak.
- Garraio-eragiketetarako beharrezko baimenak.
- Salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren arloko araudia aplikatzea.

Hirugarren fasea: «Errepide bidezko salgaien eta bidaiarien garraio-eragiketen dokumentazioa kudeatzea».

- Garraio-zerbitzuak egiteko beharrezko dokumentazioa kontrolatzea eta betetzea:
  - Gidariei eta ibilgailuei buruzko dokumentazioa.
  - Kargari buruzko dokumentazioa.
  - Aseguruei eta istripuei buruzko dokumentazioa.
  - Erkidegoko zirkulaziorako prozedurak eta egiaztapenak.

Laugarren fasea: «Garraio-arloko ikuskatzeko prozedura eta zehatzeko erregimena». Ikuskatzeko prozedura eta zehatzeko erregimena aztertu ondoren, zerbitzua ematean egindako arau-hausteen ondorioak nabarmentzea da xedea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Lehen multzoko lehen unitateak («Garraioaren sektorea: Garraio motak. Antolamendua eta egitura») sarrera modukoak dira, horiei esker garraio-sektorean trebatu egingo dira ikasleak eta, aldi berean, garraioaren eta bere moduen deskribapena eta hurbiltze orokorra ere jasoko dituzte.

Ikasteko jarduera bakoitzaren hasieran komeni da indarreko legedia begiratzea, salgaien eta bidaiarien garraioaz hitz egitean funtsezkoa baita arautzen duen araudi zabala kontuan hartzea.

Unitate didaktikoak garatzeko orduan prozedurazko egitura ematea gomendatzen da, ikasleak esku hartzera bultzatzen dituzten metodoak zein kasu praktikoak erabiliz; horrez gain, kasuek zailtasun handiagoa duten eta ikasleen autonomia handiagoa eskatzen duten neurrian, handitu eta sartu egingo dira unitate didaktikoaren helburua erdiesteko behar diren kontzeptuzko eta prozedurazko edukiak.

Erakundeen webguneetan eskuragarri dauden tresnak erabiltzea komeni da:

- Europari dagokionez: EUROPA > Síntesis de la legislación de la UE > Transportes > Transportes por carretera:
  http://europa.eu/legislation_summaries/transport/road_transport/index_es.htm
- Estatuari dagokionez: Ministerio de Fomento > Transporte terrestre:
  http://www.fomento.gob.es/MFOM/LANG_CASTELLANO/DIRECCIONES_GENERALES/TRANSPORTE_TERRESTRE/
  Autonomia Erkidegoari dagokienez: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila > Garraioak:
  http://www.garraioak.ejgv.euskadi.net/r41-10354/eu/

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Lurreko garraio-zerbitzua aztertzea.

✓ Salgaien eta bidaiarien garraioan garatu beharreko jarduerekin zerikusia duen legedia biltzea.

✓ Emandako legedia aztertzea.

- ✓ Garraio-zerbitzuaren gorabeherak aztertzea, eta horiek ebazteko prozedurak aplikatzea.

- ✓ Errepideko garraioaren antolaketa definitzea:
  - Errepideko garraio mota bakoitzaren ezaugarriak eta funtzionalitateak xehe azaltzea.
  - Errepideko garraio-enpresen oinarrizko sailen eginkizunak, espezialitatearen araberakoak, azaltzea.
  - Errepideko garraiorako jarduera motak, norberaren nahiz besteren konturakoak, identifikatzea.
  - Errepideko garraio modalaren eta intermodalaren ezaugarri nagusiak deskribatzea.

- ✓ Garraioaren arloko legeak eta alderdi ekonomikoak eta sozialak identifikatzea:
  - Garraio-jarduera arautzen duten erakundeen eskumenak identifikatzea.
  - Indarrean dagoen araudia interpretatzea.
  - Arau-hauste mota identifikatzea, larritasunaren eta zehapenaren arabera.
  - Garraio-eragiketetako beharrezko dokumentazioa prestatzea.

# 4. lanbide-modulua
# SALGAI GARRAIOKO ZERBITZUAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Salgai-garraioko zerbitzuak** |
| Kodea: | 1207 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 165 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1463_2: Garraio-zerbitzuen plangintza egitea eta bezeroekin harremanetan jartzea. |
| Helburu orokorrak: | 2 / 3 / 6 / 10 / 12 / 13 / 15 / 17 / 19 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Salgaien estatu barruko eta nazioarteko eragiketak gauzatzen ditu, zama osoko eta zatikatuko zerbitzuetan, garraioa eraginkortasuneko eta kalitatezko zerbitzuko faktoreekin eta irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Estatu barruko eta nazioarteko garraio-zerbitzuan gidariaren eginkizunak, erantzukizunak eta jardunak definitu ditu.
b) Errepideko salgaien garraio-zerbitzu mota bakoitzeko gidariari, ibilgailuari eta salgaiari loturiko beharrezko barne-dokumentazioa hautatu du.
c) Distantzia laburreko eta luzeko salgaien garraio-zerbitzuak optimizatzea dakarten aldagaien eragina definitu du.
d) Estatu barruko eta nazioarteko garraio-zerbitzua optimizatzeari loturiko hainbat kontsulta-iturritatik.
e) Salgaiak entregatzeko eta jasotzeko tokiko, estatu barruko eta nazioarteko ibilbide-proposamenak egin ditu, kasuan-kasuan eraginkorrena hautatuta.
f) Zerbitzu mota bakoitzeko dokumentazio egokia bete du eta izapidetzeko eta zaintzeko prozedurak azaldu ditu.
g) Salgaiak entregatzeko eta jasotzeko baldintza zehatzen eta gertatutako gorabeheren txostena osatu du enpresarentzat.
h) Salgaiak erreserbatzeko irizpideak eta erreklamazioak egiteko baldintzak identifikatu ditu.

2. Ibilgailuaren zamalan-eragiketak zama-planaren arabera antolatzen ditu, salgaien ezaugarriak, banaketa-ordena eta segurtasun-neurriak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Zama estibatzeko eta banatzeko teknika nagusiak azaldu ditu eta salgaiak lotzeko eta babesteko erremintak eta gailuak hautatu ditu.
b) Salgaien arrisku-etiketak eta horien ondoriozko debekuak aipatu ditu, batera garraiatzeko ezintasunari eta garraiorako eskakizun legalei dagokienez.
c) Zama lotzeko eta babesteko eta zamen artean tarte egokia uzteko modurik eraginkorrena eta bidalketa bakoitza bereizteko modua aipatu ditu, dagokionari dagokiona entregatzeko.
d) Zama estibatu, bereizi, lotu, finkatu eta babestu du, izaeraren, neurrien, pisuaren, bolumenaren eta egokitzeko moduaren arabera.
e) Ibilgailuaren zamalanetan tranpa altxagarria erabili du.
f) Gaizki estibatzearen ondorioz, ibilgailuaren ardatza gainkargatzeak, zama desorekatzeak eta ibilgailua desorekatzeak segurtasunean izan ditzakeen ondorioak identifikatu ditu.
g) Gidariak salgaien zamalan-eragiketetan hartu beharreko arreta-neurriak eta -jokabideak azaldu ditu.
h) Zamalan-eragiketetan arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko protokoloak eta neurriak aplikatu ditu.

3. Salgai arriskutsuen garraioa gauzatzeko beharrezko jarduerak gauzatzen ditu, dagozkion arauak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gidariek salgai arriskutsuak, tanga-edukiontziak eta lehergaiak garraiatzean jakin behar dituzten segurtasun-xedapenak hautatu ditu.
b) Salgai arriskutsuen garraioko arrisku mota nagusiak identifikatu ditu, segurtasun-fitxak erabilita.
c) Salgai arriskuak garraiatzen dituzten ibilgailuek istripurik izanez gero segurtasunean eta ingurumenean izan litzaketen ondorioak ebaluatu ditu.
d) Salgai arriskutsuak garraiatzen edo barnean dituzten ibilgailuak eta paketeak etiketatzeko eta seinaleztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
e) Ibilgailu edo edukiontzi berean batera kargatzeko debekuak definitu ditu.
f) Gidariak salgai arriskutsuak kargatu aurretik eta ondoren izan beharreko jokabidea azaldu du.
g) Tanga eta tanga-edukiontzi motak eta ezaugarriak deskribatu ditu.
h) Zamalan-eragiketak gauzatu ditu, norbera babesteko ekipamenduak erabilita.
i) Istripuetan izan beharreko jokabideak eta bideko larrialdiei eman beharreko irtenbideak aipatu ditu, salgai arriskutsuak garraiatuz gero.

4. Salgai galkorren garraioa egiteko beharrezko jarduerak gauzatzen ditu, salgai mota bakoitzari dagokion tenperatura-doikuntza hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Hornikuntza-katearen, hotz-katearen eta elikagaien segurtasunaren arabera kontrolatutako tenperaturan garraiatzearen garrantzia aipatu du (AKPKA sistema).
b) Salgai galkorren garraiora bideratutako ibilgailu mota identifikatu du.
c) Ibilgailuen hozteko ekipoen eta tenperatura irakurtzeko gailuen funtzionamendua azaldu ditu.
d) Garraio eta salgai motaren arabera finkatutako tenperatura kontrolatzeko gidariaren eginkizunak azaldu ditu.
e) Tenperatura kontrolatuko ibilgailuan garraiatzeko salgaien berezitasunen araberako zamatze-plana gauzatu du.

f) Ibilgailuen kontserbazio-, higiene- eta garbiketa-baldintzak azaldu ditu.
g) Garraio frigorifikoko berezko auziren bat izanez gero gidariak izan beharreko prozedura egokia azaldu du.

5. Animalia bizien garraioa gauzatzeko beharrezko jarduerak gauzatzen ditu, indarrean dauden legeek xedatutako animalien babeserako eta ongizaterako protokoloak azalduta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Animalia bizien garraio-zerbitzurako beharrezko dokumentazio-administratiboa hautatu du.
b) Animalien fisiologiari eta zaintzari buruzko oinarrizko nozioak azaldu ditu.
c) Animalien manipulaziorako eta zamalanetarako teknikak identifikatu ditu, berezitasunak balioetsita.
d) Ibilbideei, kargatzeko puntuei eta atsedenerako azpiegiturei buruzko alderdiak aipatu ditu.
e) Animaliekin jardutean dauden lan-arriskuak prebenitzeko protokoloak azaldu ditu.
f) Animalia biziekin istripurik izanez gero jarduteko modua azaldu du.
g) Garraiobideak garbitzeko eta desinfektatzeko betekizunak azaldu ditu.
h) Animalia bizien garraio-zerbitzuan eskatutako ereduzko ziurtagiriak eta inprimakiak bete ditu.

6. Ibilgailu espezializatuen eta salgaiaren berezitasunetara egokituen bidezko garraiorako beharrezko jarduerak egiten ditu, zerbitzu mota bakoitzaren ezaugarriak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ibilgailu espezializatuen bidezko aldaketa-zerbitzua gauzatzeko prozesu orokorrak azaldu ditu.
b) Ibilgailuak eramateko ibilgailuen bidezko garraio-zerbitzuko eta errepidean laguntzeko garabien gidarien eginkizun bereziak azaldu ditu.
c) Baimendutako gehienezko masa eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuen bidezko garraio-zerbitzuen erregelamendu-esparrua eta haien alderdi espezifikoak identifikatu ditu.
d) Ibilgailu egokituen edo espezializatuen bidezko hondakinen garraiorako prozesu orokorrak azaldu ditu.
e) Zamalan-eragiketetan garabi auto-kargatzaileak erabiltzea baimenduta dagoen kondizioak azaldu ditu.
f) Zamalan-eragiketak garabi auto-kargatzaileekin gauzatu ditu.
g) Jarduera horien berezko arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko protokoloak eta neurriak aplikatu ditu.

## c) Edukiak

| 1. SALGAIEN ESTATU BARRUKO ETA NAZIOARTEKO GARRAIO ERAGIKETAK EGITEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gidariaren, ibilgailuaren eta salgaiaren inguruko zer dokumentazio nahitaez eraman behar den jakitea.<br>- Nahitaez eraman beharreko ibilgailuaren dokumentazioa betetzea.<br>- Salgaiak entregatzeko eta jasotzeko ibilbideak programatzea.<br>- Salgaiak entregatzeko eta jasotzeko ibilbide-proposamenak egitea.<br>- Bidea trafikoari itxita egonez gero entregak egiteko ordezko edo larrialdiko plana prestatzea.<br>- Enpresarentzat salgaiak entregatzeko eta jasotzeko baldintza zehatzen txostenak osatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Errepideko garraio-sarearen kokapen geografikoa.<br>- Arauak ez betetzearen ondorioz zer zehapen jaso litezkeen kalkulatzea.<br>- Balizko bezero bati zuzendutako inkesta prestatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Errepide bidezko salgai-garraioko zerbitzuak antolatzeko aldagaiak.<br>- Garraio-zerbitzuak dibertsifikatzeko eta integratzeko joera.<br>- Gidariaren eginkizunak, erantzukizunak eta jarduerak salgaien errepideko garraio-zerbitzuaren hainbat egoeratan.<br>- Errepideko garraio-zerbitzua optimizatzeko aldagaiak ibilbideen plangintzan.<br>- Garraio-zerbitzuari loturiko informazio-iturriak.<br>- Paketeria-zerbitzuaren entregatzeko/jasotzeko ibilbideak osatzeko beharrezkoak diren bezeroei buruzko informazio-iturriak.<br>- Zerbitzua optimizatzeko aldagaiei buruzko informazio-tresnak.<br>- Tokiko, estatu barruko eta nazioarteko esparruko zerbitzuetan salgaiak entregatzeko eta jasotzeko ibilbideak programatzeko metodoak.<br>- Garraio-zerbitzuetan erabilitako dokumentuak.<br>- Gidariaren jarduerak auzietan eta erreklamazioei arreta ematean.<br>- Geografia fisikoa eta politikoa.<br>- Zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arauak.<br>- Garraioko arbitraje-batzordeak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 2. IBILGAILUAREN ZAMALAN ERAGIKETAK ANTOLATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Zama lotzeko eta babesteko modurik eraginkorrena zehaztea.<br>- Ibilgailuen zama eta bolumen erabilgarriak kalkulatzea.<br>- Salgaien ezaugarriak interpretatzea.<br>- Banatzeko eta deskargatzeko agindua interpretatzea.<br>- Zamaren estibatzea, banantzea, lotzea, finkatzea eta babestea egitea.<br>- Ibilgailuaren tranpa altxagarria erabiltzea zamalanetan.<br>- Zamalan-eragiketetan arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko protokoloak eta neurriak aplikatzea.<br>- Gaizki estibatzearen ondorioak aztertzea.<br>- Mantentzeko eta kargatzeko gailu motak salgaiaren arabera hautatzea (edukiontziak, paletak, eta abar). |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Salgaiak estibatzeko, kargatzeko eta deskargatzeko prozesuetan eragiten duten faktoreak:<br>• Ibilgailuen zama eta bolumen erabilgarriak kalkulatzeko metodoak.<br>• Zamaren banaketa, pisua ardatzeko eta gainkargaren ondorioak.<br>• Zamaren portaera ibilgailuan.<br>• Estibatu beharreko salgaien izaera eta salgai motak.<br>• Zamaren bilgarri eta euskarri motak.<br>- Zamalanen eta estibatzeko eta desestibatzeko prozesuak. Ekipoak |

| | |
|---|---|
| | eta teknikak:<br>• Altxatzeko eta estibatzeko teknikak.<br>• Estibatzeko uhalak erabiltzeko metodoak.<br>• Ibilgailuei toldoa jartzeko eta kentzeko eragiketak.<br>• Estiba-gailuak egiaztatzeko eragiketak.<br>• Tranpa altxagarriak.<br>• Estibatzeko teknikak zama motaren arabera.<br>- Zamalanetan jarduteko protokoloak eta segurtasun-arauak:<br>• Garraiolariaren eta gidariaren jarduera zamalan-eragiketetan.<br>• Zamalan-prozesuetako laneko arriskuen prebentzioa eta segurtasun-arauak.<br>- Salgaien arrisku-etiketak eta horien ondoriozko debekuak, batera garraiatzeko ezintasunari eta garraiorako eskakizun legalei dagokienez.<br>- Mantentzeko eta kargatzeko gailuak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea.<br>- Gorabeherak ebazteko ekimena izatea. |

| 3. SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOA GAUZATZEKO BEHARREZKO JARDUERAK GAUZATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Zamaren etiketak eta segurtasun-fitxak interpretatzea.<br>- Zaman xedatutako debekuak zehaztea.<br>- Zamalanak NBEak erabiliz gauzatzea.<br>- Istripu batek segurtasunean eta ingurumenean izan ditzakeen ondorioak ebaluatzea.<br>- Arriskuak etiketatzeko eta seinaleztatzeko prozedurak deskribatzea: paketeak eta ibilgailuak.<br>- Istripurik izanez gero gauzatu beharreko jarduerak eta bidean izandako larrialdietarako irtenbideak zehaztea.<br>- Garraioari buruzko dokumentazioa betetzea.<br>- Salgai arriskutsuak garraiatzeko eta manipulatzeko beharrezko ezaugarri teknikoak aztertzea.<br>- Salgai arriskutsuen eta hondakinen garraioari buruzko prozedurak aplikatzea.<br>- Gorabehera ohikoenak aztertzea.<br>- Arauak ez betetzearen ondoriozko erantzukizunak ondorioztatzea.<br>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Salgai arriskutsuen garraioaren garrantzia eta segurtasuna bermatzeko elementuak.<br>- Salgai arriskutsuen garraioko arrisku nagusiak.<br>- Prebentzio- eta segurtasun-neurriak, arrisku motaren arabera.<br>- Ingurumena eta poluzioa. Hondakinak garraiatzea. Kontrola.<br>- Arriskuak etiketatzea eta seinaleztatzea.<br>- Ibilgailu edo edukiontzi berean batera kargatzeko debekuak.<br>- Paketeak manipulatzea eta estibatzea eta salgai arriskutsuak lotzea eta babestea.<br>- Gidariak salgai arriskutsuak kargatu edo deskargatu aurretik eta ondoren izan beharreko jokabidea. |

| | |
|---|---|
| | - Salgai arriskutsuen zamalanetan hartu beharreko neurriak.<br>- Ibilgailuen ekipo teknikoaren xedea eta funtzionamendua.<br>- Salgai arriskutsuak tanga-ibilgailuetan garraiatzea.<br>  • Tangak eta tanga-edukiontziak: deskribapena, ezaugarriak eta motak.<br>  • Tanga-ibilgailuen eta tanga-edukiontzien erabilera-ezaugarriak.<br>- Salgai eta objektu lehergarrien garraioa: erregelamendua eta xedapen osagarriak.<br>- Salgai arriskutsuak, tanga-edukiontziak edo lehergaiak garraiatzen dituzten ibilgailuei buruzko prestakuntza praktikoa.<br>- Isuriak, jarioak eta bestelakoak eragiten dituzten bideko larrialdietan jarduteko prozesua.<br>- ADR hitzarmena: Errepide bidezko salgai arriskutsuen nazioarteko garraioari buruzko europar hitzarmena.<br>- Babes-ekipoak.<br>- Kudeatzeko sistema integratuak. Berrerabiltzeko eta birziklatzeko politika. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 4. SALGAI GALKORREN GARRAIOA GAUZATZEKO BEHARREZKO JARDUERAK GAUZATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Hozkailuaren eta tenperatura-irakurgailuen deskribapena.<br>- Tenperatura kontrolatzeko gidariaren eginkizunak deskribatzea.<br>- Arriskuen azterketa eta kontrol-puntu kritikoa garraioan.<br>- Tenperatura kontrolatuko salgaien zamalanetan kontuan hartu beharreko neurriak eta arreta-neurriak deskribatzea.<br>- Ondasun galkorren garraioari loturiko arauak errespetatzeko prozedurak aplikatzea.<br>- Istripurik izanez gero jarraitu beharreko arauak eta prozedura aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Hornikuntza-katearen, hotz-katearen eta elikagaien segurtasunaren arabera kontrolatutako tenperaturan garraiatzea.<br>- Arriskuen azterketa eta kontrol-puntu kritikoaren metodologiaren (AAKPK) printzipio orokorrak.<br>- Salgai galkorren garraiorako ibilgailuen ezaugarriak: motak, hozkailuaren funtzionamendu orokorra, irakurgailuak eta identifikazio-plaka.<br>- Salgai galkorren garraioaren eta zamalan-eragiketen baldintza espezifikoak:<br>  • Garraiatutako produktuak.<br>  • Gidariaren funtzioak.<br>  • Zamalan-eragiketak:<br>  • Debekuak.<br>- Ibilgailuen kontserbazio-, higiene- eta garbiketa-kondizioak.<br>- Garraio frigorifikoko berezko auzirik izanez gero gidariak bete beharreko jarduerak.<br>- Elikagai galkorren garraiorako indarrean dauden lege-arauak.<br>- Istripuetarako jardunbideak. |

| | |
|---|---|
| | - Istripu edo arau-hauste larriak errepikatzea saihesteko prozedurak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 5. ANIMALIA BIZIEN GARRAIOA GAUZATZEKO BEHARREZKO JARDUERAK GAUZATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Animalia bizien garraio-zerbitzurako beharrezko dokumentazio-administratiboa hautatzea.<br>- Animalia bizien garraioari aplikatu beharreko berariazko legeak deskribatzea.<br>- Animaliak manipulatzeko, kargatzeko eta deskargatzeko teknikak deskribatzea.<br>- Animalia bizien garraio-zerbitzuan eskatutako ereduzko ziurtagiriak eta inprimakiak betetzea.<br>- Animalia-fisiologia aztertzea eta animaliak zaintzea.<br>- Animalia bizien garraio-zerbitzua gauzatzerakoan ager daitezken gorabehera ohikoenak aztertzea.<br>- Garraioan gorabeherarik izanez gero jarraitu beharreko jokabidea zehaztea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Animalia bizien garraio-zerbitzua egin bitartean animalien babesari buruz eduki beharreko administrazio-dokumentuak: inprimakiak eta egiaztagiriak.<br>- Animalien fisiologia eta animaliak manipulatzeko eta garraiatzeko baldintzak.<br>• Animalien fisiologia. Garraiatzeko moduko animaliak. Animalien estresa.<br>• Garraiobideak eta instalazioak.<br>• Zamalanetarako prozedurak eta bitartekoak.<br>• Animaliak manipulatzea eta mugiaraztea. Kargatzeko baldintzak.<br>• Edaten eta jaten emateko denbora-tarteak, atsedenaldiak eta bidaiaren iraupena, animalia motaren arabera.<br>• Atsedenerako berariazko azpiegiturak: kontrol-puntuak.<br>- Garraiatutako animalien garraioaren eta ongizatearen berezitasunak:<br>• Gidatzeko moduak animalien egoeran duen eragina.<br>• Luzetarako eta alboetarako mugimenduak.<br>• Balaztatzea.<br>- Animaliekin lan egiten duten langileen segurtasun-irizpideak:<br>• Arrisku fisikoak eta mekanikoak.<br>• Arrisku biologikoak eta higienikoak prebenitzea.<br>• Norbera babesteko ekipamenduak.<br>- Animalia biziekin istripurik izanez gero gidariak izan beharreko jokabidea eta bide-segurtasuna.<br>- Garraiobideak eta edukiontziak garbitzea eta desinfektatzea:<br>• Ingurumena errespetatzeko irizpideak. Dokumentazioa.<br>• Zigilatzeak eta desinfekzio-ziurtagiriak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean. |

| | |
|---|---|
| | - Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| **6. IBILGAILU ESPEZIALIZATUEN BIDEZKO GARRAIORAKO BEHARREZKO JARDUERAK GAUZATZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Baimendutako gehienezko masa eta neurriak gainditzen dituzten ibilgailuen bidezko garraio-zerbitzuen gaineko indarrean dauden legeak identifikatzea.<br>- Ibilgailu egokia hautatzea, pisuaren eta/edo bolumenaren arabera.<br>- Baimen berezien eskabide-prozesua deskribatzea.<br>- Zamalan-eragiketak garabi auto-kargatzaileekin gauzatzea.<br>- Jarduera horien berezko arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko protokoloak eta neurriak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Etxe-aldaketarako zerbitzua.<br>- Ibilgailuak garraiatzeko ibilgailuen bidezko garraioa eta errepidean laguntzeko garabiak.<br>- Baimendutako gehienezko masak eta dimentsioak gainditzen dituzten ibilgailuen bidezko garraio berezia:<br>• Zirkulatzeko baimen bereziak.<br>• Ibilgailu bereziek eta garraio bereziari buruzko araubidearen menpeko ibilgailuek bete beharreko baldintzak.<br>- Hondakinen garraioa:<br>• Hondakin mota nagusiak eta kudeatzeko sistemen printzipio orokorrak.<br>• Altxatzeko eta garraiatzeko bitartekoak.<br>- Zamalan-eragiketak garabi auto-kargatzaileekin:<br>• Garabi motak.<br>• Garabi-gidariaren funtzioa.<br>• Segurtasun-gailuak.<br>• Oinarrizko fisika. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Salgaien garraio-zerbitzuen modulu honen bidez asmoa da heziketa-ziklo honetako ikasleek salgaien garraio mota ezberdinen eragiketen gaineko jarduerak eta gauzapenak uler ditzaten.

Edukien multzoen sekuentziazioari dagokionez, edukien atalean ageri den hurrenkerari jarraitzea da egokiena.

Modulu honetan aurkeztutako edukiak lau multzotan daude antolatuta:

1. multzoa: Salgaien estatu barruko eta nazioarteko garraio-eragiketak egitea.

2. multzoa: Ibilgailuaren zamalan-eragiketak antolatzea.

3. multzoa: Salgai berezien (arriskutsuak, galkorrak eta animalia biziak) garraioa gauzatzeko beharrezko jarduerak gauzatzea.

4. multzoa: Ibilgailu espezializatuen bidezko garraiorako beharrezko jarduerak gauzatzea.

Lan-babesa eta ingurumeneko segurtasuna hartu beharko dira kontuan modulu honetako multzo guztietan.

## 2) Alderdi metodologikoak

Metodologia parte-hartzailea eta aktiboa eskatzen dituzte oraingo egoerek, aurretiko ideiak edo ezagutzak oinarri hartuta ikasleek beren ikaskuntzan duten autonomia indartzeko.

Unitate didaktiko bakoitzaren hasieran sarrerako jarduerak egitea komeni da, batez ere ikasleak motibatzeko eta gaia bideratzeko (inkestak, eztabaidak, albisteak...). Jarduera horiek balio dezakete hasierako ebaluazioa egiteko, era horretan taldearen ezaugarriak eta beharrak zehazteko; izan ere, aurretiko ideiak edo ezagutzak oinarri hartuta, ikasleek beren ikaskuntzan autonomia handiagoa izan dezaten bultzatzen da, baita programazioan egin beharreko egokitzapenak ere.

Praktikara bideratuko da metodologia: ikasleek ezagutza berriak praktikan jartzeko aukera izan behar dute, era horretan ikasitakoari zentzua ematearren.

Prozedurak garatzeko euskarri bat eraikitzea da, izan ere, kontzeptuzko edukien zentzu nagusia. Lan-munduarekin lotura izateko eta testuinguru horretan kokatzeko behar bezain zabal landu beharko dira horiek (irakasleen azalpena, jarduera gidatuak-autonomoak egitea, gogoeta-testuak).

Komeni da azalpenezko metodoak gehiegi ez erabiltzea, ikasleen pasibotasuna saihesteko; horrenbestez, ezinbestekoa da kasu praktikoak ebaztea, eta unitate didaktikoaren amaieran berau ixteko jarduerak egitea, zalantzak argitzen dituzten ondorioak ateratzeko eta, era horretan, ikasteko prozesua zein unitate didaktikoan izandako lorpenak ebaluatu ahal izateko.

Funtsezkoa ere bada sektoreko enpresak zein horri estaldura ematen dioten azpiegiturak eta herri-erakundeak bisitatzea. Sektoreko aldizkariak, egunkariak eta web-orriak oso tresna baliagarriak dira ibilbide didaktikoaren etapei heltzeko orduan.

Ikasleak jatorriaren araberako talde heterogeneotan elkartuz gero (garraio-enpresetan lan-esperientzia eduki edo ez), ikasleen aniztasunari erantzun ahal izango zaio, horien ikaskuntza-erritmora egokituta eta iritzi ezberdinak errespetatuta; horri esker, halaber, ikuspegi ezberdinak eta osagarriak ere baliatu ahal izango dira gai zehatzei heltzeko garaian.

Metodologia malgua izango da, kasuan-kasuan estrategia egokiena aukeratu ahal izateko.

Ebaluazioa funtsezko elementua da hezkuntza-jardueran, horri esker informazioa bildu ez ezik, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari buruzko erabakiak orientatzeko eta hartzeko

beharrezko balio-judizioak ere egin baitaitezke. Ikasgelan egindakoa zein ikasleek ikastea lortutakoa baloratzea da ebaluazioaren xedea, aurrerantzean horrela jokatu beharra dagoen edo irakaslearen jarduna, guztiz edo zati batez, aldatu behar den jakiteko.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ibilgailuak salgaien garraiorako sailkatzea:
  - Ibilgailu motak eta haien ezaugarri teknikoak identifikatzea.
  - Masei eta dimentsioei buruzko arauak interpretatzea.
  - Ibilgailuak homologatzea eta matrikulatzea.
  - Gidariari, ibilgailuari eta salgaiari buruzko dokumentazioa.
  - Zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko arauak aplikatzea.

- ✓ Ibilbideak programatzea:
  - Denborak eta bideak esleitzea.
  - Bide-orriak, ibilbideak eta ordutegiak: deskribapena eta ezaugarriak.
  - Zamalanei, banaketari eta garraioari buruzko arauak eta murrizketak.
  - Gidaldiei eta atsedenaldiei buruzko araudia. Takografoa.
  - Igarotzeko guneak (aduanak, eta abar).

- ✓ Zamak planifikatzeko teknikak:
  - Banaketan zamak planifikatzearen ezaugarriak. Gainkargaren ondorioak.
  - Optimizazioa zama prestatzean: ontziak eta bilgarriak.
  - Zamak planifikatzeko aplikazio informatikoak ezagutzea.

- ✓ Salgai arriskutsuen garraioa gauzatzeko jarduerak:
  - Salgaiak sailkatzea.
  - Arrisku-etiketak identifikatzea.
  - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
  - Arriskuak identifikatzea.
  - NBEak erabiltzea.
  - Hondakinen tratamendua.

- ✓ Abere bizien garraioa:
  - Animalien fisiologia ezagutzea.
  - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
  - Ibilgailuak garbitu eta desinfektatzea.
  - Kargen manipulazioa.
  - Arriskuak identifikatzea.
  - Istripua izanez gero jarraitu beharreko jardunbidearen simulazioa.

- ✓ Garraioa ibilgailu espezializatuetan:
  - Dokumentazio teknikoa eta araudia hautatu eta interpretatzea.
  - Ibilgailu motak eta haien ezaugarri teknikoak identifikatzea.
  - Hondakinak manipulatzea eta tratatzea.

## 5. lanbide-modulua
## BIDAIARI GARRAIOKO ZERBITZUAK

### a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Bidaiari-garraioko zerbitzuak** |
| Kodea: | 1208 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 84 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1464_2: Autobus- edo autokar-bidaiariei arreta eta informazioa emateko jarduerak gauzatzea. UC1467_2: Erabiltzaileei arreta emateko eta bezeroekin harremanetan jartzeko jarduerak gauzatzea. |
| Helburu orokorrak: | 2 / 3 / 9 / 12 / 13 / 15 / 16 / 17 / 18 / 19 |

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Bidaiarien garraio publikoaren tankera hartzen du, zerbitzuaren berezitasunak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bidaiarien garraio-zerbitzu motak bereizi ditu, eskaintzeko moduaren eta esparruaren arabera.
b) Autobus moten egitura-ezaugarriak identifikatu ditu, erabiltzeko desberdintasunak balioetsita.
c) Mugikortasun murriztuko pertsonen garraiorako ibilgailu egokituen ezaugarriak identifikatu ditu.
d) Igotzeko eta jaisteko mekanismo lagungarrien ezaugarriak eta kokapena azaldu ditu.
e) Ekipamenduaren kudeaketa orokorrean eta sarbideetan erabiltzen diren kontrol-sistemaren eta osatzen duten azpisistemen funtzioak identifikatu ditu.
f) Esleitutako nasetan zenbat denbora igaro daitekeen erabaki du, eskainitako zerbitzu motaren arabera.
g) Billeteak saltzean gidariak bidaiariei azaldu beharreko salmenta-baldintzak eta informazioa esplikatu ditu.
h) Ekipajea fakturatzeko edo kontsignatzeko baldintzak xedatu ditu.
i) Auto arinen zerbitzuak eskaintzeari dagokionez, ibilgailuaren erabileraren gaineko neurriak hautatu ditu.

2. Bidaiarien estatu-mailako eta nazioarteko garraio-eragiketak gauzatzen ditu, garraioa aise eta seguru egiteko behar diren jokabideak eta mekanismo-erabilerak balioetsita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lineako geltokietan bidaiariak igotzeko eta jaisteko kontuan hartu beharreko alderdiak identifikatu ditu.
b) Ateak irekitzeko eta ixteko gailuak manipulatu ditu, dauden segurtasun-neurrien arabera.
c) Mugikortasun murriztua edo ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonak jaisteko eta igotzeko mekanismo lagungarriak erabili ditu.
d) Eskola-umeen edo adingabeen garraio-zerbitzuetan bete beharreko jardunbide egokienak zein diren azaldu du.
e) Zamategietan ekipajeen edo fardoen zamalan-eragiketak gauzatzean hartu beharreko segurtasun-neurriak hautatu ditu.
f) Txartelak errekonozitzeko eta billeteak emateko eragiketak gauzatu ditu billeteak balidatu eta saltzeko makinetan.
g) Billeteak balidatzeko eta saltzeko makinak erabili ditu linea hasieran eta amaieran nahiz ibilgailuz aldatzean.
h) Bildutako dirua kobratzeko, erregistratzeko eta gordailatzeko beharrezko eragiketak gauzatu ditu.
i) Garraioko arrisku-faktore nagusiak deskribatu ditu, hala nola kasuan kasuko prebentzio-neurri egokiak.

3. Komunikazio-prozesuaren nondik norakoak hautematen ditu, enpresaren egitura eta funtzionamenduan dauden informazio-fluxuekin harremanetan jarrita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Komunikazio-prozesuetan parte hartzen duten elementuak nabarmendu ditu.
b) Komunikazio-prozesuan zer oztopo sor litezkeen hauteman du.
c) Komunikazio-prozesu baten etapak sailkatu eta ezaugarritu ditu.
d) Komunikazio-bideen ezaugarriak definitu ditu.
e) Mezua aurkezteko orduan modu eta jarrera egokienak erabili ditu.
f) Barne- eta kanpo-komunikazioak eta enpresaren barruko informazio-fluxuak ezaugarritu ditu.
g) Komunikazioaren eta informazioaren arteko desberdintasunak finkatu ditu.
h) Ibilgailu barneko komunikazio-sistemen ezaugarriak definitu ditu.
i) Geltokietako markesinetako informazio-elementuak irudikatu eta ezaugarritu ditu.

4. Hitzezko informazioa ematen du, sektoreko usadio eta ohitura profesionalak eta emandako informazio mota erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ahozko komunikazioan kontuan hartu beharreko oinarrizko printzipioak xedatu ditu.
b) Informazioa ematean eta jasotzean argitasuna eta zehaztasuna kontrolatzeko parametroak hautatu ditu.
c) Ahozko mezua zehatz eta argi osatu du.
d) Komunikazio-akats ohikoenak zuzentzeko neurriak aplikatu ditu.
e) Ahozko mezu bat helarazteko zailtasunak konpondu ditu.
f) Komunikazio presentzialean eta ez presentzialean hitzik gabeko hizkuntzak duen garrantzia balioetsi du.
g) Komunikazio motari eta solaskideari egokituriko hiztegia eta esapideak erabili ditu.
h) Irrati-telefoniako eta megafoniako ekipoak erabili ditu, erabiltzeko oinarrizko arauak aplikatuz.

i) Aurrez aurreko komunikazioetan eta aurrez aurre ez direnetan, hitzezko komunikaziorako eta hitzezkoa ez den komunikaziorako protokoloa aplikatu du.

5. Beharrei, kexei eta erreklamazioei arreta eskaintzen die, zerbitzuaren ezaugarriekin erlazionatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Horiek guztiak agertzea ahalbidetzen duten egoerak eta bezeroen ezaugarriak nabarmendu ditu.
b) Mugitzeko, ikusteko, hitz egiteko edo ulertzeko zailtasunak dituzten pertsonekin jokatzeko jarraibideak finkatu ditu.
c) Adingabeekin jokatzeko jarrera onena zein den azaldu du.
d) Ezgaitasun fisikoren bat duten pertsonek aurre egin beharreko trabak zein diren azaldu du.
e) Egindako eskaera arretaz eta errespetuz entzun du.
f) Eragozpenei irtenbidea emateko alternatibak edo erreklamazio formala egin aurreko iradokizunak aplikatu ditu.
g) Indarrean dauden legeek azpimarratzen dituzten alderdi garrantzitsuenak azaldu ditu, erreklamazioei dagokienez.
h) Bezeroei idatzizko erreklamazioa aurkezteko beharrezko informazioa eta dokumentazioa eskaini dizkie.
i) Kexei, erreklamazioei eta iradokizunei emandako arretak etengabeko hobekuntzako elementu gisa duten garrantzia balioetsi du.

6. Enpresaren irudia indartzen du, kalitate-prozedurak eta *marketin*eko tresnak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa-irudiaren kontzeptua definitu du.
b) Zerbitzugintzaren kalitatean eragina duten faktoreak finkatu ditu.
c) Bidaiarien garraiorako enpresa baten irudia hobetzea ahalbidetzen duen gidariaren jokabidea definitu du.
d) Txukuntasuna eta zuzentasuna baloratu ditu, hala uniformearen erabileran, nola gorputz-irudian, enpresaren marka-irudiaren funtsezko elementutzat jo ditu-eta.
e) Ibilgailuaren mantentze-lanak eta kontserbazioa beharrezkoak direla bermatu du, zerbitzuaren oinarri eta gidariaren funtsezko bitarteko denez.
f) Egindako zerbitzuaren ezaugarriak egiaztatu ditu, baita horiek bezeroen beharrekin bat datozen ere.
g) Zerbitzugintzaren eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak aplikatu ditu.
h) Marketinaren oinarrizko tresnak eta elementuak erabili ditu.

## c) Edukiak

| 1. BIDAIARIEN GARRAIO PUBLIKOA EZAUGARRITZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ibilgailuen dokumentazio teknikoa eta administratiboa deskribatzea.<br>- Bidaiariari saldutako billeteen gaineko dokumentazio propioa betetzea.<br>- Ekipamenduen kudeaketan erabilitako kontrol-mekanismoak identifikatzea.<br>- Osagarri lagungarrien kudeaketan erabilitako kontrol-mekanismoak identifikatzea.<br>- Bidaiarien egonkortasuna eta segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezko osagarriak eta ekipamendua zehaztea. |

| | |
|---|---|
| kontzeptuzkoak | - Bidaiari-zerbitzu motak, eskaintzeko moduaren arabera: erregularra eta diskrezionala.<br>- Bidaiari-zerbitzu motak, zerbitzu-eremuaren arabera.<br>- Autobus motak, egitura-irizpideen arabera.<br>- Autobus motak, erabilera-irizpideen arabera.<br>- Mugikortasun murriztuko pertsonen garraiorako ibilgailuen ezaugarriak.<br>- Floten plangintza eta kudeaketa egiteko sistemak.<br>- Garraioa kudeatzeko sistema aurreratuak.<br>- Bidaiarien geltokietako kontrol-sistemak.<br>- Bidaiarien geltokietako jarduera eta erabilera-baldintzak.<br>- Zerbitzuguneetako egonaldia.<br>- Billete-salmenta eta ekipajea fakturatzea nahiz kontsignatzea, bidaiarien geltokietan.<br>- Bidaiarien garraio publikoaren tarifak.<br>- Zirkulazioko eta garraioko indarrean dauden legeak.<br>- Bidaiarien zerbitzu erregularrak.<br>- Bidaiariak auto arinetan garraiatzeko moduak: auto-turismoak eta auto-taxiak.<br>- Automobil arinen bidezko zerbitzuari buruzko neurriak.<br>- Igotzeko eta jaisteko mekanismo lagungarriak.<br>- Ekipamendu eta osagarri lagungarriak kudeatzeko kontrol-mekanismoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## 2. BIDAIARIEN GARRAIO ERAGIKETAK GAUZATZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Bidaiarien garraioko azpiegitura espezifikoak identifikatzea.<br>- Bidaiariak lineako geltokietan jaistean eta igotzean kontuan hartu beharreko alderdiak deskribatzea.<br>- Ezgaitasunen bat duten pertsonen garraioa identifikatzea.<br>- Ateak irekitzeko eta ixteko segurtasun-neurriak aplikatzea.<br>- Ekipajeak kargatzeko eta deskargatzeko gainbegiratze-mekanismoak aztertzea.<br>- Kontrolerako eta billeteak saltzeko mekanismoak identifikatzea.<br>- Mugikortasun murriztua duten pertsonak igotzeko eta jaisteko mekanismo lagungarriak erabiltzea.<br>- Billeteak balidatzeko eta saltzeko makinak erabiltzea.<br>- Kobratzeko eta jasotako dirua erregistratzeko sistemak erabiltzea.<br>- Garraioko arrisku-faktore nagusiak deskribatzea.<br>- Bidaiarien garraioko arriskuak ebaluatzea.<br>- Bidaiarien geltokietako arriskuak ebaluatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Bidaiarien garraioko azpiegitura espezifikoak.<br>- Autobusentzat gordetako erreia.<br>- Bidaiarien sartu-irtenak lineako geltokietan.<br>- Ateak irekitzea eta ixtea: erabilera eta segurtasun-neurriak.<br>- Ekipajearen zamalanetarako mekanismoak.<br>- Eskola-umeen eta adingabeen garraioa. Irizpide orokorrak.<br>- Billeteak balidatzeko eta saltzeko makinak: linea hastea eta amaitzea, ibilgailuz aldatzea, kobratzeko eragiketak, txartelak errekonozitzea, billeteak ematea eta baliogabetzea. |

| | |
|---|---|
| | - Kobratzeko eta jasotako dirua erregistratzeko bitartekoak.<br>- Bidaiarien garraioko arriskuak eta prebentzio-neurriak.<br>- Bidaiarien geltokietako arrisku-egoerak eta prebentzio-metodoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 3. KOMUNIKAZIO PROZESUA EZAUGARRITZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Komunikazio-prozesuaren etapak sailkatzea.<br>- Komunikazio-sareak, -kanalak eta -bideak definitzea.<br>- Bezero/erabiltzaileei informazioa emateko eta haiekin komunikatzeko teknika nagusiak identifikatzea.<br>- Komunikazio-oztopoak hautematea.<br>- Mezu bat aurkezteko moduak aztertzea.<br>- Enpresaren barne- eta kanpo-komunikazioak eta enpresaren barruko informazio-fluxuak ezaugarritzea.<br>- Ibilgailu barneko komunikazio-sistemen ezaugarritzea.<br>- Geltokietako markesinetako informazio-elementuak interpretatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Komunikazio-prozesua.<br>- Komunikazio-prozesuan esku hartzen duten elementuak.<br>- Komunikazioaren helburuak.<br>- Komunikazio-prozesuaren etapak.<br>- Komunikazioaren oztopoak.<br>- Informazio- eta komunikazio-sistemak.<br>- Komunikazio sareak.<br>- Mezu bat aurkezteko moduak.<br>- Ibilgailu barneko eta geltokietako markesinetako komunikazio-sistemak.<br>- Enpresa barruko komunikazioa: komunikazio formala eta informala.<br>- Enpresaren kanpo-komunikazioa. Publizitatea eta harreman publikoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 4. KOMUNIKAZIO TEKNIKAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Informazioaren argitasunaren eta zehaztasunaren kontrolean esku hartzen duten parametroak definitzea.<br>- Ahozko mezua zuzen eta zehatz osatzea.<br>- Komunikazio-akats ohikoenak zuzentzeko neurriak aztertzea.<br>- Ahozko mezu zuzen eta zehatzak osatzea.<br>- Komunikazio-akats ohikoenak zuzentzeko neurriak aplikatzea.<br>- Komunikazio eta solaskide motaren araberako hiztegia erabiltzea.<br>- Bezeroekin komunikatzeko teknika egokienak aplikatzea, beraien segurtasuna eta konforta areagotzeko.<br>- Irrati-telefoniako eta megafoniako ekipamenduak erabiltzea.<br>- Aurrez aurreko komunikazioetan eta aurrez aurre ez direnetan, hitzezko komunikaziorako eta hitzezkoa ez den komunikaziorako |

| | |
|---|---|
| | protokoloak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ahozko komunikazioko oinarrizko printzipioak.<br>- Enpresaren esparruaren barruko ahozko komunikazioa.<br>- Ahozko informaziorako eta arretarako arauak.<br>- Ahozko komunikazioko, gizarte-trebetasunetako eta protokoloko teknikak.<br>- Ahozko komunikaziorako jarrerak eta teknikak.<br>- Isiluneak komunikazioan.<br>- Komunikazio ez-ahozkoa.<br>- Aurrez aurrekoa ez den komunikazioa.<br>- Aurrez aurreko komunikazioa.<br>- Irrati-telefono bidezko komunikazioa.<br>- Bezeroekiko informazioa kudeatzeko eta tratatzeko sistemak.<br>- Megafonia bidezko komunikazioa: megafoniako eta telefoniako ekipamenduak. Deskribapena eta erabilera. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| **5. BIDAIARIEN BEHARREI, KEXEI ETA ERREKLAMAZIOEI ARRETA EMATEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Bezero mota ezberdinei eman beharreko tratamendua, bi aldagairen arabera: maiztasuna eta nortasuna.<br>- Bezero zailak tratatzeko jokabide eta jarrera gomendatuak deskribatzea.<br>- Itsu-txakurra behar duten pertsonen beharrak eta eskubideak identifikatzea, eta itsu-txakurren zeregina gidaria duten ibilgailuetan.<br>- Bezeroen zalantzak eta eragozpenak tratatzea.<br>- Erabiltzaileen idatzizko iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko eta jasotzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.<br>- Bezeroen kexak eta erreklamazioak ebaztea eta kudeatzea simulatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Bidaiariarentzako zerbitzua.<br>- Bidaiariarentzako zerbitzuaren faseak: harrera, jarraipena, jarrera proaktiboa, barnealdeko klimatizazioa eta girotzea, atsedenaldi-egitaraua eta agurra.<br>- Bidaiarien garraioko sektoreko bezeroak.<br>- Bidaiarien beharrak eta motibazioak.<br>- Bezero zailak tratatzea.<br>- Bezeroen ezaugarriak, nortasunaren arabera, eta ezaugarriok azaleratzea bideratzen duten egoerak.<br>- Bezero motak, maiztasunaren arabera.<br>- Bezero bereziak tratatzea: adingabeak, mugikortasun murriztuko pertsonak, hitz egiteko edo entzuteko ezgaitasunak dituztenak eta adimen-atzeratasuna edo ulermen-arazoak dituztenak.<br>- Gidariaren solaskideak.<br>- Entzute aktiboko teknikak.<br>- Zalantzak eta eragozpenak bezeroarekiko/erabiltzailearekiko arretan.<br>- Kexak, erreklamazioak edo iradokizunak biltzeko elementuak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| | |
|---|---|
| | - Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 6. ENPRESAREN IRUDIA INDARTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Zerbitzuaren kalitatea zehazten duten faktoreak definitzea.<br>- Bezeroen gogobetetze-maila eta kalitatea neurtzeko eta kontrolatzeko ratioak, metodoak eta adierazleak aztertzea.<br>- Bidaiarien garraio-enpresako zerbitzu-marketinaren bitartekoak identifikatzea.<br>- Langile-politika aztertzea, bidaiarien garraio-enpresaren irudian funtsezkoa denez.<br>- Gidariak bezeroak tratatzean izan beharreko jarrerak identifikatzea, enpresaren irudia hobetzearren.<br>- Zerbitzu-enpresaren lan-antolaketarako ereduak identifikatzea.<br>- Eskainitako zerbitzua bezero/erabiltzaileek ontzat emateko aldagaiak zeintzuk diren interpretatzea.<br>- Ibilgailuaren mantentze-lan egokietarako irizpideak osatzea, zerbitzua eskaintzeko oinarri gisa. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Zerbitzuaren kalitatea.<br>- Zerbitzuaren kalitate-ezaugarriak.<br>- Zerbitzuaren kalitatea kudeatzea.<br>- Kalitate-faktoreak eskainitako zerbitzuan.<br>- Eskainitako zerbitzuaren kalitateak enpresarentzat duen garrantzia.<br>- Nazioartean onartuta dauden zerbitzuaren kalitate-neurriak.<br>- Gidariaren jarrerak bidaiarien garraioan.<br>- Gidariaren betekizunak bidaiarien garraioan.<br>- Zerbitzu-marketinaren oinarrizko kontzeptuak.<br>- Bidaiarien garraio-enpresaren marketina: marka-irudia.<br>- Bidaiarien garraio-enpresaren marketina: enpresaren zerbitzurako pertsonak, zerbitzua eskaintzeko oinarri.<br>- Zerbitzuaren kalitatearen eraginkortasuna ebaluatzeko metodoak.<br>- Ibilgailua zerbitzuaren kalitatearen eta enpresaren irudiaren erakusle gisa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, lehenengo multzoarekin hastea komeni da. Horretan, ikasleek zirkuitu elektriko osagarri bakoitzaren ezaugarriak eta funtzionaltasuna aztertuko dituzte, eta eskema eta kalkulu elektrikoak interpretatuko dituzte.

Proposatutako ibilbide didaktikoak 6 fase edo multzo ditu, eta ondoz ondo hel dakieke horiei:

**1. fasea:**

- ✓ Bidaiarien garraiorako ibilgailu motak deskribatzea.
- ✓ Bide-azpiegiturak aztertzea errepide bidezko bidaiarien garraioarekin lotuta.

**2. fasea:**

- ✓ Ibilgailuek bidaiarien garraioa errazteko daramatzaten sistema aurreratuak ezagutzea.
- ✓ Arazoak dituzten pertsonen garraioa errazteko ekipo eta mekanismo osagarriak ezagutzea.
- ✓ Billeteak kobratzeko eta kudeatzeko mekanismo eta automatismo guztiak, baita prozedura mekanikoak eta kalkulukoak ere, identifikatzea.
- ✓ Bidaiaren aurretik eta ondorengo arriskuak, baita horretan eragiten dutenak ere, prebenitzeko neurri guztiak ezagutzea.

**3. fasea:**

- ✓ Aurrez aurreko komunikazioetan eta aurrez aurre ez direnetan, hitzezko komunikaziorako eta hitzezkoa ez den komunikaziorako teknikak ezagutzea, bereziki kolektibo espezifikoekin.
- ✓ Bezeroen iradokizunei, kexei eta erreklamazioei arreta ematea eta behar bezala tratatzea.

**4. fasea:**

- ✓ Zerbitzuaren kalitatea kudeatzeko teknikak eta zerbitzuen marketin-tresnak ezagutzea, enpresarentzat lan egiten duten pertsonei dagokienez.
- ✓ Ibilgailua ongi erabiltzen eta mantentzen jakitea.

Prozedurazko edukiek dute garrantzi handien arlo honetan, baina oinarrizko hizkuntza-gaitasunak alde batera utzi gabe (ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena, ahozko adierazpena, ahozko interakzioa eta idatzizko adierazpena), lortu beharreko helburua baita beti lanpostu honen egoerekin lotuta.

Faseen sekuentziazioa, horrenbestez, bat dator curriculum-diseinu honetan garatutakoarekin. Hots:

Lehen fasea I. multzoari dagokio, bidaiarien garraiorako era guztietako ibilgailuak, azpiegiturak, mekanismoak eta gailuak deskribatzen dira bertan.

Bigarren fasea II. multzoari dagokio, non I. multzoan ikasitako edukiak praktikan jartzen diren, eta horrez gain, bidaiarien garraioko arriskuak prebenitzeko neurriak ere ikasten dituzten.

Hirugarren faseak III-V arteko multzoak hartzen ditu barnean. Horietan hitzezko eta hitzik gabeko tresna guztiak aztertzen dituzte, eta horiekin batera, bidaiariekiko komunikaziorako tresnak, kasu espezifikoen tratamendua zein erabiltzaileen iradokizunen, kexen eta erreklamazioen kudeaketa ere.

Azken fasean VI. multzoa sartzen da; bertan zerbitzuen marketin-tresnak ikasi ez ezik, praktikan ere jarri behar dituzte enpresaren irudia zaintzeko eta hobetzeko, hau da, itxura, hizkuntza eta ibilgailuaren mantentzea, zerbitzua ematearen kanpoko alderdi modura.

## 2) Alderdi metodologikoak

Ikasteko jarduera bakoitzaren hasieran komeni da indarreko legedia begiratzea, bidaiarien garraioaz hitz egitean funtsezkoa baita arautzen duen araudi zabala kontuan hartzea.

Lan-elementutzat Sustapen Ministerioaren orria kontsultatu behar da, eta Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen eta arauen aldaketak ezagutu behar dira.

Kontsulta-lan praktikoak eginez osatu behar da gaien ikaskuntza; horrelakoak bidaiariak garraiatzeko enpresen errealitatetik zein indarrean dagoen arauditik atera behar dira. Hartutako edukien egiazko ezagutzaren berri emango du horrek.

Modulua dinamizatzeko, komeni da bidaiarien garraio-enpresetara bisita gidatuak egitea, bai eta sektoreko hainbat eragile gonbidatzea ere, beren esperientziaren berri eman dezaten.

Bidaiarien geltoki intermodal berrien sorrerak ekarriko dituen aldaketak oso kontuan hartu behar dira, eta horrekin batera, bidaiariak garraiatzeko sektoreko eragileek egin beharreko lan-egoerak arintzeko izango duten eragina ere bai, eskalako ekonomia baita hori.

Proposatutako jarduera guztietan sektorearen balio erantsia bilatzea gomendatzen da.

Ikasleek beren *hinterlandi* dagozkion bidaiarien sektoreko enpresak euskarri egoki batean kokatzea gomendatzen da, horretarako egiten dituzten bideen berri jasota.

Edukiak zehazten dituzten datuak eta kasuak egokitu behar dira ikastetxearen inguruko enpresa adierazgarrienen edo ikasleen balizko lanbideratzearen arabera.

Gogoratu beharra dago modulu honek giza jokabideak aztertzen dituela; hortaz, funtsezkoa da horiek kudeatzea antolaketari, komunikazioari, legediari, arrisku-prebentzioari eta bestelakoei dagokienez, eta horrez gain, guztia xehe-xehe dokumentatzea.

Azkenik, txalogarria da tresna informatikoak, software moduan, erabil ditzaten erraztea, ikasgelako lana osatzeko.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Bidaiarientzako garraio publikoa:
- Ibilgailuen dokumentazio teknikoa eta administratiboa deskribatzea.
- Bidaiariari saldutako billeteen gaineko dokumentazio propioa betetzea.
- Ekipamendu eta osagarri lagungarrien kudeaketan erabilitako kontrol-mekanismoak ezagutzea.
- Bidaiarien egonkortasuna eta segurtasuna eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko beharrezko osagarriak eta ekipamendua zehaztea.

✓ Bidaiarien garraio-eragiketak:
- Bidaiariak lineako geltokietan jaistean eta igotzean kontuan hartu beharreko alderdiak ezagutzea.
- Ateak irekitzeko eta ixteko segurtasun-neurriak aplikatzea.
- Ekipajeak kargatzeko eta deskargatzeko gainbegiratze-mekanismoak deskribatzea.
- Kontrolerako eta billeteak saltzeko mekanismoak identifikatzea.
- Mugikortasun murriztua duten pertsonak igotzeko eta jaisteko mekanismo lagungarriak erabiltzea.
- Billeteak balidatzeko eta saltzeko makinak erabiltzea: linea hastea eta amaitzea, ibilgailuz aldatzea, kobratzeko eragiketak, txartelak errekonozitzea, billeteak ematea eta baliogabetzea.
- Bidaiarien garraioko eta zerbitzuguneetako arriskuak ebaluatzea.

- ✓ Komunikazio-prozesua bidaiariak garraiatzeko enpresan:
  - Komunikazio eta solaskide motaren araberako hiztegia erabiltzea.
  - Bezeroekin komunikatzeko teknika egokienak aplikatzea, beraien segurtasuna eta konforta areagotzeko.
  - Bezero bereziak tratatzeko teknikak aplikatzea: adingabeak, mugikortasun murriztuko pertsonak, ikusteko, hitz egiteko edo entzuteko ezgaitasunak dituztenak eta adimen-atzeratasuna edo ulermen-arazoak dituztenak.
  - Bezeroen kexak eta erreklamazioak ebaztea eta kudeatzea simulatzea.
  - Erabiltzaileen idatzizko iradokizunak, kexak eta erreklamazioak aurkezteko eta jasotzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.

- ✓ Garraio-enpresaren irudia indartzea:
  - Gidariak bezeroak tratatzean izan beharreko jarrerak identifikatzea, enpresaren irudia hobetzearren.
  - Zerbitzu-enpresaren lan-antolaketarako ereduak identifikatzea.
  - Eskainitako zerbitzua bezero/erabiltzaileek ontzat emateko aldagaiak zeintzuk diren baloratzea.
  - Ibilgailuaren mantentze-lan egokietarako irizpideak osatzea, zerbitzua eskaintzeko oinarri gisa.

# 6. lanbide-modulua
# BILTEGIKO LANAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Biltegiko lanak** |
| Kodea: | 1209 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 165 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Merkataritza-prozesuak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal hauei lotuta dago:<br>UC1465_2: Salgaien zamalanen prozesuak gainbegiratzea eta/edo gauzatzea.<br>UC1325_1: Salgaiak biltegian jasotzeko, ipintzeko, mantentzeko eta bidaltzeko jarduera lagungarriak gauzatzea, taldean lan eginez.<br>UC0432_1: Zamak orga jasotzaileekin erabiltzea. |
| Helburu orokorrak: | 10 / 11 / 15 / 17 / 19 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Logistikaren esparruko hornidura-kateari loturiko biltegiratze-eragiketak ezaugarritzen ditu, biltegi motak bereizita.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegiratze-helburuak definitu ditu, hornikuntza- eta salgaien banaketa-premien arabera.
b) Biltegiratzearen zeregina azaldu du, egungo industria-ekoizpenaren eta kontsumoaren azkenaldiko bilakaeraren arabera.
c) Biltegi motak eta salgaien hornikuntza- eta banaketa-katean sortzen diren material-fluxuak erlazionatu ditu.
d) Biltegi motak sailkatu ditu, jardueraren, salgai motaren eta errotazioaren arabera.
e) Biltegian dauden salgaiak eta salgai mota bakoitzaren biltegiratze-baldintza orokorrak identifikatu ditu.
f) Biltegi baten kokapena baldintzatzen duten faktore nagusiak deskribatu ditu.
g) Biltegia gaizki dimentsionatzeak enpresari zer ondorio dakarkion baloratu du.
h) Biltegi bateko salgaien barne-fluxua identifikatu du.

2. Biltegi baten eta paketeria-plataforma baten antolaketa eta funtzionamendua ezaugarritzen ditu, sailak, instalazioak eta ekipamenduak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegi bateko sailak, instalazioak eta ekipamenduak identifikatu ditu.
b) Planoan, biltegiko gune guztiak identifikatu eta gune bakoitzaren eginkizunak deskribatu ditu.
c) Paketeria-plataforma baten funtzionamendua eta berezitasunak deskribatu ditu.
d) Biltegi bateko eragiketa nagusiak zein diren azaldu du.
e) Biltegi bateko salgaien mugimendu-fluxuak identifikatu ditu.
f) Biltegiko ekipamendu eta instalazioak eta horien funtzionamendua azaldu ditu.
g) Zamalanetarako kai baten ezaugarriak eta funtzionamendua identifikatu ditu.
h) Biltegiko mantentze-ekipamendu nagusiak identifikatu ditu.

3. Salgaiak jasotzeko eta biltegiratzeko eragiketak gauzatzen ditu, horien ezaugarriak eta biltegiratze-baldintzak nahiz kokapena erlazionatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Salgaien harrera-prozesua kontrol-zerrenden eta salgai-sarreraren kudeaketaren arabera azaldu da.
b) Salgaiak seinaleztatzeko eta errotulatzeko etiketak identifikatu ditu, baita harrera-eragiketekin loturiko dokumentuak ere.
c) Salgaiak kodetzeko sistema nagusiak aplikatu eta kodeen esanahiak deskribatu ditu.
d) Aplikazio informatikoak erabili ditu salgaiak etiketatzeko, salgaien biltegiko trazabilitatea kontrolatzearren.
e) Jasotako salgaietan akatsak hautemateko nahiz etiketak eta albaranak bat datozen egiaztatzeko irizpideak eta prozedurak identifikatu ditu.
f) Bilgarria eta loturak eskuz kendu dizkio zamari, erreminta egokiak erabiliz.
g) Salgaiak biltegian kokatu ditu, espazioa eta mugimendu kopurua optimizatzeko arau orokorrak betez.
h) Kalkulu-orriak edo berariazko aplikazio informatikoak erabili ditu, jasotako salgaiak erregistratzeko.
i) Salgaiak biltegian sartzeko, kokatzeko eta mugitzeko kudeaketa-txostenak egin ditu.

4. Stocka kontrolatzeko, eskaerak prestatzeko eta salgaiak ateratzeko eragiketak gauzatzen ditu, enpresak xedatutako prozedura estandarizatuak aplikatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegiko stocka kontrolatzeko oinarrizko eragiketak zein diren azaldu du, inbentarioak egitea eta izakinak egiaztatzea errazteko.
b) Stockak berritzea edo birjartzea, gutxieneko stocka mantentzea edo bezeroa berrornitzea bermatzeko erabilitako metodoak hautatu ditu.
c) Biltegiko eskaerak prestatu ditu, kontrol-zerrendak, eskaera-aginduak edo albaranak erabilita.
d) Ontzien, bilgarrien eta paletizazio-sistemen ezaugarriak eta produktuen ezaugarriak, salgaienak zein haien beren manipulazio- eta garraio-baldintzenak erlazionatu ditu.
e) Salgaiak formaren eta eskaerak optimizatzeko bitarteko erabilienen arabera taldekatu ditu.
f) Salgaiak babesteko etiketak eta seinaleak egin ditu eta bilgarrian zer lekutan ipiniko diren zehaztu du.
g) Salgaiak biltegiratze-gunetik biltegitik ateratzekora arteko mugimendua eta manipulatzeko bitarteko egokiak zein diren azaldu ditu.
h) Ibilgailua kargatu du, karga-aginduaren, salgaien ezaugarri fisikoen eta helburuaren arabera.
i) Salgaiari dagokion dokumentazioa hautatu du, biltegian geratu behar denetik bereizita.

j) Biltegi-kontrolerako, izakinak egiaztatzeko, entrega-agiriak betetzeko eta salgaien irteera- eta bidaltze-eragiketak erregistratzeko tresna informatikoak erabili ditu.

5. Transpaletak eta orga jasotzaileak erabiltzen ditu, erabiltzeko segurtasun-prozedurak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Transpaletaren aurretiazko egiaztapena egin du, ezaugarri teknikoei eta egoerari dagokienez.
b) Orga motak identifikatu ditu, fitxa teknikoetan oinarrituta, eta haien berezko erabilerarekin erlazionatuta.
c) Orga jasotzaile mota bakoitzari dagokion aurretiazko egiaztapena zehaztu du.
d) Karga-plakako informazio teknikoa interpretatu du.
e) Kargaren pisuari, urkilarekiko distantziari, karga kokatzeko altuerari eta orga erabiltzeko baldintza orokorrei dagozkien segurtasun-neurriak bete ditu.
f) Orga jasotzailea erabili du karga lurretik jaso eta altueran uzteko.
g) Orga jasotzailea erabili du paletak ibilgailuraino mugitzeko.
h) Orga erabiltzean, kaiaren eta ibilgailuaren arteko lotura-zubia baliatu du.
i) Karga ibilgailuan dagokion lekuan utzi du.

6. Biltegiratze-eragiketetan eta orga jasotzaileak erabiltzean, arriskuak prebenitzeko segurtasun-arauak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biltegiratutako salgai moten eta biltegiratze-sistema finkoen ondoriozko lan-istripu ohikoenak eta arriskuak deskribatu ditu.
b) Salgaiak apalategietan, karga-unitateetan, ibilgailuetan edo edukiontzietan jartzeko eta pilatzeko eragiketetan ohikoenak diren lan-istripuak eta arriskuak deskribatu ditu.
c) Eskariak prestatzeko eta egokitzeko eragiketetan ohikoenak diren lan-istripu motak identifikatu ditu.
d) Lantokiko eta erabilitako materialaren ordenari, garbitasunari, seinaleztapenari eta mantentze orokorrari eusteko beharra balioetsi du, arriskuak eta laneko istripuak saihesteko.
e) Biltegiratze-eragiketetako arriskuak eta horiek prebenitzeko, ekiditeko eta txikiagotzeko segurtasun- eta prebentzio-arauak erlazionatu ditu.
f) Salgaien zamalanetan norbera babesteko ekipamenduak eta eskuz manipulatzekoak erabiltzearen abantailak baloratu ditu, arriskuak saihesteko.
g) Larrialdietan eta suteetan bete beharreko jokabide-arau oinarrizkoak azaldu ditu, biltegiko oinarrizko seinaleztapenari jarraikiz.
h) Kargak manipulatzeko orga jasotzaileak eta bestelako ekipamendu mugikorrak erabiltzean sor daitezkeen laneko arriskuen gaineko prebentzio- eta segurtasun-neurriak identifikatu ditu.

## c) Edukiak

| 1. HORNIKUNTZA KATEARI LOTURIKO BILTEGIRATZE ERAGIKETAK EZAUGARRITZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Kontsumitzaileen ohitura-aldaketak eta aldaketok produktuen biltegiratzean eta banaketan duten eragina aztertzea.<br>- Biltegiratze-helburuak aztertzea, hornikuntza- eta salgaien banaketa-premien arabera.<br>- Biltegiak sailkatzea, hornikuntza-katean betetako funtzioaren arabera.<br>- Biltegiak salgai motaren arabera sailkatzea.<br>- Salgaiak ezaugarrien eta biltegiratze-beharren arabera sailkatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Logistika-sare bati dagokion eskema diseinatzea.<br>- Logistika-sare bateko biltegi motak mapa batean kokatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Enpresako logistika.<br>- Biltegiratzea, hornikuntza- eta salgaien banaketa-katearen barruan.<br>- Kontsumoaren eta industria-ekoizpenaren bilakaera. Salgaien banaketaren eta biltegiratzearen gaineko ondorioak.<br>- Biltegi motak eta horien ezaugarriak.<br>- Biltegiratzeko premia.<br>- Biltegiaren funtzioak.<br>- Salgai motak eta biltegiratzeko baldintza orokorrak.<br>- Manipulatzeko arauak eta irizpideak.<br>- Kontserbazioa eta mantentze-lanak.<br>- Biltegiaren kokapena eta edukiera. Eragin-parametroak.<br>- Kokatzeko metodoak.<br>- Biltegiko salgaien fluxua. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| **2. BILTEGI BATEN ETA PAKETERIA PLATAFORMAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA EZAUGARRITZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ereduzko biltegi baten guneak plano edo *lay-out* batean kokatzea: harrera, bidalketak, *picking*a, zamalan-kaiak, etab.<br>- Salgaiek biltegira iristen direnetik ateratzen diren arte egindako ibilbidea zehaztea ereduzko biltegi baten plano edo lay-out batean.<br>- Behar diren apalategiak kalkulatzea, bitartekoen eta biltegiratu beharreko salgai kopuruaren arabera.<br>- Karga-unitateak kate logistikoaren beste eragiketa batzuetan berrerabiltzeko sailkatzea, hutsean garraiatzea saihesteko.<br>- Ontzi eta bilgarri motak sailkatzea, berrerabiltzeko.<br>- Biltegiko mantentze-ekipamendu nagusiak sailkatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Biltegi baten egitura eta banaketa: guneak, instalazioak eta ekipamenduak.<br>- Biltegiko gune nagusiak. Instalazioko banaketa.<br>- Biltegiratze-eragiketak.<br>- Salgaien babes fisikorako ekipamenduak eta bitartekoak. Lehen mailako ontzia, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa. Babes-elementuak. Zigiluak.<br>- Biltegiratze-ekipamenduak. Apalategiak. Korridoreak.<br>- Salgaiak manipulatzeko eta biltegiratzeko unitateak.<br>- Karga-unitateak: paletak, edukiontziak, kutxa mugikorra, etab.<br>- Karga motak.<br>- Biltegian kargak eta salgaiak mugitzeko ekipamenduak eta bitartekoak.<br>- Biltegiratzeko bitarteko mekanikoak. Finkoak eta mugikorrak.<br>- Transpaletak. Pilatzaileak. Orga jasotzaileak. Transelebadoreak. Gida automatikoko ibilgailuak.<br>- Zamalan-kai motak: ezaugarriak eta oinarrizko funtzionamendua.<br>- Paketeria-plataforma baten ezaugarri bereizleak. |
| | |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| **3. SALGAIAK JASOTZEKO ETA BILTEGIRATZEKO EGIN BEHARREKO ERAGIKETAK GAUZATZEA** | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Ibilgailuetatik salgaiak deskargatzea antolatzea.<br>- Ibilgailuari zamalan-kaia esleitzea.<br>- Salgaiak seinaleztatzeko eta errotulatzeko etiketak identifikatzea.<br>- Deskargatutako salgaiaren albarana eta egindako eskaera bat datozen egiaztatzea.<br>- Deskargatutako salgaia eta dakarren dokumentazioa bat datozela egiaztatzea.<br>- Salgaien egoera egiaztatzea.<br>- Albaranean hautemandako gorabeherak erregistratzea.<br>- Salgaiak deskargatzeko eta manipulatzeko jarraibideak identifikatzea.<br>- Karga destaldekatzeko eta salgaiak desenbalatzeko lanak antolatzea.<br>- Jasotako salgaiari dagokion kokalekua esleitzea.<br>- Salgaien sarrera erregistratzea erabilitako stockak kudeatzeko sistema informatikoan.<br>- Salgaien sarreren, biltegiratzearen eta mugitzearen kudeaketa-txostenak gauzatzea, kudeaketa-sistema informatikoa erabilita. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Salgaiak hartzeko prozesua.<br>- Sarrera-erregistroa. Egiaztapenak eta ziurtapenak.<br>- Karga destaldekatzeko eta eskuz desenbalatzeko eragiketak.<br>- Biltegiko oinarrizko dokumentazioa. Eskaera-orria. Eskabidea. Albarana. *Packing lista.* Harrera-orria.<br>- Karga-unitateak, paketeak, kutxak eta fardelak seinaleztatzea eta errotulatzea.<br>- Etiketatzea eta kodetzea.<br>- Seinaleztatzeko eta errotulatzeko arauak eta gomendioak.<br>- Salgaien biltegiko trazabilitatea: identifikatzeko, kokatzeko eta jarraipena egiteko ekipamenduak eta sistemak.<br>- Trazabilitatea. Kontzeptua eta helburua.<br>- Produktuak elektronikoki identifikatzeko sistemak. Irrati-maiztasuneko terminalak, PDA, barra-kodeen irakurgailuak, ahotsa ezagutzeko sistemak.<br>- Produktuak eta salgaiak biltegiratzea.<br>- Salgaiak behar bezala kokatzeko arauak.<br>- Salgaien kontserbaziorako segurtasun- eta higiene-arauak.<br>- Biltegian sartutako eta mugitutako salgaien erregistroari aplikatutako informatika. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 4. STOCKA KONTROLATZEKO EGIN BEHARREKO ERAGIKETAK GAUZATZEA, ESKAERAK PRESTATZEARI ETA SALGAIAK ATERATZEARI DAGOKIENEZ | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Xedatutako kudeaketa-sistemaren bidez eskaerak prestatzeko argibideak helaraztea.<br>- Salgaiak karga-unitateetan kokatzea optimizatzea.<br>- Eskaerak prestatzeko eta/edo bilgarri egokienaz biltzeko metodoak zehaztea.<br>- Eskaerak prestatzeko eremua salgaiz hornitzeko sistemaren diseinua lantzea.<br>- Beste zenbait zereginen artean, bidaliko diren salgaiak seinaleztatzea, errotulatzea, kodetzea eta etiketatzea.<br>- *Picking*-agindua berrestea.<br>- Bidalitako salgaiarekin doan dokumentazioa identifikatzea: albarana/*packing lista*, kontrol-agiria.<br>- Garraioa egiteko beharrezkoak diren karga-unitateak eta garraioko elementuak kalkulatzea.<br>- Garraiolariaren karga-agindua betetzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Stockak kudeatzea:<br>• Stockak kudeatzeko eta birjartzeko sistemak.<br>• Lote ekonomikoa.<br>• Eskaera-puntua.<br>- Izakinak kontrolatzeko oinarrizko eragiketak:<br>• Izakinen balorazioa.<br>• Inbentarioak.<br>- Eskaerak prestatzeko prozesuak:<br>• Eskaerak prestatzeko oinarrizko oharrak.<br>• Eskaerak prestatzeko oinarrizko dokumentazioa.<br>• Eskaerak prestatzeko sistemak eta ekipamenduak.<br>• Eskaerak prestatzeko eta salgaiak bidaltzeko eginbidea. *Picking*-eragiketak.<br>• Eskaera optimizatzea eta eskaerako unitateak kargatzeko eta estibatzeko faktoreak.<br>- Eskaera motak. Eskaera-unitatea eta karga-unitatea.<br>- Jasotako eskaeren erregistroa. Albarana. *Packing lista*. Garraioa kontrolatzeko dokumentua.<br>- Karga-banaketa. Espazioa optimizatzea. Estiba-koefizientea edo -faktorea.<br>- Eskaera-unitateetan salgaiak taldekatzeko, kokatzeko eta lotzeko metodoak.<br>- Salgaiak eskaera-unitateetan antolatzea.<br>- Salgai batzuen arteko bateraezintasunak.<br>- Eskaera taldekatzeko, egokitzeko, biltzeko, etiketatzeko eta zigilatzeko eragiketak.<br>- Karga-unitateak antolatzea, helburuen eta ibilgailuko kokalekuaren arabera.<br>- Kalitatearen kudeaketarako eta ingurumenaren kudeaketarako gomendioak.<br>- Bilgarrien erabilera eraginkorra: murriztea, birziklatzea eta berrerabiltzea.<br>- Stockaren kontrolean, eskaerak prestatzean eta salgaien bidalketan aplikatutako informatika. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea. |

| | |
|---|---|
| | - Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 5. TRANSPALETAK ETA ORGA JASOTZAILEAK ERABILTZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Orgaren aginteek, gidatzeko eta manipulatzeko sistemek eta elementuek eta kontrol-taulako erregai-mailaren, bateria-mailaren eta bestelako adierazleek emandako informazioa topatzea eta interpretatzea, orgatan edo maketetan.<br>- Orga mota bakoitzari dagokion aurretiazko egiaztapena egitea.<br>- Lehen mailako mantentzeari dagozkion eragiketak interpretatzea, mantentze-lanen eskuliburuko jarraibideen arabera.<br>- Orga hutsak eta ahal beste kargatutakoak gidatzea, frenatzeko, aparkatzeko, atzerako martxako eta maldan egoteko maniobrak eginda.<br>- Karga-unitateak jasotzea eta jasotzeko maniobra egitea, hala nola karga lurrean uztekoa eta dagokion gelaxkan uztekoa.<br>- Karga-unitateak jasotzea, kaiaren eta ibilgailuaren arteko lotura-zubia erabilita.<br>- Ibilgailuaren karga-unitateak deskargatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Salgaiak garraiatzeko eta manipulatzeko sistemak eta bitarteko teknikoak.<br>- Transpaletak eta orgak. Sailkapena eta motak:<br>• Jasotzeko sistema. Masta, urkila, zilindro hidrauliko, urkilak eramateko taula motak, etab.<br>- Orga segurtasunez erabiltzeko oinarrizko arauak:<br>• Espainiako eta Europako arauak.<br>• Lehen mailako mantentze-lanak.<br>• Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa.<br>• Norbera babesteko ekipamendua.<br>- Abian jartzea, zirkulatzea eta maniobrak egitea ibilgailu hutsarekin:<br>• Ekipoa abian jartzea eta geratzea.<br>• Orgara igotzea, orgatik jaistea.<br>• Atxikitzeko sistema erabiltzea, kabina, segurtasun-uhala.<br>• Desplazamendu-abiadura, ibilbidea, zoruaren izaera eta egoera.<br>- Zamalan-eragiketak:<br>• Oreka-nozioak.<br>• Kargaren grabitate-zentroa. Kargaren grabitate-zentroaren eta orgarenaren arteko elkarreragina.<br>• Orga hutsaren eta kargatutakoaren oreka galtzea.<br>• Orga hutsaren eta kargatutakoaren portaera dinamiko eta estatikoa. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

| 6. BILTEGIRATZE ERAGIKETETAN ARRISKUAK PREBENITZEKO ETA SEGURTASUNEKO ARAUAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Laneko arrisku eta istripu ohikoenak aztertzea.<br>- Biltegian istripurik izanez gero jarraitu beharreko prozedura interpretatzea. |

| | |
|---|---|
| | - Biltegiko jardueren ondoriozko zama fisikoak eta mentalak aztertzea eta horiek prebenitzeko, saihesteko eta murrizteko prebentzio-neurriak deskribatzea.<br>- Biltegi barruan zamak erabiltzearen ondoriozko arriskuak prebenitzeko prebentzio-neurri egokien plangintza egitea.<br>- Biltegian sute txikirik izanez gero hartu behar diren segurtasun-neurriak eta beharrezkoak diren babes-bitartekoak planifikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Biltegiko eragiketetako istripuak eta arrisku-faktoreak prebenitzeko neurriak:<br>• Biltegiko sistema finkoen ondoriozko arriskuak prebenitzeko neurriak.<br>• Muntaketa- eta desmuntaketa-eragiketetako eta konponketetako prebentzioa. Kolpeak prebenitzea. Seinaleztapenak.<br>• Salgaiak altueran ipintzearen ondoriozko arriskuak prebenitzeko neurriak.<br>• Hondoratze-prebentzioa. Altueran dauden kargak lan-guneetan edo pasabideetan erortzearen aurreko prebentzioa.<br>• Biltegiratutako salgai motaren ondoriozko arriskuak prebenitzeko neurriak. Salgai arriskutsuak. Salgai astunak. Salgai handiak.<br>- Biltegiko ordena eta garbitasuna mantentzea:<br>• Garbiketa eta mantentze-lan orokorra.<br>• Erabili eta botatzeko elementuak jasotzea eta hautatzea.<br>• Desinfekzio-eragiketak.<br>- Biltegiko larrialdietan eta suteetan jarduteko modua:<br>• Ebakuazio-planak. Su-itzalgailuak erabiltzea. Ikusizko eta entzutezko seinaleztapenak.<br>- Segurtasuna eta arriskuen prebentzioa orgak erabiltzean:<br>• Istripu-baldintza eta -arrazoi nagusiak.<br>• Norbera babesteko ekipamenduak erabiltzea.<br>• Orga erabiltzeko eta karga jasotzeko nahiz garraiatzeko segurtasun-arau orokorrak, hala nola espazio txikietan maniobrak egitekoak.<br>• Arrisku espezifikoen prebentzioko neurriak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Jarrera ordenatua eta metodikoa izatea.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea.<br>- Talde-lanean lagundu eta sartzea.<br>- Ingurunea (pertsonak eta ekipamendua) errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek eta ibilbide didaktiko hau proposatzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Edukien multzoen sekuentziazioari dagokionez, ageri diren hurrenkerari jarraitzea da egokiena. Laburpen gisa, honako sekuentziazio hau proposatzen da:

1. multzoa. Hornikuntza-kateari loturiko biltegiratze-eragiketak ezaugarritzea:
1. Biltegiratzea, hornikuntza- eta salgaien banaketa-katearen barruan.
2. Biltegien tipologia.
3. Salgai motak.

2. multzoa. Biltegi baten eta paketeria-plataformaren antolaketa eta funtzionamendua ezaugarritzea:
1. Biltegi baten egitura eta banaketa: guneak, instalazioak eta ekipamenduak.
2. Karga motak.
3. Paketeria-plataforma baten ezaugarriak.

3. multzoa. Salgaiak jasotzeko eta biltegiratzeko egin beharreko eragiketak gauzatzea:
1. Salgaiak hartzea.
2. Biltegiko oinarrizko dokumentazioa.
3. Salgaiak biltegiratzea eta kontserbatzea.

4. multzoa. Stocka kontrolatzeko egin beharreko eragiketak gauzatzea, eskaerak prestatzeari eta salgaiak ateratzeari dagokienez:
1. Stockak kudeatzea.
2. Izakinen kontrola.
3. Eskaerak prestatzea.
4. Salgaiak ateratzea.
5. Salgaiak prestatzeko eta ateratzeko oinarrizko dokumentazioa.
6. Biltegiak kudeatzeko informatika-tresnak.

5. multzoa. Transpaletak eta orga jasotzaileak erabiltzea:
1. Transpaletak eta orgak. Sailkapena eta motak.
2. Transpaletak eta orgak modu seguruan erabiltzea.
3. Kargen manipulazioa.

6. multzoa. Biltegiratze-eragiketetan arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko arauak aplikatzea:
1. Biltegiko eragiketetako istripuak eta arriskuak prebenitzeko neurriak.
2. Larrialdietarako jarduerak.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasteko, gomendatzen da moduluaren aurkezpen orokorra egitea, programatutako unitate didaktikoak zerrendatuta, ikasleek helburuen eta edukien (kontzeptuzkoen zein prozedurazkoen eta jarrerazkoen) ikuspegi orokorra jaso dezaten.

Modulua aurkeztu ondoren, komeni da hasierako unitate didaktiko bati heltzea, aurkezpena egiteko, funtsean, ikasleek salgaien biltegiratzeak zer garrantzi duen uler dezaten, enpresaren jarduera guztietan eta, zehazki, salgaien hornidura- eta banaketa-katearen barruan.

Multzo bakoitzeko kontzeptuzko edukiek osatzen dituzten unitate didaktikoak garatuko dira horren ostean; hala, ariketak eta kasu praktikoak egingo dira azaldutako edukiak sendotu eta handitzeko, eta ikasleek esku har dezaten bultzatzen duten metodoak erabiliko dira.

Komeni da hasieran jarduera errazak egitea ikasleen konfiantza laguntzeko, eta ondoren zailtasuna pixkanaka igotzen joatea, harik eta beharrezko gaitasun-mailara iritsi arte.

Ikasteko prozesua indartzeko egokia izango litzateke bisita programatuak egitea inguruko biltegi batzuetara biltegiratzeko espazioaren egitura, banaketa eta seinaleak, hartzeko, biltegiratzeko eta ateratzeko eragiketak zein manipulatzeko ekipamenduen erabilera ikusi ahal izateko ikasleek.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Hornikuntza-kateari loturiko biltegiratze-eragiketak ezaugarritzea
  - Biltegiratze-helburuak aztertzea, hornikuntza- eta salgaien banaketa-premien arabera.
  - Salgaiak ezaugarrien eta biltegiratze-beharren arabera sailkatzea.

- ✓ Biltegi baten eta paketeria-plataformaren antolaketa eta funtzionamendua ezaugarritzea
  - Biltegi bateko sailak, instalazioak eta ekipamenduak identifikatzea.
  - Biltegi batean egiten diren eragiketa nagusietarako beharrezko ekipamenduak eta bitartekoak hautatzea.
  - Karga-unitateak sailkatzea.
  - Ontzi eta bilgarri motak sailkatzea, berrerabiltzeko.
  - Paketeria-plataforma baten funtzionamendua aztertzea.

- ✓ Salgaiak jasotzeko eta biltegiratzeko egin beharreko eragiketak gauzatzea:
  - Eskaeren harrera kudeatzea.
  - Salgaiak deskargatzeko eta manipulatzeko jarraibideak identifikatzea.

- ✓ Stocka kontrolatzeko egin beharreko eragiketak gauzatzea, eskaerak prestatzeari eta salgaiak ateratzeari dagokienez:
  - Stockak kudeatzeko metodoak aplikatzea.
  - Izakinak sailkatzea eta kontrolatzea.
  - Eskaerak prestatzea eta salgaiak bidaltzea kudeatzea.
  - Salgaiak prestatzeko eta ateratzeko oinarrizko dokumentazioa prestatzea.
  - Biltegiak kudeatzeko informatika-tresnak erabiltzea.

- ✓ Transpaletak eta orga jasotzaileak erabiltzea:
  - Transpaletak eta orgak modu seguruan erabiltzea.
  - Kargen manipulazioa.

- ✓ Biltegiratze-eragiketetan arriskuak prebenitzeko eta segurtasuneko arauak aztertzea.

7. lanbide-modulua

# IBILGAILUEN OINARRIZKO MANTENTZE LANAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak** |
| Kodea: | 1210 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 198 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Ibilgailuen mantentze-lanak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) |
| Modulu mota: | Konpetentzia-atal honi lotuta dago:<br>UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 8 / 13 / 17 / 19 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ibilgailuen motorren mantentze-lanak egiten ditu, horien osaera eta funtzionamendua mantentze-lan programatuko jarduerekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Gasolina- eta diesel-motorren funtzionamendu-printzipioak interpretatu eta horien osatze-desberdintasunekin lotu ditu.
b) Motorraren arkitektura eta haren sistema osagarriak deskribatu ditu, baita sistema osagarri bakoitzaren funtzionamendua ere.
c) Motorra osatzen duten multzoen eta elementuen kokapena identifikatu ditu.
d) Motorren multzoak eta azpimultzoak eta horien oinarrizko sistema osagarriak muntatu eta desmuntatu ditu.
e) Lubrifikazio- eta hozte-zirkuituetako jariakinak kendu eta birjarri ditu, beharrezko segurtasun-baldintzak betez.
f) Koipeztatze-zirkuituko oinarrizko osagaiak ordeztu ditu, zehaztapen teknikoak betez.
g) Hozte-zirkuituaren oinarrizko elementuak ordeztu ditu, isuririk ez dagoela egiaztatuz.
h) Ibilgailuaren iragazkiak ordeztu ditu.
i) Abiarazteko bujiak eta berogailuak ordeztu ditu gasolina eta diesel motorretan.
j) Zerbitzu-uhalak desmuntatu eta muntatu ditu, zehaztapen teknikoen arabera.

2. Ibilgailuaren esekidura- eta ibiltze-sistemen mantentze-lanak egiteko eragiketak gauzatzen ditu, osatzen duten multzoak eta elementuak beren oinarrizko mantentze-lanekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sistemen funtzionamendu-printzipioak deskribatu ditu.
b) Sistema batean, osatzen duen multzoak eta azpimultzoak topatu ditu.
c) Motelgailua desmuntatu du, haren malgukia eta guzti, tresna egokia erabilita eta segurtasun-baldintzak betez.
d) Ibilgailuaren tortsio-barrak desmuntatu eta muntatu ditu, kokapena eta tentsioa egiaztatuz.
e) Esekiduraren baleztak desmuntatu eta muntatu, eta zatiak identifikatu ditu.
f) Egonkortze-barra desmuntatu du, horren funtzionamendua eta ibilgailuari zertan eragiten dioten azalduta.
g) Ibilgailuaren gurpila desmuntatu du eta ordezkoa ipini du, inprimatutako nomenklatura kontuan hartuta.
h) Gurpilen orekatze estatikoa eta dinamikoa egin ditu.
i) Modu ordenatuan, txukun, zehatz eta segurtasunez aritu da, prozedurak eta teknikak aplikatuz.

3. Ibilgailuaren transmisio- eta balazta-sistemen mantentze-lanak egiteko eragiketak gauzatzen ditu, osatzen duten multzoak eta elementuak beren oinarrizko mantentze-lanekin erlazionatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Sistemen funtzionamendu-printzipioak deskribatu ditu.
b) Sistema batean, osatzen duen multzoak eta azpimultzoak topatu ditu.
c) Abiadura-kaxaren eta diferentzialaren mailak egiaztatu ditu, lubrifikatzailea birjarrita edo ordeztuta.
d) Transmisio-ardatzak eta palierrak ordeztu ditu, osagaiak adierazita.
e) Freno-likidoaren maila egiaztatu du eta ordeztu egin du.
f) Freno-pastillak eta -zapatak desmuntatu eta muntatu ditu.
g) Freno-diskoak eta -danborrak ordeztu ditu eta beren egitura-ezaugarriak deskribatu ditu.
h) Zirkuituek ihesik ez dutela egiaztatu du.
i) Inguruko eta taldeko pertsonekin harreman zuzena izan du.

4. Ibilgailuaren argiztapen-sistema elektrikoen, sistema elektriko akustikoen eta beira-garbigailuen mantentze-lan oinarrizkoen eragiketak gauzatzen ditu, beren funtzionamendua interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Funtsezko magnitude elektrikoak identifikatu ditu, neurri-unitateekin erlazionatuta.
b) Funtsezko magnitude elektrikoen zirkuituen gaineko neurketak egin ditu, polimetroa erabiliz.
c) Sistemen funtzionamendu-printzipioak deskribatu ditu eta osatuta dauden multzoekin eta azpimultzoekin erlazionatu ditu.
d) Dokumentazio teknikoa eta lotutako sinbologia interpretatu ditu.
e) Ibilgailuaren argiak eta seinale-argiak desmuntatu eta muntatu ditu.
f) Ibilgailuaren klaxonak desmuntatu eta muntatu ditu.
g) Beira-garbigailuaren gomak eta motorra desmuntatu eta muntatu ditu.
h) Egindako lanen ondoren, zirkuituak eskatutako funtzionaltasuna duela egiaztatu du.

5. Ibilgailua martxan jarri aurretiko berrikuspen-jarduerak egiten ditu, xedatutako protokoloak interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Ateak eta maletategien tranpolak ireki eta ixten direla egiaztatu du.
b) Motorreko jariakinen maila eta egoera egiaztatu ditu.

c) Uhalen egoera eta tentsioa egiaztatu ditu.
d) Ohiz kanpoko soinurik edo jariakin-galerarik ez dagoela eta gurpilak erabiltzeko moduan daudela egiaztatu du.
e) Ibilgailuaren eraginkortasun-egoera egiaztatu du, direkzioari, frenoei eta indar-transmisioko sistemei eraginda.
f) Kontaktuari eragin eta gero funtzionamendu-kontrolek eta -adierazleek espero bezala erantzuten dutela egiaztatu du.
g) Sistema optikoek eta akustikoek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.
h) Konfort-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu du.
i) Hautemandako gorabeherak eta anomaliak kontrolerako xedatutako dokumentuetan idatziz adierazi ditu.

6. Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzen ditu, arriskuak eta horiei aurre hartzeko neurriak eta tresneria identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lantegiko materialak, erremintak, tresnak eta makinak manipulatzeak ekar dezakeen arrisku-maila identifikatu du.
b) Eragiketak egitean hartu beharreko segurtasun-neurriak, eta norbera eta taldea babestekoak deskribatu ditu.
c) Erabiltzen diren laneko materialak, erremintak, makinak eta tresneria manipulatzean istripuen sorburu ohikoenak zein diren identifikatu du.
d) Arriskuei aurrea hartzeko lehen faktore gisa, instalazioen eta ekipoen ordena eta garbitasuna baloratu ditu.
e) Sortutako hondakinak sailkatu ditu, gaika biltzeko.
f) Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak bete ditu.

## c) Edukiak

| 1. MOTORRAK EZAUGARRITZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.<br>- Lubrifikazio-zirkuitua osatzen duten multzoak eta azpimultzoak kokatzea.<br>- Lubrifikazio-sistemak mantentzeko lanak egitea.<br>- Hozte-zirkuitua osatzen duten multzoak eta azpimultzoak kokatzea.<br>- Hozte-zirkuituaren oinarrizko elementuak ordeztea.<br>- Ibilgailuan berotze-zirkuituaren osagaiak kokatzea.<br>- Ibilgailuaren zerbitzu-uhalak desmuntatu eta muntatzea.<br>- Airearen, gasolioaren eta zirkuitu hidraulikoaren iragazkiak kokatzea.<br>- Ibilgailuaren mantentze-lan programatuak egitea.<br>- Zirkuituen estankotasuna lortzeko junturak eta zigilatzaileak ipintzea.<br>- Motorraren koipeztatze- eta hozte-sistemen estankotasuna egiaztatzea.<br>- Motor termikoen, eta horien hozte- eta lubrifikazio-sistemen matxurak diagnostikatzea.<br>- Matxuren diagnosian bildutako datuak interpretatzea.<br>- Muntatu eta desmuntatzeko prozesuak ordenaz gauzatzea. |

| | |
|---|---|
| ontzeptuzkoak | - Motor motak.<br>- Motor termikoen osagaiak.<br>- Motorren ezaugarriak, osaera eta funtzionamendua.<br>- Motorren doikuntza egitea eta puntuan jartzea, desmuntatu eta muntatzean.<br>- Ibilgailuaren motorraren oinarrizko mantentzea.<br>- Muntatzeko eta desmuntatzeko eta programatutako mantentze-lanetarako dokumentazio teknikoa.<br>- Lubrifikazio-sistema. Funtzionamendu-printzipioa. Zirkuitua osatzen duten multzoak eta azpimultzoak.<br>- Hozte-sistema. Hozte-sistemaren osagai nagusiak. Funtzionamendu-printzipioa.<br>- Pizte-sistemak. Funtzionamendu-printzipioa. Sistemaren osagaiak.<br>- Zirkuituen estankotasuna lortzeko junturak eta zigilatzaileak maneiatu eta aplikatzean egin beharreko eragiketak.<br>- Diesel motorra berotzeko sistema. Funtzionamendu-printzipioa.<br>- Diesel motorren berotze-zirkuituaren osagaiak.<br>- Iragazkiak: airea, gasolina, gasolioa.<br>- Zerbitzu-uhalak.<br>- Matxurak diagnostikatzea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| 2. ESEKIDURA ETA IBILTZE SISTEMAK | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gurpilen eta pneumatikoen ezaugarriak interpretatzea.<br>- Gurpilak aldatzea: garraiorako ibilgailua eta autoa.<br>- Garraiorako ibilgailuen gurpilak aldatzea.<br>- Esekidura pneumatikoaren osagaiak kokatzea.<br>- Balezta-esekiduraren osagaiak kokatzea.<br>- Ibilgailuaren esekiduraren programatutako mantentze-lanak egitea.<br>- Elementu elastikoak eta indargetzekoak desmuntatu, muntatu eta doitzea.<br>- Esekiduraren funtzionamendu zuzena egiaztatzea.<br>- Dokumentazio teknikoan jasotako estutze-momentuak aplikatzea.<br>- Ibilgailuak lerrokatzea.<br>- Esku-hartzearen ondorengo funtzionamendu zuzena egiaztatzea.<br>- Gurpilen eta pneumatikoen ezaugarriak osaeraren arabera interpretatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Esekidura motak.<br>- Esekidura-sistemen osagai nagusiak. Motelgailuak eta malgukiak muntatzeko eta desmuntatzeko teknikak.<br>- Esekidura-sistemen funtzionamendu-printzipioa.<br>- Ibilgailuaren ibiltze-sistemaren funtzionamendu-printzipioa.<br>- Ibiltze-sistemaren osagaiak.<br>- Gurpil motak. Ezaugarriak. Nomenklatura. Arauak.<br>- Desmuntatzeko eta muntatzeko teknikak. Erabilitako gurpilak, ekipoak eta bitartekoak orekatzea.<br>- Lerrokatzea: direkzio-borneak. |
| | |

| | |
|---|---|
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| 3. TRANSMISIO ETA FRENO SISTEMAK | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Dokumentazio teknikoa interpretatzea.<br>- Transmisio-zirkuituaren aurretiazko mantentze-lanak egitea.<br>- Balazta pneumatikoen, elektrikoen eta atoiaren frenoen sistemaren osagaiak identifikatzea.<br>- Freno-sistemaren mantentze-lanak egitea.<br>- Ibilgailuaren eta atoiaren esku-frenoak behar bezala dabiltzala egiaztatzea.<br>- Garraiorako ibilgailuen frenoak ez blokeatzeko sistemaren osagaiak identifikatzea.<br>- Matxurak identifikatzea, abiadura-kaxa eskuzkoetan eta automatikoetan azaldutako efektuak eta sintomak aztertuta.<br>- Matxurak identifikatzea, transmisio-sistemetan azaldutako efektuak eta sintomak aztertuta.<br>- Matxurak kokatzea, gidaturiko eta gidatu gabeko bitartekoen bidez.<br>- Frenoen eta ez blokeatzeko sistemetako efektuak eta sintomak aztertzea.<br>- Matxurak kokatzea, gidaturiko eta gidatu gabeko bitartekoen bidez.<br>- Freno pneumatikoen, elektrikoen eta atoiaren frenoen sistemetako efektuak eta sintomak aztertzea.<br>- Transmisio-sistemaren osagaiak eta sistemak desmuntatzea, egiaztatzea, muntatzea eta/edo doitzea.<br>- Konponketa-prozesuetako segurtasun-arauak, laneko osasunekoak eta ingurumenekoak aplikatzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuen transmisio-sistemen multzo nagusiak: enbrageak, bihurgailuak, aldagailuak, transmisio-ardatzak, palierrak, transmisoreak, etab.<br>- Transmisio-sistemen funtzionamendu-printzipioa.<br>- Transmisio-sistema motak.<br>- Transmisio-ardatzak desmuntatzeko eta muntatzeko teknikak, kardan giltzadurak, palierrak, etab.<br>- Garraiorako ibilgailuen freno-sistemen indarrean dauden legeak.<br>- Abiadura-kaxak: eskuzkoak eta automatikoak.<br>- Freno-sistemen funtzionamendu-printzipioa: pneumatikoak, elektrikoak eta atoiarenak.<br>- Freno-sistemak konpondu, egiaztatu eta doitzeko prozesuak: zapatak, diskoak eta pastillak.<br>- Matxurak kokatzeko metodoak: gidaturiko eta gidatu gabeko bitartekoen bidez. |
| | |
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| 4. ARGIZTAPEN ETA SOINU SISTEMA ELEKTRIKO ETA BEIRA GARBIGAILUAREN SISTEMA ELEKTRIKO OINARRIZKOAK | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Ibilgailuaren argiztapen-zirkuituaren mantentze-lanak egitea.<br>- Klaxon-sistemaren mantentze-lanak egitea.<br>- Garraiorako ibilgailuaren beira-garbigailuaren gomak aldatzea.<br>- Klaxonak muntatzea eta desmuntatzea.<br>- Ibilgailuan karga-zirkuituaren osagaiak aurkitzea.<br>- Karga-sistemetan kontrolatu beharreko parametroak identifikatzea.<br>- Ibilgailuan abio-zirkuituaren osagaiak aurkitzea.<br>- Abio-sistemetan kontrolatu beharreko parametroak identifikatzea.<br>- Zirkuitu elektriko osagarrien osagaiak eta horien kokapena identifikatzea.<br>- Oinarrizko zirkuitu elektrikoen eskemak interpretatzea.<br>- Zirkuituaren funtzionaltasun zuzena egiaztatzea: haren funtzionamendu-parametroak interpretatzea.<br>- Zirkuitu elektrikoetako elementuak eta multzoak aztertzea. |
| kontzeptuzkoak | - Garraiorako ibilgailuak eduki beharreko argien gaineko legeak.<br>- Zirkuitu analogikoak eta digitalak, eta adierazgailu optikoak eta akustikoak.<br>- Garraiorako ibilgailuaren klaxonaren dezibelioen eta soinu-doinuaren gaineko legeak.<br>- Oinarrizko magnitude elektrikoak: tentsioa, intentsitatea, erresistentzia eta potentzia.<br>- Neurketa elektrikorako unitateak: volta, anperea, ohma, watta.<br>- Polimetroa, osziloskopioa eta autodiagnostikorako makina.<br>- Ibilgailuaren argiztapen-zirkuituak.<br>- Argiztapen-zirkuituen osagaiak.<br>- Sistema akustikoen funtzionamendu-printzipioa.<br>- Gidatzen laguntzeko zirkuitu elektrikoak (haizetako-garbigailua, argi-garbigailua eta beira termikoak, besteak beste):<br>- Beira-garbigailuaren eta beira-ikuzgailuaren sistemak: funtzionamendu-printzipioa.<br>- Zirkuitu elektrikoak interpretatzea ibilgailu-marka desberdinetan.<br>- Zirkuitu elektrikoen eskemak. |
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| 5. IBILGAILUA ABIARAZI AURREKO AZTERKETAK | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Ibilgailuen fabrikatzaileek xedatutako azterketak egitea zerbitzua eskaintzen hasi aurretik.<br>- Aginte-paneleko ohar-argi optikoen eta akustikoen bidez adierazten diren sistemen segurtasun optikoa eta akustikoa aztertzea.<br>- Ibilgailuaren argiztapen-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.<br>- Ibilgailuaren segurtasun- eta konfort-sistemek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzea.<br>- Azterketaren gorabehera-orriak betetzea. |

| | |
|---|---|
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuen fabrikatzaileek xedatutako zerbitzua eskaintzen hasi aurretiko azterketak.<br>- Aginte-paneleko ohar-argi optikoen eta akustikoen bidez adierazten diren sistemen segurtasun optikoaren eta akustikoaren azterketak.<br>- Argiztapen-sistemen funtzionamendua egiaztatzea.<br>- Segurtasun- eta erosotasun-sistemen funtzionamenduaren egiaztapenak.<br>- Konpondu ezean, bidaiarien eta salgaien garraio-zerbitzua eskaintzea eragozten duten anomaliak.<br>- Azterketaren gorabehera-orriak betetzeko metodoak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

| 6. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA INGURUMEN BABESA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Arriskugarritasun-maila eta arriskuak identifikatzea materialak manipulatzean.<br>- Hartu beharreko segurtasuneko eta norbera babesteko neurriak deskribatzea.<br>- Sortutako hondakinak sailkatzea.<br>- Laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Kalte ohikoenen aurrean zer jardunbideri jarraitu erabakitzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanetako arriskuak prebenitzea.<br>- Tresneriaren eta makinen erabilerari loturiko arriskuak.<br>- Lan-ingurunearen faktore fisikoak.<br>- Lan-ingurunearen faktore kimikoak.<br>- Prebentzio eta babes kolektiboa.<br>- Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea.<br>- Lantegiko seinaleak.<br>- Lantegiko edo hangarreko segurtasuna.<br>- Ingurumen-babesa eta kudeaketa.<br>- Hondakinak biltzea, hautatzea, biltegiratzea eta baztertzea.<br>- Ordena eta garbitasuna zaintzeko metodoak/arauak.<br>- Gizartearen ingurumen- eta kultura-ondarea zaindu eta babesteko balioekiko konpromiso etikoa hartzea.<br>- Mantentze-lanetan erabilitako ekipoei eta erremintei aplikatutako segurtasun-sistemak.<br>- Ingurumena babesteko arauak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Sektoreko teknologiarekiko interesa izatea.<br>- Egindako eragiketetan, laneko arriskuen prebentzioari eta ingurumen-babesari buruzko arauak betetzea.<br>- Arreta erabilitako erremintak, tresnak eta makinak kontserbatzean.<br>- Zehaztasuna eragiketak egitean.<br>- Lanak egiteko xedatutako epeekiko konpromisoa hartzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

## 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria dirudi lau aldiko Otto motorrak eta horien ziklo teorikoak eta praktikoak aztertzea. Kontzeptuzko eduki horiekin batera, egokia izango litzateke motorra desmuntatzeko, muntatzeko eta neurtzeko jarduerak egitea, baita banaketa doitzea ere, ikasleek hobeto beregana ditzaten ezagutzak.

Motorraren piezak desmuntatzeari ekin baino lehen, komeni da ikasleek eskuliburu teknikoa interpretatzeko ohitura hartzea; horrez gain, egokia da, halaber, hainbat balio irakastea, hala nola ordena, metodoa eta norberaren zein ingurumenaren segurtasuna desmuntatzeak edo muntatzeak egiteko orduan.

Jarraian, lubrifikazio-prozesua aztertuko da eta, amaitzeko, hozte-sistemei buruzko edukiak jorratuko dira. Desmuntatzeak, konponketak eta muntatzeak egingo dituzte, beharrezko funtzionamendu-prestazioak segurtasun-baldintzatan lortzeko.

Motorraren osagaiei, eta lubrifikazio- eta hozte-sistemei buruzko ezagupen orokorrak lortu ondoren, horien mantentze-lanak jorratu ahal izango dira. Fase honetan, elementuak desmuntatu, muntatu edo ordezteko jarduera praktikoekin batera, dokumentazio teknikoa eta matxuraren sorburuak aztertu beharko dira.

Aurretik aipatutako sekuentzia edo prozedura aztertutako motor mota ezberdinekin egingo da.

Ondoren, gurpilak eta pneumatikoak ikasiko dituzte: nomenklatura, ohiko higadurak, zulaketen konponketa eta gurpilak orekatzea.

Jarraian, direkzioa: direkzio-borneak, lerrokatzea, kremailera desmuntatzea eta muntatzea, direkzio-zutabea eta direkzio-giltzadura aldatzea.

Edozer osagai desmuntatzeari ekin aurretik, eskuragarri dauden ibilgailuen eskuliburuak nola erabili azalduko dugu, desmuntatzea, muntatzea eta dagokion estutze-momentua kontsultatzeko. Amaitzeko, direkzio lagunduak aztertuko dira, ponpa desmuntatu, muntatu eta purgatuta.

Horren ostean, esekidurei, transmisioei, freno-sistemei eta elektrizitateari buruzko edukiak aztertuko dituzte. Honako hurrenkera honi jarraiki irakatsiko dira eduki horiek:

- Esekidurak; esekidura mota ohikoenak, bihurdura-barrak zein egonkortze-barrak aztertzea eta IAT aurretiko azterketak egitea.
- Transmisio-sistemak.
- Enbragea aztertzea; desmuntatzea eta aldatzea.
- Abiadura-kaxa aztertzea, abiadura-kaxa bat desmuntatu eta muntatuta.
- Transmisio-sistemen matxurak aurkitzea.
- Transmisio-sistema mantentzea. Olio-mailak, gurutzetak koipeztatzea eta palierreko hauts-babesa aldatzea.
- Freno-sistemak:
  - Etengailu pneumatikozko freno-sistema.
  - Etengailu hidraulikozko freno-sistema.
  - Ponpatxoak, pastillak eta zapatak aldatzea, eta frenoak purgatzea.
  - Freno-sistemen matxurak aurkitzea.
  - Freno-sistema mantentzea.

- Sistema elektrikoak: hasieran komenigarria dirudi ikasleek behar bezala barneratzea elektrizitatearen printzipioak eta legeak; horretarako, elementu elektriko oinarrizkoenak erabilita, hala nola, erresistentziak eta elikatze-iturriak.

Jarraian, arian-arian, gainerako elementu elektrikoak sartuko ditugu, besteak beste, automozioak asko erabiltzen diren erresistentzia aldakorrak, kondentsadoreak, harilak, transformadoreak, erreleak, etab.; horien sinbologia eta funtzionaltasuna, eta dagozkien parametroak eta arauak aztertuta. Amaitzeko, honako zirkuitu hauetan mantentze-lanak egitea proposatzen da:

- Argiak, seinaleak, akustikoak eta argibidea edo kontrola; jarraian, haizetako-garbigailuen, beira termikoen... zirkuituak, eta, azkenik, datuak komunikatzeko sare bat partekatzen edo osatzen duten zirkuituak. Matxurak aurkitzea eta konpontzea jorratzeko orduan ere, arian-arian handitu beharko litzateke zailtasuna, zirkuituen konplexutasuna zein horien osagaietan matxurak gertatzeko aukera kontuan hartuta.

Amaitzeko, komeni da ikasleek azterketa-planak egitea hainbat ibilgailutan, eta bertan kurtsoan zehar irakatsitako guztiaren praktikak sartzea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Jarduera praktikoei dagokienez, kurtsoaren hasieran zehaztuko dira ebaluazio-irizpideak; hauek hartu beharko dituzte kontuan irizpide horiek: ezagutzak, trebetasuna, txukuntasuna, segurtasun-bitartekoak behar bezala erabiltzea, eskuliburuak erabiltzea eta praktikak egiteko denbora.

Talde-lana bultzatzen saiatuko gara. Horretarako, lantaldeak diseinatzeko garaian, ezagutza-maila eta kezka desberdinak dituzten ikasleak taldekatuko dira.

Irakasleak gertutik egin beharko du ikasle bakoitzaren ikasteko prozesuaren segimendua. Horretarako, praktika-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak sistematikoki erregistratu beharko ditu, praktika bakoitza kontrolatu eta ebaluatuta.

Bidezkotzat jotzen da kontzeptuzkoagoak diren edukien azalpenekin batera jarduera praktikoak egitea, ikasleek hobeto barnera ditzaten eskuratu beharreko ezagupenak. Ahal izanez gero desmuntatutako elementuak edo desmuntatutako elementuen zatiak erabiliko ditugu horretarako.

Ikasleek piezak desmuntatu eta muntatzeko garaian, honako lan-prozesu hau irakastea gomendatzen da:

- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
- NBEak erabiltzea.
- Ordena elementu guztiak desmuntatzeko orduan (baita horiek garbitzean ere, hala badagokio), non dauden idatziz jasota eta torloju eta azkoin guztiak ordenatuta edukita.
- Elementu guztiak neurtzea, beharrezkoa bada, eta muntatzea.
- Dokumentazio teknikoan jasotako estutze-momentuak aplikatzea.
- Funtzionamendu zuzena egiaztatzea.

Laneko arriskuen prebentzioa zeharka tratatzea gomendatzen da, ikasteko jarduerak muntatu eta desmuntatzeari buruzko unitate didaktiko guztietan ager daitezen. Halaber, ingurumenaren babesarekin loturiko edukiak ere landuko dira.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Jarduerak planifikatzea, eta lanpostua ordenatuta eta garbi edukitzea:
- Arauak aplikatzea eta dagozkion segurtasun-ekipoak erabiltzea.
- Desmuntatzeko eta muntatzeko eragiketak egitea.
- Motor bat ibilgailuan bertan desmuntatu eta muntatzea.

✓ Motorraren elementuak egiaztatzea:
- Matxurak identifikatzea.
- Koipeztatzeko eta lubrifikatzeko sistema egiaztatzea.
- Ibilgailu baten hozte- eta lubrifikazio-sistema egiaztatzea.
- Ibilgailu baten koipeztatze- eta hozte-zirkuituak mantentzea.
- Sortutako hondakinak sailkatu, birziklatu eta biltegiratzea.

✓ Banaketa-uhal mota ezberdinak muntatzeko eta desmuntatzeko prozesuak gauzatzea ibilgailu baten eta banku baten gainean:
- Zulatzeak hainbat sistema erabiliz konpontzea.
- Gurpilak desmuntatzea, muntatzea eta orekatzea.
- Dagokion estutze-momentua aplikatzea.
- Pneumatikoetako higadura-diagnosia.
- Erabilitako produktuak birziklatzea.

✓ Esekidura-sistemak mantentzea:
- Lasaierak egiaztatzea.
- Esekidura-sistemako matxuren diagnosia egitea.
- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
- Desmuntatu, muntatu eta erregulatzeko prozesurako beharrezkoak diren berariazko baliabideak, erremintak eta tresneria hautatzea.
- Esekidura osatzen duten elementuak desmuntatzea, aldatzea edo muntatzea.
- Dagokion estutze-momentuak aplikatzea.
- Funtzionamendu zuzena egiaztatzea.
- Erabilitako produktuak birziklatzea.

✓ Direkzio-sistemak mantentzea:
- Lasaierak egiaztatzea.
- Direkzio-sistemako matxuren diagnosia egitea.
- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
- Desmuntatu, muntatu eta erregulatzeko prozesurako beharrezkoak diren berariazko baliabideak, erremintak eta tresneria hautatzea.
- Egiaztatu beharreko sistema edo elementua, ibilgailuan, identifikatzea.
- Direkzioa osatzen duten elementuak desmuntatzea, aldatzea edo muntatzea.
- Matxuren kausak identifikatzea.
- Dagokion estutze-momentua aplikatzea.
- Ibilgailua lerrokatzea.

✓ Laneko arriskuen prebentzioa eta ingurumen-babesa:
- Erabilitako produktuen segurtasun-fitxak interpretatzea.
- Elektromekanikaren arloko ohiko arriskuak identifikatzea.
- Kalteren bat pairatuz gero nola jokatu behar den identifikatzea.
- Norbera babesteko ekipamendua erabiltzea eta mantentzea.

✓ Transmisio-sistemak mantentzea:
- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.

- Enbragea, momentu-bihurgailuak eta abiadura-kaxa automatikoak eta eskuzkoak.
- Matxurak lagundutako eta lagundu gabeko metodoen bitartez identifikatzea, eta ondorioak eta/edo sintomak aztertzea.
- Transmisio-sistemei lotutako organoen eta elementuen gainean desmuntatzeko, egiaztatzeko, muntatzeko eta/edo doitzeko prozesuak egitea.
- Konpondutako sistemak behar bezala funtzionatzen duela egiaztatzea.

✓ Freno-sistemak mantentzea:
- Dokumentazio teknikoa interpretatzea.
- Balazta pneumatikoen, elektrikoen eta atoiaren frenoen sistemaren osagaiak identifikatzea.
- Matxurak lagundutako eta lagundu gabeko bideen bitartez identifikatzea, eta ondorioak eta/edo sintomak aztertzea.
- Freno-sistemei lotutako organoen eta elementuen gainean desmuntatzeko, egiaztatzeko, muntatzeko eta/edo doitzeko prozesuak egitea.
- Freno-sistemak egiaztatzea eta doitzea.
- Konponketa-prozesuetako segurtasun-arauak, laneko osasunekoak eta ingurumenekoak aplikatzea.

✓ Zirkuitu elektrikoak osatzen dituzten elementuen eta multzoen funtzionaltasuna eta osaera ezagutzea:
- Ibilgailuan zirkuitu elektriko lagungarriak osatzen dituzten elementuak identifikatzea eta aurkitzea:
- Argi-zirkuitua.
- Seinale- eta maniobra-zirkuitua.
- Kontrol- eta ohar-zirkuitua.
- Beira-garbigailuaren eta abarren zirkuitua.
- Zirkuituetako elementuak eta multzoak deskribatzea.

✓ Sistema elektriko lagungarrien matxurak aurkitzea:
- Beharrezko dokumentazio teknikoa hautatu eta interpretatzea.
- Egiaztatu beharreko sistema edo elementua, ibilgailuan, identifikatzea.
- Neurtzeko ekipo egokiak erabiltzea.
- Matxuren kausak azaltzea.

# 8. lanbide-modulua
# LEHEN LAGUNTZAK

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Lehen laguntzak** |
| Kodea: | 0020 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 66 ordu |
| Kurtsoa: | 1 |
| Irakasleen espezialitatea: | Osasun- eta laguntza-prozedurak<br>Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Irakasle espezialista |
| Modulu mota: | Tituluaren profilari lotutako modulua. |
| Helburu orokorrak: | 1 / 2 / 13 / 14 / 20 / 21 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
b) Istripua izan duten pertsonak manipulatzean norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
c) Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien indikazioak deskribatu ditu.
d) Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
e) Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
f) Aireztatzeko/oxigenatzeko funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
g) Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
h) Konorte-maila egiaztatzeko prozedurak deskribatu ditu.
i) Bizi-konstanteak hartu ditu.
j) Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatu du.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
i) Premiazko patologia organikoen aurrean lehen laguntzak aplikatu ditu.
j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.
f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarrizko estrategiak deskribatu ditu.
b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarrizko teknikak aplikatu ditu.
d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.

## c) Edukiak

| 1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | – Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea.<br>– Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. |

| | |
|---|---|
| | – Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea.<br>– Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta jardun-lehentasunak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea.<br>– Istripua izan duen pertsonaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzea. Bizi-konstanteak hartzea.<br>– Adibidez, bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera jardun-sekuentzia identifikatzea.<br>– Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | – Larrialdietarako sistemak.<br>– Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak).<br>– Istripuak. Motak eta ondorioak.<br>– Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak.<br>– Terminologia mediko sanitarioa lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak.<br>– Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak. Triaje sinpleko metodoak.<br>– Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zeinuak pertsona helduarengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zeinuak eta -sintomak.<br>– Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea.<br>– Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala.<br>– Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipoak.<br>– Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak. |
| | |
| jarrerazkoak | – Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloei zorrotz jarraitzea.<br>– Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna eragiteko gogoa eta sosegua erakustea.<br>– Bere jardunaren mugez jabetzea. |

## 2. BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA

| | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | – Bizi-arriskuko egoerak aztertzea.<br>– Bizi-zeinuen presentzia identifikatu eta egiaztatzea.<br>– Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea.<br>– Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako xedatutako jardun-protokoloekin lotzea.<br>– Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea.<br>– Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea.<br>– Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea.<br>– Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea.<br>– Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. |

| | |
|---|---|
| | – Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea.<br>– Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak. |
| | |
| kontzeptuzkoak | – Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentze-lanak.<br>– Bihotz-biriketako oinarrizko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin.<br>– Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedura. Legeak. Ziurtapenak.<br>– Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-zeinuak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak.<br>– Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak).<br>– Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan.<br>– Hasierako arreta premiazko patologia organikoan.<br>– Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea.<br>– Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea. |
| | |
| jarrerazkoak | – Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.<br>– Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.<br>– Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna eragiteko gogoa eta sosegua erakustea.<br>– Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan.<br>– Bere jardunaren mugez jabetzea. |

## 3. IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA

| | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | – Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko teknikak aplikatzea.<br>– Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea.<br>– Immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatzea (hala nola, ferulak eta ohatilak). |
| | |
| kontzeptuzkoak | – Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Indikazioak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak.<br>– Lekualdatzeko beharra ebaluatzea.<br>– Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Indikazioak.<br>– Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak. |
| | |
| jarrerazkoak | – Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean.<br>– Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan.<br>– Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko arauei zorrotz |

| | |
|---|---|
| | jarraitzea.<br>– Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna eragiteko gogoa eta sosegua erakustea. |

| 4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea.<br>– Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarrizko teknikak aplikatzea.<br>– Autokontroleko eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea.<br>– Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatzea. |
| kontzeptuzkoak | – Oinarrizko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak.<br>– Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen eginkizuna baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak.<br>– Laguntza psikologikorako oinarrizko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak. |
| jarrerazkoak | – Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna eragiteko gogoa eta sosegua erakustea.<br>– Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena.<br>– Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honen edukiak hurrenkera honi jarraituta irakastea gomendatzen da:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BAS (babestea, abisatzea eta sorostea).
- Lehen esku-hartzailea, bere jardunaren mugak, esparru etikoa, beste profesionalekiko harremana...
- Segurtasuna eta autobabesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zeinuak eta sintomak, esplorazio-protokoloak, bizi-konstanteei erreparatzea, eta abar.
- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBB, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatzeko eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrera.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoak, zauriak eta odoljarioak daudenean.
- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan (adibidez, beste eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek zein patologia organikoak eragindakoak).

- Komunikatzeko zein laguntza psikologikoa eta autokontrolekoa emateko teknikak aplikatzea.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleek ikasitako teknikak larrialdi-egoeretan aplikatzeko gauza izatea, horrenbestez ezinbestekoa da praktikoki garatzea. Hala,ikasgelan lehen laguntzetako teknikak modu praktikoan aplikatuko dira behar bezalako ezaugarriak dituzten egoeretan.

Egoera horien ezaugarria zehazteko, arlo profesionala har daiteke erreferentziatzat, era horretan gehien gertatzen diren egoerak aurkezteko. Hainbat aldaketa egin daitezke esku hartzen duten pertsonei edota horien adinari edo ezaugarriei, istripuaren tokiari, eta abarrei dagokienez. Planteatutako egoerari zein aplikatutako teknikari buruz azterketa eta gogoeta egitea garrantzitsua izango da ikaskuntza horiek orokortzearren.

Eduki teorikoek bigarren mailako funtzioa dute; hortaz, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren neurrian erantsiko dira. Nolanahi ere, bigarren mailako eginkizun hori gorabehera, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, eta, era horretan, teknikak praktiketan jorratu ez diren beste egoera batzuetan aplikatu ahal izateko eta informazioa helarazi ahal izateko edota larrialdiak koordinatzeko zentro baten jarraibideei jarraitzeko.

Lehen laguntzak emateko egoera batekin lotuta ikasiko dira eta, oro har, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran. Aurkezteko sistemak, azalpenezko metodoak adibidez, eta metodo askoz parte-hartzaileagoak erabil daitezke, hala nola ariketak ebaztea, eskemak prestatzea..., betiere ikasleen parte-hartzea eta jakin-mina lortzeko.

Ikasteko materiala, batetik, lehendik prestatutakoa izan daiteke (apunteak, aldizkariak edo eskuliburuen bat), eta beste kasu batzuetan ikasleek beraiek presta dezakete material hori, bibliografia edo aplikazio informatikoak aplikatuta. Ikasleak ohitu behar dira laneko protokoloak eta jarraibideak erabiltzera, eta horiei behar bezala eta zehaztasunez jarraitzera. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon beharra dago (ILCOR, esaterako), maiz berritzen baitituzte.

Jarduera praktikoak egiteko, honako bitarteko hauek behar dira: lehen laguntzetako manikiak (helduak, umeak eta bularreko umeak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipoak, sendatzeko materiala, immobilizatzeko materiala eta mobilizatzeko materiala, eta ikastetxeko hainbat gune erabil daitezke, besteak beste, ikasgelak, patioak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen edo beste ikaskide batzuen jardunak, iruditan hartuta, azter daitezke; hala, zer osasun-arreta eman duten ikusi ondoren, hobekuntzak proposa daitezke edo interesgarriena nabarmen daiteke.

Ezinezkoa da lehen laguntzak emateko egoera guztiak praktiketan garatzea (adibidez, eragile fisiko, kimiko edo biologiko guztiek zein patologia organikoak eragindakoak). Hainbat egoera aukera daitezke, maizen gertatzen direnak edo larrienak esaterako, ikasleek jarduteko oinarrizko gaitasunak gara ditzaten (hala nola sintoma batzuk ezagutzea, laguntza ematen hastea, telefonoz harremanetan jartzea larrialdiak koordinatzeko zentroarekin, informazioa ematea eta jarraibideei jarraitzea).

Laguntza psikologikoarekin eta komunikatzeko teknikekin lotutako edukiak ohikoak dira oso ikasketa-planetan. Horiei heltzeko, ikasleen aurretiko ezagutzak hartu behar dira oinarritzat, eta aurretik ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handien duen atala aztertuko da. Taldeko teknikak egin daitezke (*role-playing*, kasu-azterketak...) ikasleek nola jokatzen duten ikusteko eta trebetasunak ager ditzaten.

Modulu honetan lortutako gaitasun batzuk oso egoera txarretan aplikatu beharko dira (presa, nerbioak...); horregatik, ongi finkatu behar dira oinarrizko edukiak eta eduki garrantzitsuenak (jardunaren sekuentziazioa, BBB, autobabesa...). Moduluaren amaieran ikasitakoa berrikusteko denbora bat ezar daiteke; bertan askotariko egoerak presta daitezke, unitate didaktiko guztien edukiekin lotuta, era horretan ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatzeko.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓Jarduteko BAS protokoloa aplikatzea hainbat egoeratan. Gunea eta istripua izan duena babestea. Abisatzea eta informazioa igortzea. Sorospen-neurriak hastea.

✓Norberaren arriskuak identifikatzea, eta istripu-kasu ezberdinetako prebentzio-neurriak erabiltzea.

✓Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko osagaiak identifikatzea. Produktuen zerrendak prestatzea, baita horiek erabiltzeko arauak biltzen dituzten agiriak ere. Sendaketak egitea.

✓Laguntzaren hasierako balorazioa egitea hainbat egoeratan. Zantzuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jarduera-protokoloa identifikatzea.

✓Lehen laguntzetako hainbat teknika aplikatzea. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBB egitea. Aire-bideei erreparatzea. Kanpoko desfibriladore automatikoa erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.

✓Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatzea eta transmititzea.

✓Laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea.

✓Taldeko tekniketan parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.

✓Laneko dependentziak eta egoerak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon daitezkeen arriskuak zehaztea.

✓Larrialdietako egoerak aztertzea zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.

✓Jarduteko idatzizko eta ahozko protokoloak interpretatzea.

# 9. lanbide-modulua
# INGELESA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Ingelesa** |
| Kodea: | 0156 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 168 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Ingelesa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | 9 / 12 / 16 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Hizkuntza estandarrean igorritako ahozko diskurtsoetako informazio profesionala eta egunerokoa ulertzen du, mezuaren eduki globala aztertu eta dagozkion hizkuntza-baliabideekin erlazionatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mezua testuinguruan kokatu du.
b) Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
c) Bizitza profesionalaren eta eguneroko bizitzaren eguneroko alderdiekin erlazionatutako mezuetan informazio espezifikoa atera du.
d) Mezua osatzen duten elementuak sekuentziatu ditu.
e) Komunikabideek transmititu, hizkuntza estandarrean igorri eta garbi artikulatutako mezu ezagunei buruzko diskurtso baten ideia nagusiak identifikatu ditu.
f) Ahozko argibideak ezagutu ditu eta adierazpenei jarraitu die.
g) Mezu bat bere elementu guzti-guztiak ulertu gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.

2. Idatzizko testu errazetan bildutako informazio profesionala interpretatzen du, eta haien edukiak osorik aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontsulta-materialak eta hiztegi teknikoak hautatu ditu.
b) Hizkuntza estandarrean idatzitako testu argiak modu ulerkorrean irakurri ditu.
c) Mezuaren eduki globala interpretatu du.
d) Aztergai duen sektorearen esparruarekin erlazionatu du testua.
e) Erabilitako terminologia identifikatu du.

f) Hizkuntza estandarrean idatzitako testuen itzulpenak egin ditu, eta, beharrezkoa izan denean, laguntza-materiala erabili du.
g) Euskarri telematikoen bitartez (e-posta, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.

3. Ahozko mezu garbi egituratuak igortzen ditu, eta agente aktibo bezala parte hartzen du elkarrizketa profesionaletan.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Mezua igortzeko erabilitako erregistroak identifikatu ditu.
b) Formulak, loturak eta elkarreragin-estrategiak erabilita komunikatu da.
c) Aurkezpenetan protokolo-arauak erabili ditu.
d) Bere lanbidearekin erlazionatutako gertaera laburrak eta ezustekoak deskribatu ditu.
e) Lanbidearen berezko terminologia zuzen erabili du.
f) Sentimenduak, ideiak edo iritziak adierazi ditu.
g) Zeregin profesionalaren jarduerak zerrendatu ditu.
h) Bere konpetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
i) Egindako proposamenak ontzat ematea edo ez justifikatu du.
j) Lanerako aukera edo prozedura jakin bat hautatzea argudiatu du.
k) Beharrezkotzat jo duenean diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.

4. Testu errazak hizkuntza estandarrean lantzen ditu, eta gramatika-arauak haien xedearekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Eguneroko eta/edo lanbideko alderdiekin erlazionatutako testu laburrak idatzi ditu.
b) Informazioa koherentziaz eta kohesioz antolatu du.
c) Bere lanbide-ingurunearekin erlazionatutako testuen laburpenak egin ditu.
d) Dagokion lanbide-esparruko dokumentazio espezifikoa bete du.
e) Dokumentuak betetzerakoan, xedatutako formulak eta hiztegi espezifikoa aplikatu ditu.
f) Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
g) Landu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.

5. Komunikazio-egoeretan, jarrera eta portaera profesionalak aplikatzen ditu, eta atzerriko hizkuntzek dituzten berezko erlazio tipikoak deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
b) Herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
c) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoaren berezko balio eta sinesmenak identifikatu ditu.
d) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
e) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.

## c) Edukiak

## 1. AHOZKO MEZUAK ULERTZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea.<br>– Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea.<br>– Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.<br>– Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak. |
| kontzeptuzkoak | – Jatetxe-arloaren sektoreko terminologia espezifikoa.<br>– Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatibozko perpausak, zehar-estiloa, eta bestelakoak.<br>– Ahozko hizkeraren azentu desberdinak. |
| jarrerazkoak | – Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzea.<br>– Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. |

## 2. IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Mezuak, testuak, eta oinarrizko artikulu profesionalak eta egunerokoak ulertzea.<br>– Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea.<br>– Erlazio logikoak ezagutzea: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza.<br>– Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. |
| kontzeptuzkoak | – Euskarri telematikoak: faxa, e-posta, burofaxa. |
| jarrerazkoak | – Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea.<br>– Beste kultura batzuen alderdi profesionalekiko interesa erakustea. |

## 3. AHOZKO MEZUAK SORTZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea.<br>– Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak.<br>– Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa.<br>– Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea.<br>– Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adeitasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. |
| kontzeptuzkoak | – Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarteak. |
| jarrerazkoak | – Informazio-trukean bete-betean parte hartzea.<br>– Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea.<br>– Hizkuntza bakoitzaren berezko adeitasun-arauak eta erregistro- |

| | |
|---|---|
| | desberdintasunak errespetatzea. |

| 4. IDATZIZKO TESTUAK IGORTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea.<br>– Testua komunikazio-testuingurura egokitzea.<br>– Puntuazio-markak erabiltzea.<br>– Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea.<br>– Testu koherenteak lantzea. |
| kontzeptuzkoak | – Hizkuntzaren erregistroak. |
| jarrerazkoak | – Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea errespetatzea.<br>– Testuaren garapenean, koherentziaren premia baloratzea. |

| 5. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | – Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea.<br>– Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan, baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea. |
| kontzeptuzkoak | – Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen kultura-elementu esanguratsuenak. |
| jarrerazkoak | – Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokolokoak balioestea.<br>– Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, multzo horiekin hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko gaitasunak lortzeari lehentasuna emango diena.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk

dakartza eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoek eta sintaktikoek ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarrizko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamena eta idazmena garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea oso baliagarria izango da ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera. Horrek guztiak osatuko ditu programazioan ageriko diren unitate didaktikoak, dagokien tenporalizazioa barne.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek beren ikasteko ahalmenak sendotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta beren lanpostuetan daudenean sortzen zaizkien arazoak beren kabuz konpontzeko gaitasuna izan dezaten. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-gaitasun batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneizatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako, beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan. Ziklo honetan garrantzi berezia ematen zaio ahozko hizkuntzari, lanbide-egoerek horrela eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Lehentasuna emango zaio mezuaren ulermenari zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jarioa azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira eta. Kasu bakoitzean garrantzi berezia emango zaie hizkuntza egokitzeari zein erregistro ezberdinak erabiltzeari.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak (ahal dela ingelesak) bisitatuz edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-ingurunetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionalei.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (kartak, fakturak, gidak, liburuxkak eta abar), eta web orri ingelesak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitutako hainbat motatako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berria, eta abar) eskaini behar dira.

Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa, etab.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzaile eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezen. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatuko dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Lehentasunez, ahozko hizkuntza erabiltzea lanbide-ingurunearekin lotutako materialetan: telefono-deiak erreserbak egiteko; zenbakiak, datak, orduak praktikatzea; establezimendua espazioan kokatzea, erreserbatutako mahaia, iristeko modua, garraioa, aparkalekua, eta abar.
- ✓ Ingelesezko materialak aztertzea eta, ondoren, karta, menua zein edariak prestatzea eta ahoz aurkeztea, hitz eta adjektibo kalifikatzaile egokiak erabilita.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, azalpen zehatzak.
- ✓ Hiriari buruzko informazio laburrak; hauek aurkitzea: dendak, farmaziak, udaletxea, polizia, kirol-zentroak, eta abar.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaitengatik, mandatu bat uzteko; ekitaldietarako gonbidapenak, bidaiak, egin beharreko zereginak, sortutako arazoak... zehazteko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitaea aurkeztea motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea eta abar.
- ✓ Faktura / ordainketa-oharra aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Publizitate txikia / argazkiak prestatzea hauen gainean: establezimendua, produktuak, establezimenduan bezeroari eskainitako jarduerak.
- ✓ Arreta ematea bezeroen erreklamazio sinpleei.

- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bideoz grabatzea, geroago aztertzeko.

- ✓ Beste modulu batzuetako irakasleekin koordinatzea, bai gaiei bai eskuragarri dagoen materialei dagokienez, alde soziokulturalen eta protokolozkoen konparazio-analisi bat eskaini ahal izateko, horrelakorik egonez gero.

# 10. lanbide-modulua
# LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Laneko prestakuntza eta orientabidea** |
| Kodea: | 1211 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 105 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | 11 / 14 / 21 |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatzeko aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
b) Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
c) Profilari lotutako jarduera profesionalerako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zein diren zehaztu ditu.
d) Tituludunarentzako lanerako eta lan-munduratzeko hobi nagusiak identifikatu ditu.
e) e) Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak azaldu ditu.
f) Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako hautabideak aurreikusi ditu.
g) Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Profilari lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lantaldeak identifikatu ditu.
c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak zer ezaugarri dituen zehaztu du.

d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
g) Gatazkak konpontzeko prozedurak azaldu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta gaitasuna dauka horiek lan-kontratuetan aurkitzeko.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
b) Enpresaburuen eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zein diren zehaztu ditu.
d) Kontratazio modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak xedatutako neurriak baloratu ditu.
f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
g) Soldata-ordainagiria aztertu du, eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak azaldu ditu.
j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du, eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) ) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuaren eta langilearen irudiak dituen betebeharrak identifikatu ditu.
e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langilearen eta enpresaburuaren irudiari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak azaldu ditu.
h) Oinarrizko kontribuzio mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneko lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.

e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikatutako agente guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebehar nagusiak zehaztu ditu.
b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauetan xedatutako irizpideen arabera.
c) Arriskuen prebentzioari dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak azaldu ditu.
d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
g) Sektoreko enpresa baten larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen laguntzetako oinarrizko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.

## c) Oinarrizko edukiak

| 1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZITZA OSOAN IKASTEKO PROZESUA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea.<br>- Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea.<br>- Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea.<br>- Norberaren ibilbidea planifikatzea:<br>▪ Beharrekin eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea.<br>▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko errealistak eta koherenteak. |

| | |
|---|---|
| | - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norberak egiaztatzeko zerrenda bat ezartzea.<br>- Lan-munduratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitaea...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak.<br>- Erabakiak hartzeko prozesua.<br>- Sektoreko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua.<br>- Europan ikasi eta enplegatzeko aukerak. Europass, Ploteus. |
| | |
| jarrerazkoak | - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea.<br>- Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea.<br>- Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea.<br>- Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea.<br>- Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea. |

| 2. GATAZKA ETA LANTALDEAK KUDEATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Antolakundea pertsona talde gisa aztertzea.<br>- Antolamendu-egiturak aztertzea.<br>- Kideek lantaldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea.<br>- Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea.<br>- Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea.<br>- Gatazkak ebazteko moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea.<br>- Lantaldeen sorrera aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeko pertsona-talde gisa.<br>- Talde motak sektoreko industrian, dituzten eginkizunen arabera.<br>- Lantaldeen sorrera aztertzea.<br>- Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeko oinarrizko elementu gisa.<br>- Lantalde eraginkorraren ezaugarriak.<br>- Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak.<br>- Gatazkak ebazteko edo ekiditeko metodoak: bitartekaritza, adiskidetzea eta arbitrajea. |
| | |
| jarrerazkoak | - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea.<br>- Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea.<br>- Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea.<br>- Lantaldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea.<br>- Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea. |

| 3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea.<br>- Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen |

| | |
|---|---|
| | diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea.<br>- Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera.<br>- Nomina interpretatzea.<br>- Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa.<br>- Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak.<br>- Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak.<br>- Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak).<br>- Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzeak, soldata-bermeak.<br>- Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa.<br>- Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea.<br>- Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeko eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera.<br>- Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa.<br>- Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana... |
| | |
| jarrerazkoak | - Lana arautzeko beharra baloratzea.<br>- Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa izatea.<br>- Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea.<br>- Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez.<br>- Gizartea hobetzeko agente gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea. |

| 4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea.<br>- Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak.<br>- Enpresaburuen eta langileen betebehar nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa.<br>- Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena.<br>- Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua.<br>- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. |

| | |
|---|---|
| | - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea. |

## 5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea.<br>- Arrisku-faktoreak aztertzea.<br>- Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea.<br>- Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea.<br>- Lanbide-eginkizunaren araberako arrisku-protokoloa ezartzea.<br>- Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea. |
| kontzeptuzkoak | - Arrisku profesionalaren kontzeptua.<br>- Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarrizko elementu gisa.<br>- Profilari lotutako lan-ingurunearen berariazko arriskuak.<br>- Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak. |
| jarrerazkoak | - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia.<br>- Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea.<br>- Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea.<br>- Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea. |

## 6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

| | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarrizko prebentzio-tresna gisa.<br>- Laneko Arriskuen Prebentzioari (LAP) buruzko oinarrizko araua aztertzea.<br>- Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) arloko egitura instituzionala aztertzea.<br>- Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea.<br>- Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea. |
| kontzeptuzkoak | - Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak.<br>- Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.<br>- Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan.<br>- Laneko Arriskuen Prebentzioan (LAP) eta osasunean esku hartzen duten agenteak, eta horien eginkizunak.<br>- Prebentzioaren kudeaketa enpresan.<br>- Langileen ordezkaritza prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria).<br>- Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak.<br>- Prebentzioaren plangintza enpresan.<br>- Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan. |
| jarrerazkoak | - Laneko Arriskuen Prebentzioaren (LAP) garrantzia eta beharra baloratzea.<br>- Laneko arriskuen prebentzioko (LAP) eta laneko osasuneko (LO) |

| | |
|---|---|
| | agente gisa duen posizioa baloratzea.<br>- Erakunde publikoek eta pribatuek laneko osasunean (LO) errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea.<br>- Dagokion kolektiboaren larrialdi-planei buruzko ezagutza baloratu eta zabaltzea. |

| 7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA | |
|---|---|
| | |
| prozedurazkoak | - Norbera babesteko teknikak identifikatzea.<br>- Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaian enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea.<br>- Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.<br>- Larrialdi-egoerak aztertzea.<br>- Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea.<br>- Langileen osasuna zaintzea. |
| | |
| kontzeptuzkoak | - Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak.<br>- Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa.<br>- Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak.<br>- Seinale motak. |
| | |
| jarrerazkoak | - Larrialdien aurreikuspena balioestea.<br>- Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea.<br>- Proposatutako jardueretan bete-betean parte hartzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratze ibilbidearen logikan oinarritzen da; hau da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

a) Lana bilatzea.
b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
c) Lanpostuan jardutea.
d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO moduluaren hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, honako gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein suposiziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantza: prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko gaitasunak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

## 2) Alderdi metodologikoak

Hasiera batean, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, betiere hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen partaidetza eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak... erabil daitezke aldeen portaerak eta arazoen konponbideak aztertzeko.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatuetako ordezkariak, lan-arloko abokatuak, eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea eta abar. Horretarako, erakundeen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak eta abar. Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarrizko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, esaterako: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktiko bat aurrera eramatea eta ikasleek benetako enplegu-bilaketa egitea simulatzea: horretarako normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculuma, aurkezpen-gutuna) eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-eskaintzak aukeratuko dituzte.

### 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Erreferentziazko produkzio-sektorea deskribatzea:
- Erreferentziazko produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
- Sektorean enplegatzeko aukerak identifikatzea.
- Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.

✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
- Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
- Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
- Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).

✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
- Lantaldeen tipologia identifikatzea.
- Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.

✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
- Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
- Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.

✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
- Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.

✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
- Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
- Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
- IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
- Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.

## 11. lanbide-modulua
## ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

### a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Enpresa eta ekimen sortzailea** |
| Kodea: | 1212 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 63 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | 21 / 22 / 23 / 24 |

### b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako gaitasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta gizabanakoen ongizatearekin duen lotura identifikatu du.
b) Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
c) Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
d) Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enplegatuaren lanerako ekimena aztertu du.
e) Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
f) Jarduera ekintzaile ororen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
g) Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasunaren gaineko merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.

b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak azaldu ditu.
f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomenoa eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten balantze soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du, eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako sistemaren kontzeptua aztertu du.
b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila azaldu du.
h) Enpresen forma juridikoetarako ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.
b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak azaldu ditu.
d) Zerga-egutegian zerga motak bereizi ditu.

e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

## c) Oinarrizko edukiak

| 1. EKIMEN SORTZAILEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak aztertzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.).<br>- Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak aztertzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza.<br>- Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea. |
| kontzeptuzkoak | - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa.<br>- Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa.<br>- Enpresaburuaren kontzeptua.<br>- Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa.<br>- Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa.<br>- Ekintzaileen arteko lankidetza.<br>- Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak.<br>- Negozio-ideia lanbide-arloaren esparruan.<br>- Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan. |
| jarrerazkoak | - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea.<br>- Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa. |

| 2. ENPRESA ETA BERE INGURUNEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea.<br>- Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea.<br>- Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra aztertzea.<br>- Lanbide-arloko ereduzko enpresa bat aztertzea.<br>- Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea.<br>- Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea.<br>- Erabakitako ideiaren gainean berrikuntza-ariketak egitea. |
| kontzeptuzkoak | - Enpresaren betebeharrak bere inguru propioarekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasangarria).<br>- Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.<br>- Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa.<br>- Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak. |
| jarrerazkoak | - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea.<br>- Genero-berdintasuna errespetatzea.<br>- Enpresa-etika baloratzea. |

| 3. ENPRESA BAT SORTZEA ETA ABIAN JARTZEA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika.<br>- Produkzio-plana prestatzea.<br>- Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea.<br>- Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea.<br>- Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua. |
| kontzeptuzkoak | - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak.<br>- Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak.<br>- Zerga arloa enpresetan.<br>- Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (ogasuna eta gizarte-segurantza, besteak beste).<br>- Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak.<br>- Enpresaren jabeek duten erantzukizuna. |
| jarrerazkoak | - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorroztasunez ebaluatzea.<br>- Administrazioko eta legezko izapideak betetzea. |

| 4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA | |
|---|---|
| prozedurazkoak | - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea.<br>- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.<br>- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab. |
| kontzeptuzkoak | - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak.<br>- Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa.<br>- Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak).<br>- Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak. |
| jarrerazkoak | - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea.<br>- Administrazioko eta legezko izapideak betetzea. |

## d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

### 1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren

ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-ideia garatzen jarraituko dugu: merkatu-azterketa egin, negozio-ideia jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu, eta ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenekotik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo dugu. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk aztertuko ditugu (marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa, eta abar).

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarrizko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

## 2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenei buruzko sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailetza-gaitasunak bereganatzearren.

Ikasleek proiektuan aurrera egiten duten heinean, irakasleak beharrezko ezaguerak helaraziko dizkie azalpenen edo gelan garatutako jardueren bitartez, edo liburu edo artikulu jakin batzuk irakurrarazi eta gero horien edukia ikasturteko proiektura egokitzeko lan bat eginez.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

## 3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

✓ Ekintzaile-mentalizazioan sentsibilizatzea:
- Euskadiko enpresa-sarea identifikatzea: sektoreak, tamaina, forma juridikoa, etab.
- Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
- Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
- Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.
- Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.

✓ Enpresa-ideiak garatzea:
- Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
- Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
- Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.
- Hautatutako negoziorako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
- Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
- Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.

✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
- Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
- Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).

- Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
- Internet erabilita, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
- Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.

✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:

- Diruzaintzako plan bat, emaitzen kontua eta egoera-balantzea aztertzea.
- Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
- Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.

# 12. lanbide-modulua
# LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

## a) Aurkezpena

| | |
|---|---|
| Lanbide-modulua: | **Lantokiko prestakuntza** |
| Kodea: | 1213 |
| Heziketa-zikloa: | Errepideko Garraiorako Ibilgailuak Gidatzea |
| Maila: | Erdi-maila |
| Lanbide-arloa: | Garraioa eta Ibilgailuen Mantentze Lanak |
| Iraupena: | 380 ordu |
| Kurtsoa: | 2 |
| Irakasleen espezialitatea: | Merkataritza-prozesuak<br>Ibilgailuen mantentze-lanak<br>(Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)<br>Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa<br>(Bigarren Hezkuntzako irakaslea) |
| Modulu mota: | Zeharkako modulua |
| Helburu orokorrak: | Guztiak |

## b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
b) Enpresaren egitura eta sektorean dauden ereduzko enpresa-antolamenduak alderatu ditu.
c) Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota lotu ditu enpresa-jardueraren garapenarekin.
d) Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
e) Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko konpetentziak baloratu ditu.
f) Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan xedatutako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
   - Lanpostuak behar duen prestasun pertsonala eta denborakoa.

- Lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
- Jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
- Lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
- Lantalde barruko eta enpresan xedatutako hierarkiekiko harreman-jarrerak.
- Lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
- Profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.

b) Lanbide-jardueran aplikatzekoak diren laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarrizko alderdiak identifikatu ditu.
c) Jarduera profesionalak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
f) Esleitutako lanaren erantzukizuna hartu du, eta jasotako aginduak interpretatu eta bete ditu.
g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
h) Gainerako taldekideekin koordinatu da, eta sortutako gorabehera garrantzitsuak jakinarazi ditu.
i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu ditu.
j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Ibilgailua eta bere mekanismo lagungarriak egiaztatzen ditu garraio-zerbitzua gauzatu aurretik, xedatutako protokoloak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Enpresak eta ibilgailuaren eskuliburu teknikoak adierazitako mantentze-aginduak eta -jarraibideak interpretatu ditu.
b) Prebentziozko mantentze-plana gauzatu du, jarraibideak betez.
c) Kontrol-taulako ohar-argiak behar bezala irakurri ditu.
d) Sistemen jariakin-mailak eta ibilgailuaren zehaztapen teknikoak bat datozela egiaztatu du.
e) Ibilgailuaren atalen eta osagaien presioak eta fabrikatzaileak xedatutako funtzionamendu-balio optimoak bat datozela egiaztatu du.
f) Ibilgailuen ekipo eta sistema lagungarriak behar bezala dabiltzala egiaztatu du.
g) Xehetasunez idatzi ditu egindako eragiketak eta hautemandako anomaliak mantentze-lanen kontrol-orrian.
h) Ibilgailuen mantentze-jarduerei dagozkien segurtasun-neurriak bete ditu.
i) Ingurumen-legeak bete ditu, sortutako hondakinei dagozkien ekintza egokiak betez.

4. Salgaien eta bidaiarien errepideko garraiorako ibilgailuak gidatzen ditu, legeek xedatutako eskakizunen eta jardunbide egokien arabera.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Garraio-eragiketak gauzatzeko beharrezkoa den dokumentazioa prestatu eta egiaztatu du.
b) Ibilgailua zirkulaziora batzeko maniobra seguru eta pixkanaka gauzatu du.
c) Ibilgailuaren aginteak, mekanismoak eta gailuak abileziaz eta trebetasunez erabili ditu gidatu bitartean.
d) Segurtasunez gidatu du, zirkulazioko eta bide-segurtasuneko arauak betez.
e) Zirkulazio-baldintzen, bidearen egoeraren eta baldintza atmosferikoen arabera gidatu du.
f) Ibilgailuaren dimentsio-ezaugarrien eta atzealde irtenarekin inguruak jotzeko arreta-neurrien arabera gidatu du.
g) Egoki gidatu du, zama mugitzea eta bidaiariak deseroso egotea saihestuta.
h) Zegozkion maniobrak segurtasunez eta eraginkortasunez gauzatu ditu.
i) Lanaldien, gidatze-aldien eta atsedenaldien gaineko arauak aplikatu ditu ibilbideak osatzean.
j) Ibilbideen, ordutegien eta xedatutako geldialdien araberako bidaia-plana aplikatu du.

5. Ibilgailuaren zamalanak egiten ditu, banaketa-plana eta xedatutako prozedurak aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Salgaien egoera egiaztatu du jasotzean eta entregatzean eta hautemandako anomaliak idatziz jaso edo adierazi ditu.
b) Salgai motaren araberako zamalanetarako bitarteko egokiak erabili ditu.
c) Ibilgailua salgaia jasotzeko eta zerbitzua eskaintzeko prestatu du.
d) Salgaiak estibatzea eta desestibatzea, finkatzea eta manipulatzea gauzatu ditu, xedatutako prozedurak betez.
e) Salgaiak kargatzean, espazioa optimizatu du ibilgailuan.
f) Ibilgailuko karga seinaleztatu du, indarrean dauden arauen arabera.
g) Salgai mota bakoitza (arriskutsuak, galkorrak eta animalia biziak, besteak beste) garraiatzeko indarrean dauden arauak aplikatu ditu.
h) Zamalan-eragiketen eta salgaiak manipulatzeko laneko segurtasunaren eta osasunaren arauak bete ditu.

6. Bidaiariei edo erabiltzaileei eskainitako zerbitzuari dagozkion eragiketak gauzatzen ditu, informazio-jario arinarekin eta kexak eta erreklamazioak prestutasunez izapidetuz.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kexak edo erreklamazioak zehatz eta argi artatu ditu.
b) Bere eskumeneko esparruan sortutako gorabeherak bizkor konpondu ditu.
c) Konponbide alternatiboak edo konpontzeko prozedurak argi eta zehatz jakinarazi ditu.
d) Erreklamazio-liburua edo -orria eskaini du, bezeroak hala eskatuta.
e) Zerbitzua eskaini bitartean gertatutako gorabeherak izapidetu ditu, eta horien berri eman dio zuzendaritzari.
f) Bidaiarien garraio-zerbitzuak kobratzeko tarifak aplikatu ditu.
g) Bidaiariak igotzea eta jaistea eta ibilgailuan ekipajeen zamalanak errazteko oinarrizko arauak aplikatu ditu.
h) Bidaiariei arreta eta informazioa eskaini dizkie, arreta/komunikazio teknika egokiak aplikatuta.

7. Biltegiko antolaketa- eta funtzionamendu-eragiketak gauzatzen ditu, baita salgaiak leku egokietan kokatzeko eta gordailatzeko jarduerak ere, xedatutako biltegiratze-plana aplikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

a) Kargak/salgaiak jasotzeko, kargatzeko, deskargatzeko eta bidaltzeko eragiketak gauzatu ditu.
b) Jasotzeko eta bidaltzeko eragiketak biltegiko dokumentazioan edo erregistro-sistema informatikoetan adierazi ditu.
c) Salgaiak sailkatu eta hautatu ditu, eskaera mota desberdinak prestatzeko.
d) Bitarteko eta material egokiak erabili ditu, kaxak eta paletak paketatzeko eta biltzeko.
e) Salgaiak mugitzeko aginduak eraginkortasunez eta azkartasunez interpretatu ditu.
f) Trebetasunez erabili ditu orga automotorrak eta eskuzkoak.
g) Karga altuera desberdinetan estibatu edo desestibatu du.
h) Helburua edo biltegiratze-lekua identifikatu ditu, salgaien etiketei edo dokumentazioari erreparatuta.
i) Egoera eta mugimendu bakoitzari dagozkion arriskuak hauteman, eta babes-neurriak aplikatu ditu.

## c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak:

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira:

- ✓ Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzea, eta horiek lortutako produktuen produkzioarekin eta merkaturatzearekin erlazionatzea.

- ✓ Ibilgailuaren oinarrizko mantentze-lanen plana aplikatzea:
  - Elementuak aurkitzea.
  - Matxura mekaniko sinpleak diagnostikatzea ezarritako prozedurei jarraituta.
  - Elementuak aurkitzea.

- ✓ Ibilgailuak gidatzea:
  - Joan-etorrian ibilgailuaren aginteak, mekanismoak eta gailuak erabiltzea.
  - Modu seguruan gidatzea, trafiko arloan indarrean dauden arauak, seinaleak eta legedia errespetatuta.
  - Bidaiarien zein bestelako salgaien (galkorrak, arriskutsuak eta animaliak, besteak beste) garraioari aplikatu beharreko araudia betetzea.
  - Martxari ekin aurretik egiaztatzea gainerako erabiltzaileei arriskurik ekarri gabe egin daitekeela.

- ✓ Enpresaren berariazko antolamendura egokitzea, harreman tekniko laboralen sisteman txertatuta.

- ✓ Jasotako jarraibideak interpretatzea eta gauzatzea, garatzen duen lanaren ardura hartuta.

- ✓ Uneoro egokia den pertsonarekin eraginkortasunez komunikatzea.

- ✓ Enpresaren lan-erritmoa hartzea, antolamenduan bertan zehaztutako eguneroko errendimendu-helburuak beteta.

- ✓ Errepide bidezko garraioaren merkataritza-harremanetan bezeroari arreta emateko zein erreklamazioak eta gorabeherak ebazteko teknikak aplikatzea.

- ✓ Bateria eta karga- zein abio-sistemak mantentzea eta instalatzea.
- ✓ Elikadurako, gidatzeko, argiztapeneko eta seinaleztapeneko sistema elektriko-elektronikoetan matxurak eta disfuntzioak aurkitzea eta diagnostikatzea.
- ✓ Biltegi moten, eremuen eta lan-ekipoen funtzioak eta ezaugarriak bereiztea enpresetan/organizazioetan (industriakoak zein merkataritza eta zerbitzuetakoak).
- ✓ Biltegiko berezko eragiketen (adibidez, harrera, biltegiratzea, kargatzea, eta abar) ohiko dokumentazioaren, lan- eta erregistro-aginduen informazioa eta oinarrizko elementuak interpretatzea.
- ✓ Biltegiko jardueren eta eragiketen berezko etiketatzeko, aurkitzeko eta zenbatzeko oinarrizko ekipoak erabiltzea, eta segurtasun- eta osasun-arauak betetzea.

# 4. GUTXIENEKO ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

## 4.1 Espazioak:

| PRESTAKUNTZA ESPAZIOA | AZALERA (m²) / 30 IKASLE | AZALERA (m²) / 20 IKASLE |
|---|---|---|
| Balio anitzeko gela | 60 | 40 |
| Biltegi-tailerra | 150 | 110 |
| Praktikak egiteko trafikoari itxitako esparrua (*) | | |
| Ibilgailuaren mantentze-lanen tailerra | 150 | 110 |
| Simulazio-gela (*) | 60 | 40 |

**(*) Espazio horiek ez dute nahitaez hezkuntza-zentroan egon behar.**

## 4.2 Ekipamenduak:

| PRESTAKUNTZA ESPAZIOA | EKIPAMENDUA |
|---|---|
| Balio anitzeko gela | - Ikus-entzunezko ekipoak.<br>- Sarean instalatutako PCak.<br>- DVDa duen ordenagailua.<br>- Inprimagailua.<br>- Proiekzio-kanoia.<br>- Internet-konexioa.<br>- Proiekzio-pantaila.<br>- Liburutegi teknikoa eta informatikoa.<br>- Takografo analogikoa edo digitala edo horiek simulatzeko programak.<br>- Billeteak baliogabetzeko eta saltzeko makinak.<br>- Lehen laguntzetako botikina.<br>- Bihotz-biriketako bizkortze-teknikatarako manikia. |
| Biltegi-tailerra | - Ohiko apalategiak.<br>- Karga paletetan antolatua, kopuru nahikoan.<br>- Gutxienez 1.500 kg-ko karga-ahalmena duen orga jasotzaile elektrikoa.<br>- Eskuzko transpaleta.<br>- Eskuzko orga.<br>- Zumitzez eusteko eskuzko gailua eta biltzeko eskuzko gailua.<br>- Barra-kode irakurgailua. |
| Praktikak egiteko trafikoari itxitako esparrua (*) | - Konoak, triangeluak eta su-itzalgailuak.<br>- Altxagarriak, eskularruak, botak eta lanjantzia.<br>- Auto-ibilgailuak.<br>- Bidaiariak garraiatzera egokitutako ibilgailua, 15 eserleku baino gutxiago ez dituena izango, gidariarena barne, eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak izango dituena, baita bi aginte ere (D1 baimenerako).<br>- Bidaiariak garraiatzera egokitutako ibilgailua, 12 m-ko luzera baino txikiagoa ez duena izango, eta indarrean dauden legeek agindutako osagarriak izango dituena, baita bi |

| PRESTAKUNTZA ESPAZIOA | EKIPAMENDUA |
|---|---|
| | |
| | aginte ere (D baimenerako).<br>- Salgaiak garraiatzeko egokitutako ibilgailua, masari eta dimentsioei dagokienez, ezaugarri tekniko hauek izango dituena: 6 t-ko BGM, 6 m-ko luzera, aginte bikoitzekoa eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak dituena (C1 baimenerako).<br>- Ibilgailu-parkea (C1 eta E baimenetarako):<br>• Salgaiak garraiatzera egokitutako ibilgailua, gutxienez 6 t-ko BGMkoa eta gutxienez 6 m-ko luzerakoa.<br>• Gutxienez 3 t-ko BGMko atoia. Multzoak gutxienez 10 m-ko luzera izango du.<br>• TIR karrozeriako kamioi trinkoa, tauliner edo erdi-tauliner motakoa, gutxienez 18 t-ko BGMkoa, gutxienez 10 m-ko luzerakoa, 2,55 m-ko zabalerakoa, bi agintekoa eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak dituena (C baimenerako).<br>• Errepide-trena edo ibilgailu artikulatua (trailerra, C+E baimenerako), gutxienez 36 t-ko BGMkoa eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak dituena. Honela egongo da osatuta:<br>o Errepide-trenerako:<br>Bi edo hiru ardatzeko eta TIR karrozeria duen kamioi trinkoa, *tauliner* edo erdi-*tauliner* motakoa, edo kutxa itxikoa, gutxienez 2,55 m-ko zabalerakoa, bi agintekoa eta baimena duena atoiak eramateko, ez erdi-atoiak.<br>Gutxienez bi ardatzeko atoia, gutxienez 2,55 m-ko zabalera eta gutxienez 7 m-ko luzera dituena, edo gutxienez 16 m-ko luzerako multzoa osatzen duena.<br>o Ibilgailu artikulaturako:<br>Kamioi traktore bat, bi agintekoa.<br>Ibilgailu erdi-atoia, gutxienez 2,55 m-ko zabalerakoa eta gutxienez bi ardatzekoa, multzoak gutxienez 15 m-ko luzera duela.<br>Ibilgailu motorduna, bi agintekoa, salgaiak garraiatzekoa, 3.000 eta 3.500 kg arteko BGM eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak dituena.<br>Ibilgailu motorduna, bi agintekoa, bidaiariak garraiatzekoa, gutxienez 7 eserlekukoa, gidariarena barne, eta 9 baino gehiago ez dituena, eta indarrean dauden legeek agindutako ordezko piezak eta osagarriak dituena.<br>Ibilgailu motorduna, bi agintekoa, bidaiariak garraiatzekoa, gutxienez 5 eserlekukoa, gidariarena barne, eta gehienez 2.000 kg-ko BGM duena. |

| PRESTAKUNTZA ESPAZIOA | EKIPAMENDUA |
|---|---|
| Ibilgailuaren mantentze-lanen tailerra | - Lan-mahai tornuzildunak.<br>- Metrologia-tresneria.<br>- Baterien egiaztagailua.<br>- Polimetro digitalak.<br>- Korronte zuzenerako matxarda induktiboa.<br>- Elektrizitate eta elektronikako tresneria didaktikoa.<br>- Erreminta-orga elektromekanikoa.<br>- Pneumatikoak desmuntatzeko makina.<br>- Bi zutabeko altxagailua.<br>- Eskorgako tornuzil hidraulikoak.<br>- Purgatzeko tresneria, balazta hidraulikoen sistemarekin.<br>- Motorren eta motorraren sistemen eta zirkuituen maketak ebakita.<br>- Lerroko lau zilindroko eta lau aldiko diesel-motorra.<br>- Motor-multzoa, injektore-ponpa eta abiadura-kaxa, guztia neurri normalean.<br>- Ibilgailuaren diferentziala, multzo konikoa eta diferentzialaren kutxa.<br>- Ibilgailuaren direkzio-sistema, eredu mekanikoa.<br>- Ibilgailuaren motelgailua, neurri normala.<br>- 12 volt-eko bateria, neurri normala.<br>- Txasis osoa, multzo didaktikoa, ibilgailuaren organo mekaniko guztiak neurri naturalean dituena.<br>- Lau zilindroko diesel-motorrerako lerroko injekzio-ponpa, elikadura-ponpatxoa, tutuak eta injektoreak dituena.<br>- Enbrage-sistema.<br>- Elementu guztiak dituen zilindroa.<br>- Neurri normaleko pneumatiko bat, irakasteko, eta hainbat neurriren erakusgaiak.<br>- Freno hidraulikoaren sistema, zirkuitu bikoitzekoa.<br>- Aire konprimitu bidezko freno-sistema. |
| Simulazio-gela (*) | - Maila handiko gidatze-simulagailua. |

# 5. IRAKASLEAK

## 5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Errepide Garraiorako Ibilgailuak Gidatzeko heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

| LANBIDE MODULUA | IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA | KIDEGOA |
|---|---|---|
| 1204. Hasierako gidatzea | Irakasle espezialista (1) | |
| 1205. Gidatze segurua eta zentzuzkoa | Irakasle espezialista (2) | |
| 1206. Garraioaren arloko legeak eta alderdi ekonomikoak eta sozialak | Merkataritza-prozesuak | • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| 1207. Salgai-garraioko zerbitzuak | Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa (3) | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |

| LANBIDE MODULUA | IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA | KIDEGOA |
|---|---|---|
| 1208. Bidaiari-garraioko zerbitzuak | Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1209. Biltegiko lanak | Merkataritza-prozesuak | • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| 1210. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak | Ibilgailuen mantentze-lanak | • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| 0020. Lehen laguntzak | Osasun- eta laguntza-prozedurak | • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |
| | Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak | |
| | Irakasle espezialista | |
| 0156. Ingelesa | Ingelesa | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1211. Laneko prestakuntza eta orientabidea | Laneko prestakuntza eta orientabidea | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1212. Enpresa eta ekimen sortzailea | Laneko prestakuntza eta orientabidea | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| 1213. Lantokiko prestakuntza | Merkataritza-antolamendua eta kudeaketa | • Bigarren Hezkuntzako irakaslea |
| | Merkataritza-prozesuak<br>Ibilgailuen mantentze-lanak | • Lanbide Heziketako irakasle teknikoa |

(1) TZNk gaitutako bide-prestakuntzako irakaslea, martxoaren 26ko 369/2010 Errege Dekretuaren 46. artikuluak xedatutakoaren arabera.
(2) Sustapen Ministerioak gaitutako zentzuz gidatzeko irakaslea, IGIn eskolak emateko, urriaren 1eko FOM/2607/2010 Aginduaren 3. artikuluan eta lehen xedapen iragankorrean xedatutakoaren arabera.
Gainera, suteak itzaltzeari buruzko modulu honen atala garatzeko, eskolak emango dituen irakaslea edo ikastetxea TZNk gaituta egon behar da, Barne Ministerioaren 1998ko ekainaren 18ko Aginduaren arabera.
(3) Salgai arriskutsuen garraioari buruzko lanbide-modulu honen atala garatzeko, eskolak emango dituen irakaslea TZNk gaituta egon behar da, Barne Ministerioaren 1998ko ekainaren 18ko Aginduaren arabera.

# 6. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

## 6.1. Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko.

| KONPETENTZIA ATALA | LANBIDE MODULUA |
|---|---|
| | |
| UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea. | 1210. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak |

| KONPETENTZIA ATALA | LANBIDE MODULUA |
|---|---|
| UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.<br>UC1466_2: Taxiak, autoak edo furgonetak gidatzea, hala nola zerbitzua emateari loturiko eragiketak gauzatzea. | 1204. Hasierako gidatzea<br>1205. Gidatze segurua eta zentzuzkoa |
| UC1463_2: Garraio-zerbitzuen plangintza egitea eta bezeroekin harremanetan jartzea.<br>UC1465_2: Salgaien zamalanen prozesuak gainbegiratzea eta/edo gauzatzea. | 1207. Salgai-garraioko zerbitzuak |
| UC1464_2: Autobus- edo autokar-bidaiariei arreta eta informazioa emateko jarduerak gauzatzea.<br>UC1467_2: Erabiltzaileei arreta emateko eta bezeroekin harremanetan jartzeko jarduerak gauzatzea. | 1208. Bidaiari-garraioko zerbitzuak |
| UC1465_2: Salgaien zamalanen prozesuak gainbegiratzea eta/edo gauzatzea.<br>UC1325_1: Salgaiak biltegian jasotzeko, ipintzeko, mantentzeko eta bidaltzeko jarduera lagungarriak gauzatzea, taldean lan eginez.<br>UC0432_1: Zamak orga jasotzaileekin erabiltzea. | 1209. Biltegiko lanak |

## 6.2. Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko.

| LANBIDE MODULUA | KONPETENTZIA ATALA |
|---|---|
| | |
| 1210. Ibilgailuen oinarrizko mantentze-lanak | UC1461_2: Hiri-barruko eta hiriarteko errepideko garraiorako ibilgailuen lehen mailako mantentze-lanak prestatzea eta gauzatzea. |
| 1204. Hasierako gidatzea<br>1205. Gidatze segurua eta zentzuzkoa | UC1462_2: Ibilgailua gidatzea eta garraio-zerbitzuei loturiko beste eragiketa batzuk gauzatzea.<br>UC1466_2: Taxiak, autoak edo furgonetak gidatzea, hala nola zerbitzua emateari loturiko eragiketak gauzatzea. |
| 1207. Salgai-garraioko zerbitzuak | UC1463_2: Garraio-zerbitzuen plangintza egitea eta bezeroekin harremanetan jartzea. |
| 1208. Bidaiari-garraioko zerbitzuak | UC1464_2: Autobus- edo autokar-bidaiariei arreta eta informazioa emateko jarduerak gauzatzea.<br>UC1467_2: Erabiltzaileei arreta emateko eta bezeroekin harremanetan jartzeko jarduerak gauzatzea. |

| LANBIDE MODULUA | KONPETENTZIA ATALA |
|---|---|
| | |
| 1209. Biltegiko lanak<br>1207. Salgai-garraioko zerbitzuak | UC1465_2: Salgaien zamalanen prozesuak gainbegiratzea eta/edo gauzatzea.<br>UC1325_1: Salgaiak biltegian jasotzeko, ipintzeko, mantentzeko eta bidaltzeko jarduera lagungarriak gauzatzea, taldean lan eginez.<br>UC0432_1: Zamak orga jasotzaileekin erabiltzea. |

Instituto Vasco de Cualificaciones y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua

Avda. Lehendakari Aguirre, 184
48015 – Bilbao

T. 944 47 40 37
F. 944 47 38 62

www.kei-ivac.com
info@kei-ivac.com

LANBIDE HEZIKETA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación Profesional